

Itziar Laka (koord.)

Pello Salabururi esker onez

Hitzak sarean

Pello Salabururi esker onez

Hitzak sarean



AURKIBIDEA/ CONTENTS/ ÍNDICE

1. UPV/EHUko Zuzenbide Fakultatearen Hiztegi Juridikoa:
hiztegi-sarreraren egitura eta definizioen idazkera
Xabier Alberdi..... 1
2. Lege-hizkera euskaraz:
begiratu bat historian zeharrekoari eta zenbait gogoeta XXI. Mendekoaz
Miren Azkarate eta Alberto Basaguren.....25
3. (Euskal) Bozak: erdikoak, inkoatiboak eta arazleak
Ane Berro eta Beatriz Fernandez.....47
4. Coreference and antecedent frequency effects in Spanish:
An eye-tracking study
Nerea Egusquiza and Adam Zawiszewski.....65
5. *Eder baliz, on ez eiliz:*
Euskaldunok hizkuntzarekin ditugun maitasun/gorroto harremanez
Patxi Goenaga.....83
6. Larramendiren neologismoak gaurko baliabide lexikoen ispiluan
David Lindemann eta Iñaki San Vicente.....107
7. Tesiko bosgarren kapituluaren historia txikia
("Zer arraio idatzi dok zorioneko bosgarren kapitulu horretan?!")
Jesus Mari Makazaga.....135
8. Sobre el orden básico de palabras en euskera:
un nuevo estudio de corpus
Luis Pastor.....159
9. Euskararen konbinazio hiztegi baterako
Ibon Sarasola eta Josu Landa.....181
10. Processing Preferences in an Ergative Language:
Evidence from Basque Postnominal Relative Clauses
Iraia Yetano, Jon Andoni Duñabeitia and Itziar Laka.....193
11. Sentence processing in Andean and Peninsular Spanish:
word order and animacy
Natalia Yoza, Kepa Erdocia and Itziar Laka.....213

[Escribir texto]

UPV/EHUko Zuzenbide Fakultatearen Hiztegi Juridikoa¹:

hiztegi-sarrerren egitura eta definizioen idazkera

Xabier Alberdi Larizgoitia

Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

Laburpena

Artikulu honetan *UPV/EHUko Zuzenbide Fakultatearen Hiztegi Juridikoaren* nondik norakoak eta ezaugarriak aurkezten dira: hiztegiaren sorrera, terminologiari buruzko ikuspegia, metodologia, egitura, sarrerren egitura... Orobat aurkezten dira hiztegi honetan definizio argi eta ulergarriagoak idazteko baliatu diren estilo-irizpide batzuk (oro har, atzerakarga arintzeko eta definizio komunikatiboagoak egitekoak: nola eta noiz aurreratu deskriptorea, nola saihestu definizio zirkular, tautologiko eta parafrastiko hutsak, eta abar).

1. Hiztegiaren testuingurua: sorrera eta helburua

UPV/EHUko Zuzenbide Fakultateko Euskara Batzordearen ekimenez sortu zen euskarazko hiztegi juridikoaren proiektua, eta fakultateko irakasle elebidunen langintza eta lankidetzari esker gauzatu da orain dela urte batzuk egitasmo hutsa zena. Une egokian argitaratuko da lan hau; hain zuzen ere, Zuzenbide Fakultatearen 50. urteurrena ospatzen ari garen honetan. Hiztegi Juridiko honek, mende Erdiko ibilbidean egindako beste lanek bezalaxe, agerian uzten du UPV/EHUren Zuzenbide Fakultateak euskara juridikoaren garapen- eta normalizazio-prozesua sustatzeko duen konpromiso irmoa eta helburu horri begira egiten duen lan etengabea. Ez gabiltza oso oker esaten dugunean, zuzenbideko irakasle euskaldunen hiru belaunaldi, behintzat, daudela ordezkaturak lan honen egile-taldean. Haietako batzuk, aitzindariak izan dira dagokien alorrean euskaraz irakasten; beste batzuk, berriz, zuzenbideko ikasketak osorik euskaraz egin dituzten irakasle gazteak.

¹ 2019an argitaratua du UPV/EHUK hiztegia (Alberdi, Azkarate eta beste, 2019).

Urte asko joan dira UZEIk 1985ean lehen Zuzenbide Hiztegia argitaratu zuenetik, eta harrezkero ibilbide luzea egin da euskara juridikoa garatzeko. Aipagarriak dira eragile askoren lanak: besteak beste, Euskal Herriko administrazioen eta bereziki IVAPen lana, UPV/EHUK eta Deustuko Unibertsitateak egindakoa, Eusko Jaurlaritzako Justizia Sailak eta Terminologia Batzordeak egindakoa... Erabateko normalizaziotik urrun bagaude ere, ikaragarria da egin den aurrerapena; horren lekuko, Zuzenbide Corpusak² jasotzen dituen emaitzak. Azken hamarkada hauetan gaikako edo arlokako hiztegi juridiko asko egin eta argitaratu dira, baina, hala eta guztiz ere, nabaria zen hiztegi juridiko orokor edo orotariko baten falta. Eta, hain zuzen ere, hutsune hori betetzera etorri da orain esku artean duzun hiztegi juridiko hau.

Euskal Herri osoan UPV/EHUko Zuzenbide Fakultatea da ikasketa guztiak euskaraz eskaintzen dituen eragile bakarra eta, dimentsio hori kontuan hartuta, ezinbestekotzat jo genuen bertako ikasle, irakasle eta langileek erabili ahal izango zuten hiztegi juridikoa sortzea. Funtsezko tresna da hiztegia, gure egunerokoan erabiltzen dugun terminologia juridikoari batasuna eta oinarri sendoagoa emateko. Gure komunitate juridikoan terminologia bateratua adosteko eta erabiltzeko aukera ahalbidetzen duen euskarri elebiduna da hiztegi juridiko hau. Irakaskuntzan, ikerketan zein kudeaketan erabiltzeko tresna aproposa. Fakultatea osatzen dugunon lanaren kanpo- eta barne-eremu guztietan erraz integratzen den baliabidea. Fakultatean egiten dugun lana ikusgai jartzen duena.

Hiztegiaren lehen erabiltzaileak, lana egiterakoan bereziki gogoan izan ditugunak, UPV/EHUko ikasle, irakasle eta langileak dira, baina ez dago esan beharrik arlo juridikoko eragile guztientzat pentsatuta dagoela hiztegia. Are gehiago, zuzenbideak gizarte-bizitzan eta hedabideetan duen eragin ikaragarria kontuan harturik, zilegi da esatea gizarte osoa dela hiztegi honen hartzailea.

Esan bezala, UPV/EHUko Zuzenbide Fakultateko irakasle askok lan egin dute hiztegian: 5 koordinatzailek, 15 taldeburuk eta 51 autorek. Beraz, erabatekoa izan da fakultateko irakasle elebidunen inplikazioa. Hiztegia arloka antolatu zen eta arlo bakoitzean taldeburu bat arduratu zen lana koordinatzeaz. Hamalau arlo hauek bereizi dira hiztegian:

² <http://www.ehu.es/ehg/zuzenbidea/>

Administrazio Zuzenbidea (Admin. Zuz.)
 Europar Batasuneko Zuzenbidea (EB. Zuz.)
 Finantza Zuzenbidea (Fin. Zuz.)
 Konstituzio Zuzenbidea (Konst. Zuz.)
 Kontzientzia Askatasunari buruzko Zuzenbidea (Kontz. Ask. Zuz.)
 Lan Zuzenbidea eta Gizarte Segurantzza (Lan Zuz.)
 Merkataritza Zuzenbidea (Merkat. Zuz.)
 Nazioarteko Zuzenbide Pribatua (Nart. Zuz. Pr.)
 Nazioarteko Zuzenbide Publikoa (Nart. Zuz. Pu.)
 Zigor Zuzenbidea (Zig. Zuz.)
 Zuzenbide Erromatarra (Zuz. Err.)
 Zuzenbide Prozesala (Zuz. Proz.)
 Zuzenbide Zibila (Zuz. Zib.)
 Zuzenbidearen Teoria (Zuz. T.)

Egileen artean, Zuzenbide Fakultatean hizkera eta komunikazio juridikoa irakasten eta jurilinguistikaren alorrean lan egiten duten hiru hizkuntzalari aritu dira proiektuan. Haiek arduratu dira hiztegiaren diseinuaz; terminologia erauzi eta lantzeko metodologiaz; definizioen idazketa-gidalerroez; hizkuntza-irizpideez eta edizioaz.

2. Terminologiarekiko ikuspegia, definizio-moldeak eta izaera deskriptiboa

Hiztegigintzari buruzko ikuspegiari dagokionez, *Diccionario del español jurídico (DEJ)*³ izan dugu eredu eta gidari. Eta horrek esan nahi du hizkuntza-hiztegiak egiteko erabili ohi diren metodologia eta irizpide lexikografikoak erabiltzea: definizio entziklopediko luzeak eman beharrean, ahalik eta definizio laburren eta argienak ematen ahalegindu gara, argibide osagarriekin osatuz terminoari buruzko informazioa.

Gure ikuspegia, beraz, Terminologiaren Teoria Komunikatiboaren (TCT) ildoan kokatzen da (Cabr e, 1993), eta guztiz aldentzen da W ster-en (1979) Terminologiaren Teoria Orokorretik (TTO). Izan ere, TTOren arabera: kontzeptu espezializatuak (haien ustez, hizkuntzaren aurretikoak eta unibertsalak) ditu aztergai terminologiak, eta ez

³ <https://dej.rae.es/>

hitzak eta haien esanahiak; ez da onartzen polisemiarik eta sinonimiarik; hiztegi espezializatuetatik kanpo geratzen dira kategoriatuak (aditzak, esaterako); definizio-bide bakarra onartzen da (deskriptore generikoa + ezaugarri bereizgarriak); kontzeptuen antolaketa hierarkiko eta zurruna du oinarri terminologiak...

Oso bestelakoa da teoria komunikatiboaren ikuspegia (Lorente, 2001). TCTren arabera, terminologiak balio espezializatuko unitate linguistikoak (BEUak) ditu aztergai eta hizkuntza naturala du oinarri. Eta horrek esan nahi du ez dagoela hitzen eta terminoen arteko bereizketa zurrun eta erabatekorik: izan ere, terminoak, azken batean, komunikazio espezializatuaren jardunean balio terminologikoa bereganatzen duten unitate linguistiko arruntak baino ez dira (hau da, komunikazio espezializatuan erabiltzen direnean aktibatzen da hitzen balio espezializatua). Hortaz, kontzeptuak ez dira existitzen izaki bakartu gisa, testu espezializatuari esker baizik. Ondorioz, izaera linguistikoa du terminoen esanahiak, eta hizkuntzaren beste edozein unitatetan bezain ohikoak dira sinonimia eta aldakortasuna terminoen (BEUen) alorrean.

Teoria komunikatiboen arabera jokatu dugu euskarazko hiztegi juridiko honetan definizioak (*definiens*) moldatzean: a) erabiltzailearen soslaiaren arabera egokitu ditugu definizioak (erabiltzaile ez-adituak ulertzeko moduko definizio labur eta albat argienak); b) sarrera polisemikoak ere jaso ditugu; c) askotariko estrategiak erabili ditugu definizioak idaztean (definizio inklusibo klasiko “aristotelikoa” —deskriptore generiko hiperonimikoa + ezaugarri bereizgarriak—, parafrasi bidezkoa, eta sinonimoen bidezkoa); d) aldakortasun kontzeptuala (sinonimia) jasotzen ahalegindu gara. Labur esanda, lexikografiaren eredutik gertu ibili gara terminoak definitzean: definizioaren helburua ez baita ahalik eta kontzeptuari buruzko xehetasun gehien ematea, baizik eta irakurleari balio espezializatuko unitate (BEU) horren esanahiaz jabetzeko adinako informazioa ematea; eta horregatik jo izan dugu definizio laburretara.

Terminologia juridikoa bateratzea eta finkatzea da hiztegi honen helburu nagusietako bat, baina, hala ere, horrek ez du esan nahi hiztegi arauemaitzat jo behar denik. Hain zuzen ere, geure egin dugun ikuspegi komunikatibo horretatik eratortzen da hiztegiaren izaera deskriptiboa: UPV/EHUko testuetatik elikatzen da hiztegi hau, eta, ezinbestean, Euskaltzaindiaren hiztegi batua du oinarri. Helburua, beraz, aldakortasuna onartzen duen eredu bat eskaintzea da, eta ez, hainbeste, eredu zurrun bat inori ezartzea.

Aldi berean, euskaraz komunikatzean segurtasun juridikoa eta herritarrek ulertzeko duten eskubidea⁴ bermatzen laguntzea da hiztegi honen beste helburu garrantzitsu bat. Argitalpen hau hizkera argiaren bidetik aurrera egiteko beste urrats erabakigarri bat izatea nahi genuke.

3. Lanerako metodologia

Terminologiari buruzko ikuspegi komunikatiboari jarraituz, UPV/EHUko Zuzenbide Fakultateko irakasleen testuetan oinarritu ginen euskarazko hiztegi juridiko hau egiteko: alegia, hasteko, irakasleen testugintza izan genuen oinarri eta hartatik erauzi genituen aukeraturiko arlo juridikoetako glosarioak osatzeko terminoak (UPV/EHUko “Terminologia Sareak Ehunduz” programaren bidez)⁵. Beraz, UPV/EHUko testu errealak eta testu haietatik erauzitako terminoak izan ziren hiztegiaren lehen iturria, barne-iturria, alegia.

Bestalde, UPV/EHUko ekoizpenarekin jarraituz, gure hiztegi juridikoan definitu beharreko terminoen zerrenda finkatzeko orduan oso kontuan hartu genuen, halaber, UPV/EHUK argitaratutako Legeak/Leyes⁶ bildumako terminologia.

Azkenik, kanpo-iturriak ere erabili genituen hiztegiko sarrerak finkatzeko: alde batetik, erdal hiztegi juridikoak⁷, Terminologia Batzordeak arlo juridikoan landutako glosarioak⁸, Euskalterm⁹, Deustuko Unibertsitateak argitaratutako berbategiak eta abar.

⁴ Ikus lan hauek, besteak beste:

Herritarrek Justiziaren aurrean dituzten eskubideen Gutuna (2002):

https://www.justizia.eus/servlet/Satellite?blobcol=urldata&blobheader=application%2Fpdf&blobheadername1=Content-Disposition&blobheadervalue1=filename%3Ddocumentos-303-carta-derechos-EUSK_0.pdf&blobkey=id&blobtable=MungoBlobs&blobwhere=1290510252341&ssbinary=true&miVar=1524343183302

Hizkera Juridikoa Modernizatzeko Batzordearen txostena (9):

<http://www.upv.es/entidades/VRSC/info/U0711342.pdf>

Ainhoa Altzuguren-en “Hizkera juridiko argia” web-orria:

<https://ainhoaaltzuguren.wixsite.com/hizkerajuridikoargia>

⁵ Zuzenbide Fakultateko irakasle elebidun ia guztiak parte hartu zuten UPV/EHUko “Terminologia Sareak Ehunduz (TSE)” programan: <https://www.ehu.es/eu/web/euskara/terminologia-sareak-ehunduz>

⁶ <https://www.ehu.es/es/web/euskara/legeak-leyes-bilduma>

⁷ Funtsezkoa den *Diccionario del español jurídico (DEJ)* hiztegiarekin aparte (<https://dej.rae.es/>), honako hauek, besteak beste:

Arco Torres, M.A.; Villa-Real, R. (2006): *Diccionario de términos jurídicos*. Granada: Comares.

Fernández Martínez, J. M. (2012): *Diccionario jurídico*. Pamplona: Aranzadi.

Fonseca Herrero, J.I.; Iglesias Sánchez, M.J. (2010): *Diccionario jurídico*. Madrid: Colex.

Fundación Tomás Moro (2004): *Diccionario jurídico Espasa*. Madrid: Espasa.

Behin terminoen erauzketa eginda eta barne- eta kanpo-iturriak kontsultatuta, definitu beharreko terminoen zerrenda —hiztegiaren oinarria— finkatu zen koordinatzaileen artean eta taldeburuen laguntzaz: ezinbestean, termino ugari utzi behar izan ziren kanpoan, argitalpena arrazoizko luzera-neurri batera ekartzearen. Handik aurrera, arloz arlo, definizioak idazteari eta sarrerak osatzeari ekin zioten hamalau arlo juridikoetako taldeburu eta autoreek.

Bestalde, hasieratik eta bukatu arte, hizkuntza-arduradunek arreta handiz gainbegiratu eta zuzendu dute erredakzio-lana: hasieran, definizioak idazteko estilo-liburu baten bidez, eta prozesuaren erdian eta amaieran testuak eta moldiztegiko probak zuzenduta.

4. Hiztegiaren egitura

Atal batzuez osatuta dago euskarazko hiztegi juridiko hau, baina, euskarazko sarrerak alfabetikoki ordenatuak dituen atala —definizioz eta oharrez hornitua— da, zalantzarik gabe, lanaren muina. Izan ere, lehenengo eta behin, erabiltzaile euskalduna izan dugu gogoan hiztegia osatzerakoan.

Hala ere, mesede gutxi egingo genion geure buruari eta gizarteari, euskara hutsezko hiztegi juridiko bat egin izan bagenu. Izan ere, askotan azpimarratu izan denez, onenean mundu juridikoaren errealitatea elebiduna da gure artean: alegia, ezinbestean, gaztelania alboan edo gogoan duela ibili beharra dauka jurista euskaldunak.

Beraz, errealitate elebidunak baldintzatu du hiztegiaren egitura. Hasieran, eranskin elebidun batzuk jarri ditugu, erabiltzaileari lana erraztuko diotelakoan:

- Zuzenbidearen arloak edo adarrak, eta haien laburdurak
- Siglak: auzitegien eta arauen izenak eta siglak
- Erakundeen izenak

Gómez de Liaño, F. (1979): *Diccionario jurídico*. Oviedo: Forum.

Ortiz Sánchez, M.; Pérez Pino, V. (2012): *Diccionario jurídico básico*. Tecnos.

Villa-Real, R.; del Arco Torres, M.A. (2014): *Diccionario jurídico elemental*. Granada: Comares, 7. argitaraldia.

⁸ <http://www.euskadi.eus/hiztegiak-banku-terminologikoak-eta-entziklopediak/web01-a2eutres/eu/>

⁹ <http://www.euskadi.net/euskalterm>

- Epaitegi eta auzitegien izenak
- Arau-xedapenak(maila guztietakoak: Nazioarteko Zuzenbide Publikokoak, Zuzenbide Pribatukoak, Estatukoak, Euskal Autonomia Erkidegokoak, Nafarroako Foru Erkidegokoak eta lurralde historikoenak)
- Zergen izenak

Gero, atal nagusia dator: euskarazko sarrera definiziodunen atala, hurrenkera alfabetikoan ordenatua. Oro har, laburrak dira sarrera gehienak, nahita baztertu baitugu hiztegi entziklopedikoetako artikuluen estiloa: funtsezko argibideak ematen dira definizioan, eta gero argibide osagarriak (ikus beherago sarreren egiturari buruzko atala, gainerako xehetasunen berri jakiteko). Guztira, sinonimoak kontatuta, 3.500 termino inguru ditu hiztegiak.

Eta, azkenik, termino guztien zerrenda elebidun hutsa dator: gaztelania-euskara zerrenda definiziorik gabea. Esan bezala, atal hau ere funtsezkoa izango da hiztegiaren erabiltzailearentzat.

5. Hiztegiaren mikroegitura: hiztegi-sarreren egitura

Sarrera lexikografiko batek honelako egitura izan ohi du:

definigaia + kategoria lexikoa + definizioa

(definitu beharreko hitza, 'definiendum')+(izena, izenondoa, aditza...)+(definiens)

Hiztegi juridiko honetan —*Diccionario del español jurídico* hiztegian eta Euskaltermen bezala¹⁰— ez da zehazten kategoria, baina horrek ez du esan nahi kategoria desberdinak jaso ez direnik. Izan ere, Terminologiaren Teoria Orokorren arabera lan terminografikoetan ez bezala, kategoria predikatibo ugari jaso ditugu hiztegian (batez ere, aditzak, hala nola *aldarrikatu*, *akusatu*, *alegatu*, *artxibatu*, *aurkaratu*, *aurrejuzgatu*,

¹⁰ Cercaterm terminologia-bankuan (<https://www.termcat.cat/ca/cercaterm>), berriz, kategoria lexikoa zehazten dute: adibidez,

- *ca* **acusar**, v tr
- *es* **acusar**, v tr

<Dret penal i penitenciar i > Dret processal penal>

baliozkotu, derogatu, deuseztatu, errebokatu, eskualdatu, epatu, errefusatu, errekusatu, espetxeratu, heredatu, inkulpatu, jarauntsi, kalifikatu, mugarriztatu, ordezkatu, tatxatu, xedatu, zedarriztatu...).

Sarrera bi hauek ditugu jokaera horren erakusgarri (lehen terminoa izena da; bigarrena, berriz, aditza):

akusatu 1 [*acusada, acusado*] ♦ *Zuz. Proz.* Zigor-prozesuko beharrezko alderdi pasiboa, akusazio-idazkiaren bitartez gauzatutako akusazioa pairatzen duena. Oh. PKL, 760 III, 368., 371., 373., 448., 512., 687. art. **Ik.** *alderdi akusatu.*

akusatu 2 [*acusar*] ♦ *Zuz. Proz.* Zigor-akzioa egikaritu pertsona zehatz baten kontra.

Beraz, egia bada ere sarrera terminologiko gehienak izenak edo izen-kategoriakoak direla (*ahalmen, alderdi, aldarrikapen, aplikazio-eremu...; jabetza pribatu, itxurazko kontratu...*), merezi du azpimarratzea arlo juridikoko aditz espezializatuaren garrantzia.

Bestalde, hizkuntza-hiztegi orokorretan ez bezala —eta egungo terminografia-lanetan egin ohi denez—, askotariko “balio espezializatuko unitateak” (BEUak) jaso dira hiztegi juridiko honetan sarrera gisa, eta ez bakarrik izen-kategoriakoak edota kategoría lexiko soilak (Estopá, 2001):

BEU lexikoak: bakunak / konplexuak (eratorriak, elkartuak...):

- izenak (*abokazio, abokatu...*) / (*ahozkotasun, agerraldi...*)
- aditzak (*alegatu, kereilatatu, zedarriztatu...*) / (*aurrejuzgatu, eskualdatu...*)
- ...

BEU ez-lexikoak:

- izen-sintagmak:

Europako Banku Zentrala, ahozko bista, ahozkotasun-printzipio, akats judizial, akusazio-sistema formal, alderdien galdeketa, demandaren prebentziozko oharpen...

- aditz-sintagmak:

sorospen-betebeharra ez betetze, kanpora-bidaltze, atzera-itzultze, bidegabeko kaleratze, zor ez diren sarrerak itzultze...

Behin kategoriaren kontua argituta, ikus ditzagun sarrera batzuk, hiztegi honetarako hautatu dugun mikroegituraren nondik norakoak azaltzeko:

afektazio [*afectación*] ♦ *Admin. Zuz. 1.* Eskubideak zein ondasunak interes orokorreko erabilera publiko batera zuzentzea. Normalean nahitaezko desjabetze-prozeduretan gauzatzen da. **Oh.** 1954ko Nahitaezko Desjabetze Legea, 9. art. **2.** Ondasun edo eskubideek jabari publikoko izaera eskuratzeko beharrezko den egintza. Haren bidez ondasun edo eskubidea erabilera orokorrari edo zerbitzu publikoari atxikitzen zaio. **Oh.** 33/2003 Legea, 65. art. **Sin.** *xedemate Ik. jabari publiko, zerbitzu publiko.*

arrazoitze [*motivación*] ♦ *Zuz. T.* Ebazpen jakin bat oinarritzen duten arrazoen adierazpena. Ordenamendu juridikoak hainbat ebazpen edo egintza juridiko motibatzea eskatzen du, hala nola ebazpen judizialak eta Europar Batasuneko egintza juridikoak. **Oh.** 6/1985 Lege Organikoa, 247. art. eta 248. art.; Europar Batasuneko Funtzionamendu Hitzarmena, 296. art. **Sin.** *motibazio* ♦ *Admin. Zuz.* Administrazio-egintza funtsatzen duten egitateen eta zuzenbideko oinarrien adierazpena. Administrazioak bere jardunean izan behar duen gardentasunak eta administrazio onaren eskubideak administrazio-egintza motibatzea eskatzen dute. Horrez gain, administrazio-erabakien kontrola ere errazten du. 39/2015 Legearen 35. artikulua zehazten du zein administrazio-egintzatan den nahitaezko arrazoitzea. **Oh.** 39/2015 Legea, 35 art. **Sin.** *motibazio Ik. administrazio-egintza.*

Aurreko adibideetan ikus daitekeenez, lehen-lehenik euskarazko terminoa (lema) ageri da, letra lodiz; ondoren, gaztelaniazko ordaina (letra etzanean eta parentesi karratuen artean): *afektazio* [*afectación*].

Sarreretan, ♦ ikurra erabili da adierak zuzenbidearen adarren arabera bereizteko: goragoko lehen adibidean (*afektazio*), Administrazio Zuzenbidekoak (*Admin. Zuz.*) dira terminoaren bi adierak (1. “Eskubideak zein ondasunak...”. 2. “Ondasun edo eskubideek...”). Bigarren adibidean (*arrazoitze*), berriz, Zuzenbidearen Teoria (*Zuz. T.*) da lehen adiera (“Ebazpen jakin bat...”), eta Administrazio Zuzenbidekoa (*Adm. Zuz.*), bigarren adiera (“Administrazio-egintza...”).

Sarreretan, bestalde, zenbakiak (1, 2, 3...) erabili dira zuzenbidearen adar baten barruan termino batek adiera bat baino gehiago dituenean: esate baterako, *afektazio* sarreran, Administrazio Zuzenbidekoak dira terminoaren bi adierak (1. “Eskubideak zein ondasunak...”. 2. “Ondasun edo eskubideek...”). *Arrazoitze* sarreran, berriz, ez da zenbakirik erabili; izan ere, bi adierak zuzenbidearen adarraren arabera (♦ *Zuz. T.* / ♦ *Admin. Zuz.*) bereizten dira.

Formatuari dagokionez, letra lodi etzanez eman ditugu latinezko eta erdal terminoak: *ius cogens*, *ius praetorium*, *iuris tantum*, *iuris tantum* presuntzio...

Era berean, letra etzaneko laburduren bidez adierazi dugu zuzenbidearen arloa edo adarra (hiztegiaren hasieran ageri da laburduren zerrenda): *Admin. Zuz.* (Administrazio Zuzenbidea), *Err. Zuz.* (Erromatar Zuzenbidea), *Nart. Zuz. Pu.* (Nazioarteko Zuzenbide Publiko) eta abar.

Sarrera askotan oharrak gehitu dira, gehienbat lege-esparruaren erreferentzia zehatza emateko; alegia, delako terminoa jasotzen, aipatzen edo definitzen duten legeen artikuluetara bidaltzen da irakurlea, nahi izanez gero, argibide zehatzagoak eskuratzeko. Horretarako, “Oh.” laburdura erabili da. *Arrazoitze* terminoaren lehen definizioaren ostean, esaterako, honako xehetasun hauek ematen dira: “Oh. 6/1985 Lege Organikoa, 247. art. eta 248. art.; Europar Batasuneko Funtzionamendu Hitzarmena, 296. art.”. Erabaki horretan ere, *Diccionario del español jurídico (DEJ)*¹¹ hartu dugu eredutzat; izan ere, sinetsita gaude erreferentzia osagarri horiek guztiz aberasgarri eta lagungarriak izango direla irakurlearentzat.

Lexikografian, ezinbestean, ohikoa izaten da hitz batzuk sinonimiaren bidez “definitzea”. Eta hiztegi juridiko honetan ere, sinonimo ugari ageri dira. Arlo espezializatuetan oro har, eta arlo juridikoan zer esanik ez, eguneroko gertaera ezin saihestuzkoa da aldakortasuna, eta aldakortasun horren isla da gure hiztegian sinonimo ugari jaso izana. Horretarako, “Sin.” laburdura erabili dugu sarreraren amaieran; *arrazoitze* terminoaren kasuan: “Sin. *motibazio*”.

¹¹ <https://dej.rae.es/>

Bestalde, termino batzuetan “Ik.” laburdura gehitu da sarreraren amaieran, modu laburrean kontzeptuaren inguruko argibide gehiago emateko edota definigaiarekin (*definiendum* delakoarekin) lotura duten beste termino batzuk ikusteko. *Arrazoitze* terminoaren kasuan, adibidez: “Ik. *administrazio-egintza*”.

Batzuetan, hala ere, sinonimoen berri emateko erabili da “Ik.” laburdura: lehenesten den terminoaren ostean jaso dira definizioa eta sinonimoa (ikus *arrazoitze* sarrera); beste hitz sinonimoaren sarreran, berriz, termino lehenetsira bidaltzen da irakurlea, definiziorik eman gabe (Ikus *motibazio* sarrera). *Arrazoitze* eta *motibazio* terminoen kasuan, honela:

arrazoitze [*motivación*] ♦ *Zuz. T.* [DEFINIZIOA: “♦ Ebazpen jakin bat oinarritzen duten arrazoiaren adierazpena(...)”] Sin. *motibazio*; ♦ *Admin. Zuz.* [DEFINIZIOA: “”Administrazio-egintza funtsatzen duten egitateen eta zuzenbideko oinarrien adierazpena. (...)”] Sin. *motibazio*

motibazio [*motivación*] ♦ *Zuz. T., Admin. Zuz.* Ik. *arrazoitze*.

Sarreraren mikroegiturari buruzko atal hau amaitzeko, argitu dezagun zer definizio-eredu hautatu dugun hiztegi honetarako. Jakina denez, definizioa funtsezko osagaia da espezialitate-hiztegi bateko sarreretan. Bada, gorago azaldu dugunez eta aurreko adibideetatik ondoriozta daitekeenez, oro har, definizio laburraren bidetik jo izan dugu hiztegian zehar, lexikografiako ereduak geure eginez eta definizio entziklopedikoak bazterturik. Gehienbat, hiztegiaren erabiltzaile ez-aditua izan dugu gogoan: izan ere, helburua ez da kontzeptuaren inguruko xehetasun guztiak jasotzea, baizik eta azken batean irakurlea kontzeptu juridiko bakoitzaren muinaz jabetzea.

6. Ohiko definizioen egitura: definizio-eredu soilen aldeko apustua

Hiztegi-sarrerek aurreko atalean zehaztutako irizpideak zainduko badituzte, terminoen definizioek laburrak eta zehatzak izan behar dute ezinbestean. Edonola ere, gogora ekarri behar da hiztegi juridiko honen helburua ez dela kontzeptu juridikoen adieran eta ñabarduretan sakontzea. Izan ere, definizioen helburua beste bat da; alegia, euskara/gaztelania interfazeaz harantzago joan, eta erabiltzaileei euskarazko diskurtso juridikoaz jabetzen lagunduko dien balio erantsiko baliabide bat eskaintzea.

Jakina denez, legelari euskaldun askok gaztelaniazko diskurtsoa dute nagusiki gogoan euskarak bizi duen egoera diglosikoaren eraginez. Haientzat oso baliagarria izango da terminoen definizio erraz eta ulergarriak izatea eskura. Esan gabe doa biziki eskertuko dituztela definizio hauek (xumeak izan arren) ikasketak euskaraz egitea aukeratu duten ikasleek.

Horrenbestez, gure hiztegi juridikoan jaso diren definizioek ez dituzte gehienetan jaso termino juridikoak bere barruan gordetzen dituen adiera-elementu guztiak. Adituentzat jakingarri diren ñabardurak ere albo batera utzi ditugu ezinbestean. Eta, noski, termino batek teoria juridikoaren arabera definizio desberdinak izan baditu, aukera bat egin da ahalik eta definizio orokor eta neutroena eskaintzeko. Betiere, gogoan izan da zer den ikasleek termino horri buruz jakin behar dutena, lehen aldiz edo, kontzeptu juridiko horretara hurbiltzen direnean.

Mikroegituraren ikuspegitik ere ahalik eta definizio soil eta laburrenak hautatu dira. Oro har, bi edo hiru osagai izaten dituzte (ik. Arrieta eta beste, 2003): a) deskriptorea (zein kontzeptu-kategoria definitzen ari garen adierazten du; gehienetan hiperonimo baten bidez adierazia); b) ezaugarri espezifikokoak (definitzen ari garen kontzeptua kategoria bereko beste kontzeptuetatik bereizteko balio dutenak —ik. Seco, 1987—); eta c) iruzkinak (oharrak edo ñabardurak eransteko balio dutenak).

Kontuak kontu, oinarritzko definizioari informazio osagarria gehitu behar bazaio, aparteko esaldi batean gehitu dira halako argibide, azalpen edo deskripzio osagarriak. Hona hemen hiru osagaiak dituzten definizio batzuk:

EGILEKIDETZA [COAUTORÍA] ♦ *Zig. Zuz.* Delituan parte hartzeko modu bat [deskriptorea], delituaren egile nagusi bat baino gehiago eta erantzukizun-maila berean aritzean datzana [ezaugarriak]. Egilekide guztiek zigor bera jasotzen dute [iruzkina]. (...)

AKUSATZAILE PRIVATU [ACUSADORA PRIVADA, ACUSADOR PRIVADO] ♦ *Zuz. Proz.* Zigor-prozesuko alderdi akusatzailea [deskriptorea], delitu pribatu batek ofenditua izateagatik kereila aurkezten duena [ezaugarria]. Delitu pribatuak jazartzeko prozesuetan bera da zigor-akzioaren titular bakarra eta, horregatik, akusatzaile bakarra [iruzkina].

Definizio batzuetan lehen bi elementuak baino ez dira erabili, eta definizio konplexuetan ezaugarri bat baino gehiago eta iruzkin bat baino gehiago. Alabaina, gure hiztegi juridikoak dituen ezaugarriak eta helburuak gogoan izanda, ahal den neurrian, definizio-eredu laburrak eta soilak lehenetsi ditugu.

Hizkuntzaren aldetik ere egitura soil, argi eta ulergarriak erabiltzen ahalegindu gara (ik. Arrieta eta beste, 2003: 172-187)¹². Hurrengo atalean azalduko ditugu definizioak osatzeko erabili diren estilo-irizpide zehatzak.

7. Definizio argi eta ulergarri(ago)ak idazteko estilo-irizpide batzuk

Oro har, hiztegiaren helburuaren eta hartzaile motaren arabera egokitu ditugu definizioen konplexutasuna, teknizismo-maila eta idazkera.

Hitz edo termino ezagunak erabili ditugu definizioetan. Edozein kasutan, definizio batean termino teknikoak erabiltzen badira, terminook beste nonbait egon behar dute definituta (alegia, hiztegian bertan behar dute definizioa).

Definizio gehienetan, hiperonimo bat —ahalik eta zehatzena— erabili da deskriptore gisa (definizio formal edo hiperonimikoa —ik. Bosque, 1982—):

AKUSATZAILE [ACUSADOR, ACUSADORA] ♦ Zuz. Proz. Zigor-prozesuko posizio aktiboko *alderdia* [hiperonimoa], zigor-akzioa egikaritzuz akusazioa gauzatzen duena. (...)

KARRERA JUDIZIAL [CARRERA JUDICIAL] ♦ Zuz. Proz. Magistratura osatzen duen *personal juridikzionala* [hiperonimoa]. (...)

KATASTRO [CATASTRO] ♦ Zuz. Zib. Hazienda Ministerioan kokaturiko ondasun higiezinaren *erregistro administratiboa* [hiperonimoa].

Definizioetan isilpean utzi dugu predikatua (*da, deritzo, deitzen zaio...*), hiztegegintzan jakintzat ematen baita “X (definigai) Y (definizio) da” predikazioa (Rey-Debove, 1971):

¹² URLa_:

http://www.ivap.euskadi.eus/contenidos/informacion/euskalduntze_argit/eu_def/adjuntos/Galdezka1.pdf

⇓ LURRALDE HISTORIKO [TERRITORIO HISTÓRICO] ♦ Konst. Zuz. Foru-lurraldeek Euskal Autonomia Erkidegoan *duten izena*.

LURRALDE HISTORIKO [TERRITORIO HISTÓRICO] ♦ Konst. Zuz. Euskal Autonomia Erkidegoko foru-lurraldea.

⇓ EGILESLE [OTORGANTE] ♦ Zuz. Zib. Negozio juridiko bati bere adostasuna ematen dion pertsona *da*. [...]

EGILESLE [OTORGANTE] ♦ Zuz. Zib. Negozio juridiko bati bere adostasuna ematen dion pertsona *da*. [...]

Oro har, saihestu egin ditugu honelako hitz eta egiturak deskriptore gisa (Arrieta, 2003):
(...izendatzeko erabiltzen den) *izena*, *-t(z)earen egintza*, *-t(z)eko egintza*, (...) *zera*, (...) *duena*...

⇓ ABOKAZIO [AVOCACIÓN] ♦ Admin. Zuz. Administrazio-organo batek hierarkikoki beheago dagoen beste organo batek daukan gai bat ezagutu edo ebazteko eskumena *bereganatzearen egintza / bereganatzeko egintza*. (...)

ABOKAZIO [AVOCACIÓN] ♦ Admin. Zuz. Administrazio-organo batek hierarkikoki beheago dagoen beste organo batek daukan gai bat ezagutu edo ebazteko eskumena *bereganatzea*. (...)

Definizio laburretan arazorik gabe eman da deskriptorea (ezaugarria adierazten duen) erlatibozko egituraren ostean (egitura sintetikoa: ezaugarriak + deskriptorea):

KARRERA JUDIZIAL [CARRERA JUDICIAL] ♦ Zuz. Proz. Magistratura osatzen duen *personal juridikzionala* [hiperonimoa]. (...)

ALDABERRITZE-GREBA [HUELGA NOVATORIA] ♦ Lan. Zuz. Hitzarmen kolektiboaren edukia aldatzeko egiten den *greba* [deskriptorea].

Hala ere, definizio luzeetan deskriptorea aurreratu dugu modu sistematikoan:

⇓ AKUSAZIO-IDAZKI [ESCRITO DE ACUSACIÓN] ♦ Zuz. Proz. Ahozko epaietaren hasiera eskatzeko eta pertsona akusatua, delituzko egitateak, haien kalifikazio juridikoa, egiletasun-maila eta inguruabar aringarri edo astungarriak eta ezarri beharreko zigorra zehazteko,

prozedura laburtuan Ministerio Fiskalak eta gainerako alderdi akusatzaileek aurkeztutako *dokumentua*. (...)

AKUSAZIO-IDAIZKI [ESCRITO DE ACUSACIÓN] ♦ Zuz. Proz. Prozedura laburtuan Ministerio Fiskalak eta gainerako alderdi akusatzaileek aurkeztutako *dokumentua; haren helburua da* ahozko epaiketaren hasiera eskatzea eta pertsona akusatua, delituzko egitateak, haien kalifikazio juridikoa, egiletasun-maila eta inguruabar aringarri edo astungarriak eta ezarri beharreko zigorra zehaztea. (...)

Idazle onenen tradizioari jarraituz (Alberdi, 2007 eta 2008), “deskriptorea + egitura aposatua (erlatibozko -na/partizipioa)” erabili da askotan atzerakarga saihestearren (egitura analitikoa: deskriptorea + ezaugarriak):

AKUSATZAILE [ACUSADOR, ACUSADORA] ♦ Zuz. Proz. Zigor-prozesuko posizio aktiboko alderdia [deskriptorea], zigor-akzioa egikaritzuz akusazioa gauzatzen duena. (...)

FUNDAZIO [FUNDACIÓN] ♦ Zuz. Zib. Irabazi asmorik gabeko nortasun juridikoa duen interes publikoko erakundea [deskriptorea], interes orokorreko helburua lortzeko sortua izan dena. (...)

HITZARMEN [ACUERDO, CONVENIO] ♦ Konst. Zuz. 1. Akordio, itun edo kontratua [deskriptorea], kontsentsu bidez sortua eta ondorio juridikoak dituen.

INSTRUKZIO-EPAILE [JUEZ DE INSTRUCCIÓN] ♦ Zuz. Proz. Instrukzio-epaitegiko titularra [deskriptorea], atariko prozedura edo instrukzio-fasearen ardura duena.

KARTZELA-ZIGOR IRAUNKOR BERRIKUSGARRI [PENA DE PRISIÓN PERMANENTE REVISABLE] ♦ Zig. Zuz. Delitu larri batzuentzat aurreikusten den zigor askatasun-gabetzailea [deskriptorea], esekipen-baldintza eta -epe bereziak dituen. (...)

AUZITEGI [TRIBUNAL] ♦ Zuz. Proz., Admin. Zuz., Konst. Zuz., Zuz. T. Kide anitzeko jurisdikzio-organoa [deskriptorea], hiru magistratuz edo gehiagoz osatua.

ELKARGO OFIZIAL [COLEGIO OFICIAL] ♦ Admin. Zuz. 1. Titulazio bereko pertsonak osatzen duten zuzenbide publikoko erakundea [deskriptorea], titulazio horri lotutako lanbidea arautu, kideen interesak babestu eta ordezkatzeko xedez eratua.

Definizio terminografikoak idazteko irizpideen arabera (ISO 704, 18. or.), definizioaren muina —kontzeptu bat gainerakoetatik bereizten duena— esaldi bakar batean ematea komeni da (puntutik puntura doana da esaldia eta sarritan perpaus batzuez osatuta egoten da). Baina horrek ez du esana nahi ezaugarri guzti-guztiak esaldi bakar batean eman behar direnik. Aitzitik, kasu horietan gomendatzen da informazio osagarria (argibide, azalpen edo deskripzio osagarria) aparteko esaldien bidez ematea eta, beraz, -na aposatuen erabilera gehiegizkoa saihestea.

↓ HORNIKUNTZA-ERREGIMENENKO EPAILE [JUEZ DE RÉGIMEN DE PROVISIÓN] ♦ Zuz. Proz.
Lehiaketetan hutsik geratu den epaile-hutsunea behin-behinean betetzen duen epailea [definizioaren muina], *prozedura arrunten bidez hutsunea bete arte jardunean ari dena* [argibide osagarria].

HORNIKUNTZA-ERREGIMENENKO EPAILE [JUEZ DE RÉGIMEN DE PROVISIÓN] ♦ Zuz. Proz.
Lehiaketetan hutsik geratu den epaile-hutsunea behin-behinean betetzen duen epailea [definizioaren muina]. *Prozedura arrunten bidez hutsunea bete arte aritzen da jardunean* [argibide osagarria].

Bestalde, baditugu baliabide estrategiko batzuk definizioetako erlatibo aposatuen erabilera gehiegizkoa murrizteko: besteak beste, alborakuntza (puntuazioa) eta juntadura. Hona hemen adibide batzuk:

IKUSKARITZA [AUDITORÍA] ♦ Merkat. Zuz. Dokumentu kontableen (eta horien euskarri diren beste dokumentu batzuen) berrikuste- eta egiaztatze-lana. *Ikuskaritzak hirugarren pertsonen aurrean eragina duen txostena igortzea du helburu* [alborakuntza]. Txosten hori oinarri hartzen da enpresaren informazio ekonomiko finantzarioaren fidagarritasunari buruzko irizpenak egiteko. (...)

IMMUNITATE [INMUNIDAD] ♦ Konst. Zuz. (...) 2. [immunitate diplomatiko] Atzerriko diplomazialariei eta haien senitartekoei, bai eta batzuetan enbaxadetako langileei aplikatzen zaien pribilegioa; *harrera-lurraldearen jurisdikziotik at daudela esan nahi du* [alborakuntza]. (...)

KASAZIO-ERREKURTSO [RECURSO DE CASACIÓN] ♦ Zuz. Proz., Admin. Zuz. Aparteko errekurtsu debolutiboa. *Legeak aurreikusitako zio jaki nbatzuetan oinarrিতa soilik jar daiteke* [alborakuntza]. Ezagutzeko eskumena Auzitegi Gorenari edo Justizia Auzitegi Nagusiari dagokio, esleitutako arauaren izaeraren arabera. (...)

JAIOTZA-INSKRIPZIO [INSCRIPCIÓN DE NACIMIENTO] ♦ Zuz. Zib. Erregistro Zibilean egiten den idazpena, umea noiz (zein egunetan eta ordutan) eta non jaio den adierazten duena, *eta bere sexua eta seme-alabatasuna zein den ezagutzera ematen duena* [juntadura].

↓ AKUSAZIO-IDAZKI [ESCRITO DE ACUSACIÓN] ♦ Zuz. Proz. Ahozko epaiketaren hasiera eskatzeko eta pertsona akusatua, delituzko egitateak, haien kalifikazio juridikoa, egiletasun-maila eta inguruabar aringarri edo astungarriak eta ezarri beharreko zigorra zehazteko, prozedura laburtuan Ministerio Fiskalak eta gainerako alderdi akusatzaileek aurkeztutako *dokumentua*. (...)

AKUSAZIO-IDAZKI [ESCRITO DE ACUSACIÓN] ♦ Zuz. Proz. Prozedura laburtuan Ministerio Fiskalak eta gainerako alderdi akusatzaileek aurkeztutako *dokumentua*; *haren helburua da* ahozko epaiketaren hasiera eskatzea eta pertsona akusatua, delituzko egitateak, haien kalifikazio juridikoa, egiletasun-maila eta inguruabar aringarri edo astungarriak eta ezarri beharreko zigorra zehaztea. (...)

Definizio funtzionalen kasuan ere joskera bat baino gehiago erabili ditugu:

- a) (...) *-t(z)eko* + Y (deskriptorea)
- b) (...) *-t(z)ea helburu duen* Y (deskriptorea)
- c) Y (deskriptorea), (...) *-t(z)ea helburu duena*
- d) Y (deskriptorea), (...) *-t(z)eko helburua duena*
- e) (...) *-t(z)eko helburua duen* Y (deskriptorea)

ABSTENTZIOA [ABSTENCIÓN] ♦ Zuz. Proz. Epaille eta magistratuen inpartzialtasuna *bermatzeko bitartekoa*. Horren bidez, legeak aurreikusitako arrazoiak daudenean, epaileak zein magistratuak auzi bat ezagutzeari uzteko eskaera egiten du.

HERRI-SEGURTASUN [SEGURIDAD CIUDADANA, SEGURIDAD PÚBLICA] ♦ Admin. Zuz. Pertsonak eta euren ondasunak babestea, eta herritarren lasaitasuna *bermatzea helburu duen jarduera multzoa*. (...)

JARAUNSPENAREN ZAPUZTE [REPUDIACIÓN] ♦ Zuz. Zib. Jaraunspena errefusatzeko deituaren *aldebakarreko egintza*, deituak jaraunspena ez duela onartzen espresuki *adieraztea helburu duena*. (...)

ERREKERIMENDU [REQUERIMIENTO] ♦ Zuz. Proz., Admin. Zuz. Jakinarazpen prozesalaren *jarduketa*, prozesuaren alde bati edo hirugarren bati zuzendua eta ez-egiteren bat edo jokabideren bat egin dezala *agintzeko helburua duena*.

FIDANTZA [FIANZA] ♦ Zuz. Zib. Zordunak hartzekodunari zorra ordainduko diola *ziurtatzeko helburua duen berme pertsonala*. Fidantzaren bidez, fidatzaileak, hartzekodunaren baimenarekin, bere gain hartzen du zorraren ordainketa zordunak ordaintzen ez duen kasuetan.

Oro har, deskriptorea asko atzeratzen duten egiturak saihesten ahalegindu gara; honelakoak, esate baterako:

↓ “(sintagma luzea) -t(z)ea helburu duen + deskriptorea”

↓ “(...) -t(z)ea, (...) -t(z)ea eta (...) -t(z)ea... helburu duen + deskriptorea”

↓ IRUZUR FISKAL [FRAUDE FISCAL] ♦ Fin. Zuz. Zergapekoak burutako operazio erreala, nolabaiteko amarrubidea adierazten duena, *bilatzen diren azken efektuak lortzeko, ohikotasunean erabiliko ez liratekeen negozio eta arauak aplikatzea helburu duena*. Eta hori guztia, zerga-zorra txikitzeko asmoz. (...)

IRUZUR FISKAL [FRAUDE FISCAL] ♦ Fin. Zuz. Zergapekoak burutako operazio erreala, nolabaiteko amarrubidea adierazten duena. *Haren helburua da, bilatzen diren azken efektuak lortzeko, ohikotasunean erabiliko ez liratekeen negozio eta arauak aplikatzea*. Eta hori guztia, zerga-zorra txikitzeko asmoz. (...)

Erlatibozko perpausaren barruko osagaiak handik kanpora ateratzea saihestu dugu:

↓ EGINBEHAR PUBLIKO [DEBER PÚBLICO] ♦ Admin. Zuz. 1. Arduradun publikoek zein bestelako pertsonak bete beharrekoa, dela akzioz dela omisioz, legediak ezarrita zein agintariak hala aginduta, *interes publikoa babestearren*. (...)

EGINBEHAR PUBLIKO [DEBER PÚBLICO] ♦ Admin. Zuz. 1. *Interes publikoa babestearren*, legeak ezarrita zein agintariak hala aginduta, arduradun publikoek zein bestelako pertsonak bete beharrekoa, dela akzioz dela omisioz. (...)

↓ EGINBEHAR PUBLIKO [DEBER PÚBLICO] ♦ Admin. Zuz. (...) 2. Zenbait pertsonari ezartzen zaizkien betebeharrak *interes publikorako onuragarriak izateagatik*. (...)

EGINBEHAR PUBLIKO [DEBER PÚBLICO] ♦ Admin. Zuz. (...) 2. *Interes publikorako onuragarriak izanik*, zenbait pertsonari ezartzen zaizkien betebeharrak. (...)

⇓ EGINBEHAR PUBLIKO [DEBER PÚBLICO] ♦ Admin. Zuz. (...) 3. Administrazioak egin beharreko ekintzak, *ordenamendu juridikoa betetzen dela bermatzearen*. (...)

EGINBEHAR PUBLIKO [DEBER PÚBLICO] ♦ Admin. Zuz. (...) 3. *Ordenamendu juridikoa betetzen dela bermatzearen* administrazioak egin beharreko ekintzak. (...)

⇓ IMMATRIKULAZIO [INMATRICULACIÓN] ♦ Zuz. Zib. Jabetza Erregistroan finka bat lehen aldiz sartzeko egin behar den eragiketa, *beharrezkoa den kalifikazio erregistrala gainditu ondoren* (...)

IMMATRIKULAZIO [INMATRICULACIÓN] ♦ Zuz. Zib. Jabetza Erregistroan finka bat lehen aldiz sartzeko egin behar den eragiketa, *beharrezkoa den kalifikazio erregistrala gainditu ondoren egiten dena*. (...)

Ez da komeni “erlatibo kateatuak” erabiltzea definizio batean, definizioa ulergaitz bihurtzen da eta:

⇓ MATXINSALTO. Jauzi egiteko moldatuta *dauden* hanka luze eta sendoak *dituzten* ortopteroen ordenako *intsektua* [deskriptorea].

MATXINSALTO. Ortopteroen ordenako *intsektua* [deskriptorea]; hanka luze eta sendoak ditu, jauzi egiteko moldatuak.

Ez da komeni definizio tautologikoak ematea, jakina. Alegia, definizioak ez dira osatu behar terminoa osatzen duten hitzak errepikatuz edo parafrasi lausoak —terminotik beretik ondoriozta daitekeen informazioa ezertan osatzen ez dutenak— erantsiz.

⇓ AKUSAZIO-IDAIZKI. Akusazioak jasotzen duen idazkia

AKUSAZIO-IDAIZKI [ESCRITO DE ACUSACIÓN] ♦ Zuz. Proz. Prozedura laburtuan Ministerio Fiskalak eta gainerako alderdi akusatzaileek aurkeztutako *dokumentua*; haren helburua da ahozko epaiketaren hasiera eskatzea eta pertsona akusatua, delituzko egitateak, haien kalifikazio juridikoa, egiletasun-maila eta inguruabar aringarri edo astungarriak eta ezarri beharreko zigorra zehaztea. (...)

Horrek ez du esan nahi terminoaren osagaiak definizioan ezin ager daitezkeenik: terminoaren muina batzuetan terminoaren generikoa izaten da, eta, deskriptorea denez, definizioaren oinarri izaten da.

AUZITEGI GORENA. Erakunde judizialaren gailurrean dagoen eta Estatu osoan jurisdikzioa duen *auzitegia*. [Euskalterm: Zuzenbidea / Zuzenbide Prozesala]

KASAZIO-ERREKURTSO [RECURSO DE CASACIÓN] ♦ Zuz. Proz., Admin. Zuz. Aparteko *errekurtsio* debolutiboa. Legeak aurreikusitako zio jakin batzuetan oinarrituta soilik jar daiteke. Ezagutzeko eskumena Auzitegi Gorenari edo Justizia Auzitegi Nagusiari dagokio, esleitutako arauaren izaeraren arabera.

Ez da komeni definizio zirkularrak ematea:

- a. ↓ ERREKUSAZIO. Errekusatzea
- b. ↓ ERREKUSATU. Errekusazioa eskatzeko eskubidea

ERREKUSATZE [RECUSACIÓN] ♦ Admin. Zuz. Administrazio-prozedura baten izapidetzearen edozein unetan interesdunek langile edo agintari publiko baten arbuiatzea edo errefusatzea galdatzeko duten eskubidea, gai bat ebatz ez dezan edo arazo batean esku har ez dezan bere inpartzialtasuna zalantzan jar dezaketen arrazoiak daudelako tartean (40/2015 Legeko 23.2. artikuluan zerrendatzen direnak, alegia). Oh. 40/2015 Legea, 24. art. Ik. abstentzio.

ERREKUSATU [RECUSAR] ♦ Zuz. Proz. Ik. *errefusatu*.

ERREFUSATU [RECUSAR] ♦ Zuz. Proz. Modu legitimoan epaimahai, epaile, peritu edo dena delako batek prozedura edo epaiketa batean jardutea galarazi. Sin. *errekusatu*.

Definigaiaren eta deskriptorearen gramatika-baliokidetasunaren baldintza zaindu behar da definizioan (esaterako, kategoriari eta numeroari dagokienez):

↓ INTERPRETATU [INTERPRETAR] ♦ Zuz. T. 1. Zerbaiti esanahi zehatza *atxiki edo eranstea*.
2. Zerbaiten esanahia *argitzea edo azaltzea*, bereziki argi ez dagoen testua. Legeak, adibidez.

INTERPRETATU [INTERPRETAR] ♦ Zuz. T. 1. Zerbaiti esanahi zehatza *atxiki edo erantsi*. 2. Zerbaiten esanahia *argitu edo azaldu*, bereziki argi ez dagoen testua. Legeak, adibidez.

Definizioetan, beharra eta abar adierazteko egokiagoa da, oro har, orainaldi burutugabea erabiltzea geroaldia baino:

KUDEAKETA PROZESAL ETA ADMINISTRATIBOKO KIDEGO [CUERPO DE GESTIÓN PROCESAL Y ADMINISTRATIVA] ♦ Zuz. Proz. Justizia-administrazioaren zerbitzura dauden funtzionarioen kidego orokorra: goi-mailako titulua *eskatzen da* (? *eskatuko da*) kidegoan sartzeko eta goi-mailako jarduera prozesalean laguntzen dute.

8. Azken oharra hiztegi juridikoaren garrantziaz eta zabalkundeaz

Espainiako Hizkera Juridikoa Modernizatzeko Batzordeak bere txosten orokorrean dioenez¹³, zuzenbide-estatu batean beharrezkoa da ekintza eta arau juridikoak ulergarriak izatea herritarrentzat, eta, beraz, zuzenbideko eragile juridikoek erantzukizun berezia dute arlo horretan; eta are erantzukizun handiagoa dute erakundeek herritarren ulertzeko eskubidea bermatzeko orduan.

UPV/EHUK, hiztegi hau argitaratuta, pauso garrantzitsu bat ematen du herritarren ulertzeko eskubidea bermatzeko ahaleginean: izan ere, hiztegi hau guztiz lagungarria izan daiteke zuzenbideko ikasle eta profesional euskaldunen komunikazio-prestakuntzan aurrera egiteko.

Orain UPV/EHUK euskarazko hiztegi juridiko hau liburu-formatuan eta euskarri digitalean argitaratu du; baina onuragarria litzateke unibertsitateak —Euskara Institutuaren laguntzaz, agian— gizarte osoarentzat etorkizun hurbilean hiztegia Internet bidez zabalduko balu, RAEk *Diccionario del español jurídico* hiztegiarekin egin duen moduan. Hala izango ahal da!

Aipamen bibliografikoak

Alberdi, X. (2007): “Zenbait gogoeta euskal definizioen idazkeraz” in Iñaki Ugarteburu, Pello Salaburu: *Espezialitateko Hizkerak eta Terminologia II. Euskara estandarra eta espezialitate hizkerak*, Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua: Bilbo, 145-170.

¹³ <http://www.upv.es/entidades/VRSC/info/U0711342.pdf>

- Alberdi, X. (2008): “Definizioen idazkera: adierazmoldeak eta diskurtso-estrategiak azalpeneko testu espezializatueta” in Iñaki Ugarteburu, Pello Salaburu: *Espezialitateko Hizkerak eta Terminologia III*, Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua, 79-93.
- Alberdi, X.; Azkarate, M. eta beste (2019): *UPV/EHUko Zuzenbide Fakultatearen hiztegi juridikoa*. Bilbo: UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua.
- Arco Torres, M.A.; Villa-Real, R. (2006): *Diccionario de términos jurídicos*. Granada: Comares.
- Arrieta, A. eta beste (2003): *GALDEZKA. Euskarazko zalantzei erantzunez*. Donostia: IVAP:
http://www.ivap.euskadi.eus/contenidos/informacion/euskalduntze_argit/eu_def/adju ntos/Galdezka1.pdf
- Bosque, I. (1982): “Sobre la teoría de la definición lexicográfica”, *VERBA*, 9: 105-123.
- Cabré, M.T. (1993): *La terminología: teoría, metodología, aplicaciones*. Barcelona: Antártida/Empúries.
- Estopá, R. (2001) “Elementos lingüísticos de las unidades terminológicas para su extracción automática”. In Ma T. Cabré & J. Feliu (ed.) *La terminología científico-técnica*. Barcelona: Institut Universitari de Lingüística Aplicada: 67-80.
- Fernández Martínez, J. M. (2012): *Diccionario jurídico*. Pamplona: Aranzadi.
- Fonseca Herrero, J.I.; Iglesias Sánchez, M.J. (2010): *Diccionario jurídico*. Madrid: Colex.
- Fundación Tomás Moro (2004): *Diccionario jurídico Espasa*. Madrid: Espasa.
- Gómez de Liaño, F. (1979): *Diccionario jurídico*. Oviedo: Forum.
- Guerrero Ramos, G.; Pérez Lagos, M.F. (2017): “La definición en el diccionario desde la teoría lingüística”. *Pragmalingüística*, 25, 286-310.
- Lorente, M. (2001): “Teoría e innovación en terminografía: la definición terminográfica”, Cabré, M. T. y Feliu, J. (eds.): *La terminología científico-técnica: Reco-nocimiento, análisis y extracción de información formal y semántica* (DGES PB96-0293), Barcelona: Institut Universitari de Lingüística Aplicada / Universitat Pompeu Fabra, 81-112.

- Ortiz Sánchez, M.; Pérez Pino, V. (2012): *Diccionario jurídico básico*. Tecnos.
- Rey-Debove, J. (1971): *Étude linguistique et sémiotique des dictionnaires français contemporains*. The Hague-Paris: Mouton.
- Seco, M. (1987): “Problemas formales de la definición lexicográfica”, *Estudios ofrecidos a Emilio Alarcos Llorach* (con motivo de sus XXV años de docencia en la Universidad de Oviedo), II., Oviedo: Universidad de Oviedo, 217-239.
- Villa-Real, R.; del Arco Torres, M.A. (2014): *Diccionario jurídico elemental*. Granada: Comares, 7. argitaraldia
- Wüster, E. (1998), *Introducción a la Teoría general terminológica y a la lexicografía terminológica*. Barcelona: IULA (1979koa da jatorrizkoa).

Interneteko erreferentziak

Altzuguren, Ainhoa-en “Hizkera juridiko argia” web-orria:

<https://ainhoaaltzuguren.wixsite.com/hizkerajuridikoargia>

Cercaterm: <https://www.termcat.cat/ca/cercaterm>

Diccionario del español jurídico: <https://dej.rae.es/>

Euskalterm: <http://www.euskadi.net/euskalterm>

Herritarrek Justiziaren aurrean dituzten eskubideen Gutuna (2002):

https://www.justizia.eus/servlet/Satellite?blobcol=urldata&blobheader=application%2Fpdf&blobheadername1=Content-Disposition&blobheadervalue1=filename%3Ddocumentos-303-carta-derechos-EUSK_0.pdf&blobkey=id&blobtable=MungoBlobs&blobwhere=1290510252341&ssbinary=true&miVar=1524343183302

Hizkera Juridikoa Modernizatzeko Batzordearen txostena (Comisión para la Modernización del Lenguaje Jurídico): <http://www.upv.es/entidades/VRSC/info/U0711342.pdf>

Terminologia Batzordeak onartutako hiztegiak: <http://www.euskadi.eus/hiztegiak-banku-terminologikoak-eta-entziklopediak/web01-a2eutres/eu/#9588>

UPV/EHUko “Legeak/Leyes” bilduma: <https://www.ehu.es/es/web/euskara/legeak-leyes-bilduma>

UPV/EHUko “Terminologia Sareak Ehunduz (TSE)” programa:

<https://www.ehu.es/eu/web/euskara/terminologia-sareak-ehunduz>

Zuzenbide Corpusa: <http://www.ehu.es/ehg/zuzenbidea/>

Lege-hizkera euskaraz: begiratu bat historian zeharrekoari eta zenbait gogoeta XXI. mendekoaz

Miren Azkarate

Alberto Lopez Basaguren

Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

Laburpena

Artikulu honetan, izenburuak berak dioen bezala, zenbait gogoeta plazaratu nahi ditugu euskarazko lege-hizkeraren gainean. Hasi XVII. mendeko testu xumeetatik eta gaurko corpus berezi, terminologia banku, ikasmaterial eta testu juridiko sorta mardulera iristeko egindako ibilbidearen nondik norakoez arituko gara. Garbizalekeria eta itzulpenaren morroi izatea ezaugarri (izan) dituen hizkera juridiko horren erronkak eta aurrera egiteko oinarriak zein diren zehazten saiatuko gara, gure inguruko hizkuntzalari eta idazleek idatziak lagun hartuta.

1. Sarrera: Lehen gogoeta

Gauza jakina da, euskara, mendeetan zehar, baztertua –etaauto-baztertua- izan dela botere publikoen eremutik, salbuespen oso urriak kenduta. Euskarak ez du aukerarik izan legeen munduan hazi izateko, bilakatzeko, egokitzeko, lege-hizkera bere egiteko. Ez bakarrik aukerarik eman ez digutelako; baita, euskaldunek eremu hori landu ez dugulako ere. Gogora dezagun Axularrek ‘iracurtçailleari’ esaten diona *Geroren hitzaurrean*.

Koldo Mitxelenak aspaldi ohartarazi zigun gisa, “mende luzeen lasaikeriak honenbeste eginkizun bizkarreratu digun garaian”¹ bizitzea egokitu zaigu. Hainbeste dira halako eginkizun bereziki zorrotza eskatzen duten alorrak; baina ez da dudarik zuzenbidekoak

egin behar diela aurre eremu horien guztien artean, mendeetako lasaikeriak bizkarreratu dizkigun eginkizunik zorrotzenetakoei, astunenetakoei eta zailenetakoei. Zuzenbidearen eremua eta, ezinbestez, berarekin lotuta dauden eremuak; besteak beste, eta guztien gainetik, administrazioarena, edo hobeto esanda, administrazioena. Bereziki zaila baita eremu horretan egokitu zaigun erronka, aldi berean elkartzen direlako lexikoari dagozkion erronkak eta *diskurtoaren* hizkerari, bere osotasunean, dagozkionak. Lege-hizkerarena ez da, bakarrik –eta, agian, oso inportantea izan arren–, eta ez bereziki, lexiko teknikoaren arazo hutsa.

Legelariok –eta hori nik diot, ALBk, MA ez da honetaz hobendun– harroegiak izan gara uste izan baitugu nahikoak ginela geu, zuzenbideak adituak izatearren, behar genuen lege-hizkera eta lexikoa sortzeko eta egokitzeko. Gauza jakina da euskaldun bakoitzaren buruan hizkuntzalari bat ezkututzen dela. Baina gaztelania hain hizkuntza finkatua eta estandarizatuta izanda ere, legelariok hizkuntza horretan sortu duten hizkera, hitzun arruntentzat sarritan higuinaria, ulergaitza eta okerra baldin bada, umilago izan behar genuen geuk geure hizkuntzaren ahultasunak ezagututa. Aspaldi ohartu gintuen Koldo Mitxelenak (1954):

“aberatsek galera handirik gabe egin dezaketena, ordea, ez zaie behartsuei egoki. Eta nor gu baino behartsuago gai honetan?” (*Euskal idazlan guztiak*, II, or. 39).

Mitxelenak hori esan zuen literaturako klasikoien irakurtzearen eta argitaratzearen beharraz ari zela. Baina bada uste duenik Mitxelenak ez lukeela berdin esango lege-hizkerak gurean pairatzen duen egoeraren aurrean?

2. Euskara Batuaren sorrera

Euskararen eta lege-hizkeraren beharrik handienetakoa aldaera estandarrik eza izan da. Berrogeita hamar urte besterik ez dira igaro Euskaltzaindiak euskara batuaren abiapuntutzat hartzen den Kongresua antolatu zuenetik. Izan ere, 1968an Mitxelenak Arantzazun aurkeztu zuen txostena, *Ortografia*, ondoren egindako lanaren bide-orritzat har daiteke: idazkera edo ortografia, antzinako euskal hitzen formak (ondare lexikoa), hitz berrien eraketa eta besteetatik hartuen forma (eratorpena eta hitz-elkarketa batetik

¹ Mitxelena, K. (1978): “Sarrera gisa” [1988 *Euskal idazlan guztiak*, V, Euskal Editoreen Elkarte, 26]

eta maileguak nola egokitu, bestetik), morfologia eta joskera. Hein handi batean, Arantzazun bertan egin zen *hautatzea*, hizkuntza bat estandarizatzeko lehen eginkizuna² (Haugen 1987): “Ez da nor Euskaltzaindia, oraingoz behintzat, oinarriztat zein euskalki hautatuko duen erabakitzeko. Badirudi, halarik ere, euskara idatziaren beharretarako egokiagoak direla, besteak beste (eta Bilbo euskaldun ez delarik), erdialdeko dialektoak bazterretakoak baino” (Mitxelena 1968)³. Erdi aldeko euskalkietara jotzea defendatu zuen Villasantek ere (1968).

Ondoko urteetan hasi zenbigarren eginkizuna, *kodetze* lanari dagokiona. Baturako hautatuko forma haiek hedatu ziren garai hartako eragileen artean, ebaluatu zen nolako harrera izan zuten 1970eko hamarkadako erabakiek. Hau da, kodetzearen ondoren *implementazioa* etorri zen, aldaera estandarra hedatu zen eta komunikazio formalaren esparrura eraman. Baina hizkuntza bateko aldaera estandarra eratzea amaierarik gabeko lana da; zentzurik estuenean: beti geratzen da *elaborazio* lana, hau da, aldaera estandarra eguneratzea, aberastea eta komunikazio-funtzio guztietarako baliagarri egitea (besteak beste, terminologia eguneratzeko lana edo modu bateko eta besteko estiloak garatzea).

Inguruko hizkuntzetan ere, estandarizazioa aspaldi amaitutzat ematen denetan, beti izaten dira terminologia beharrak, hiztegia eguneratu beharrak. Bestelako kezkarik ere ez da falta izaten, ordea: “Dena dela, hizkuntza guztiek egin behar dute egoera berrietara egokitzeko ahalegina. Hizkuntza txiki nahiz handi izan, denek egin behar zenbait aldakuntza biziko badira. Eta aldakuntzak beti ekarri ohi du egonezina, eztabaida eta zalantza. Hizkuntza handien jauregietan ere sarri ikusten dira horrelako egoerak. Baita frantsesaren eta gaztelaniaren jauregietan ere. Ingelesaren eragina gehiegizkoa dela, gazteriaren hizkera behar bezain jaso eta aberatsa ez dela, ortografian akats larregi egiten direla... horiexek dira, besteak beste, frantsesaren eta gaztelaniaren jauregietan azken boladan entzuten diren kezkak eta aldarriak” (Zuazo, 2000: 13). Hizkuntza gutxituetan askoz nabarmenagoa da behar hori: “Eta hizkuntza

² Ezagunak dira Haugenek (1987: 59)), hizkuntza-plangintzak ari dela, jasotzen dituen lau eginkizunak, Horietatik bi gizarteari dagozkio, eta beste biak hizkuntzaren barrukoak dira:

	Norm	Function
Society	(1) Selection	(3) Implementation
Language	(2) Codification	(4) Elaboration

³Euskara estandarera egokitu dugu aipamena. Bestalde, morfologian erdialdeko euskalkiak hautatu izan arren, lexikoan edo joskeran euskalki guztietako ekarriak integratu dira, neurri batean edo bestean.

handien jauregietan horrelako erabakiak hartzen badira⁴, akademiek eta gobernuek horrelako astinduak eragiten badituzte gizartean, zer ez ote da gertatuko hizkuntza txikien bordetan! Astinduak ez ezik, benetako lurrikarak, benetako iraultzak ere izaten dira hauetan” (Zuazo, 2000: 14).

Euskararen kasuan, *hautatze*, *kodetzeeta inplementazio* ahaleginak izandako harrerairaultzat har daitezke, nolako arrakasta izan duten kontuan hartuta: “Ikastola, gaueskola, Euskara Batua, euskaldun berriak, euskara alderdi erdaldunetara hedatu izana, eta euskaldunon arteko batasuna estutu izana dira (...) 60ko hamarkadan abian jarri zen Iraultzak ekarri zituen ondorio nagusiak” (Zuazo, 2000: 17). Iraultza horretaz gain, euskarak, *elaborazio* aldian, esparru bakoitzerako diskurtso mota egokia landu eta garatu beharra ere izan du, terminologia egokia adostu eta hedatu beharra. Edo, Xabier Lizardiren hitzak erabiliaz, larreko euskara “noranahiko” bihurtzeko gaitzea; eta, horretarako, hainbat jakintza-eremutarako prestatzeko, “jakite hegoek igoa” izan behar. Euskara noranahiko bihurtze eta jakite hegoek igotze horretan, Zuzenbidearen alorrerako ere prestatu behar izan da euskara.

Nolanahi ere, euskara batuaren sorrera 1968an izan zela esan arren, Arantzazu aurretik ere izan ziren saioak eta ekarpenak, hala nola ortografiari buruzko 1901eko eta 1902ko Hendaiako eta Hondarribiko biltzarrak⁵ edo 1964an Ipar eta Hegoaldeko hainbat idazlek ortografiaz edo morfologiaz adostutako neurriak (1964ko Baionako Biltzarraren erabakiak⁶).

3. Administrazio- eta zuzenbide-testuak 1937 arte

Euskararen batasunerako ahalegina Arantzazuko Kongresuaren aurretik hasi zen bezala, 1968a baino ondotxo lehenagokoak dira Zuzenbidearen edo Administrazioaren alorreko testuak ere (Elosegi, 2002). XVII. eta XVIII. mendeetakoak batik bat Iparraldeko testuak dira, baina baita Hegoaldekoak ere: administrazioen arteko gutun ofizialak, lehen udal ordenantza eta bestelako udal agiriak, epaiketa agiriak; zuzenbide pribatuan,

⁴1994ko Toubon legeaz ari da, kongresuetan, unibertsitatean, iragarki eta mezu publizitarioetan, eta baita erakunde, elkarte eta marka izenetan ere, frantsesa erabiltzea babestu eta bultzatu zuen legeaz. Kezka beretik sortu zen Fernando Lázaro Carreter akademikoaren *El dardo en la palabra* (1997, Galaxia Gutenberg-Círculo de Lectores) 1975etik aurrera idatzitako artikuluen bilduma.

⁵Zalbide, M. (2003): “Hendai-Hondarribietako biltzarrak: XX. Mendeko hizkuntza plangintzaren iturburu”, *Euskaltzaleen Biltzarraren Mendeurrena*. Bilbo: Sabino Arana Elkargoa, 1-134.

erlazio juridiko eta merkataritzakoetako euskarazko agiriak, eta abar. XIX. mendean ugaldu egiten dira Hegoaldeko euskarazko testuak (elkarteen araudiak, maizter-kontratuaren ordainketa agiriak...), eta 1850 ingurutik aurrera goi-mailako administrazioetako testuak ere aurki daitezke (Bizkaiko Batzar Nagusietako aktak, erdaraz idatzi eta euskarara itzuliak)⁷.

Mende horietako testu batzuk euskaraz sortuak dira; beste batzuk, itzulpenak. Iparraldekoetan “nabarmena da, itzuliak ez direnetan ere, frantsesezko hitz eta formula burokratikoak euskaraturik agertzen direla. Terminologia juridikoa, hein handian maileguzkoa da” (Elosegi, 2002: 197).XX. mendearen hasieran, 1917an eta 1918an, hurrenez hurren, Bizkaiko Aldundia zirkularrak bi hizkuntzetan zabaltzen hasi zen eta Gipuzkoako Komisio Probintziala, berriz, udaletara bidalitako zirkularrak bi hizkuntzetan bidaltzen.Horiek ere, itzulpenari zor zaizkion testuak dira. Beraz, benetako testu juridikotzat eman daitezkeenen artean, nabarmena da testu itzulien pisua.

XVII. mendetik aurrerako testu horiei dagokienez, bestalde, kontuan hartu behar da aldaera estandarrik gabeko garaiko ahaleginak direla; Haugenek (1987) aurreikusitako lau eginkizuneko lanari inork ekin aurrekoak. Ez da, beraz, harritzekoa Elosegik (2002: 214) esatea “gainerako euskal testuetan bezala, testu juridiko-administratiboetan ageri da batasun falta eta estandarrik eza”. Hala ere, “Lapurdiko udaletan, gutunerian, notario-eskrituretan, garatutako hizkeran, frantses administratiboaren eragin itzela zegoen, dudarik gabe, baina era berean, eredu nahiko bateratu bat bazegoen, bi mende luzetan erabili zena eta euskal hizkera juridiko-administratiboaren hasikintzat jo zitekeena” (Elosegi, 2002: 214). Hasikin horrek ez zuen izan aukerarik hazteko eta garatzeko. Berehala ikusiko dugun bezala,bestelako helburua zutenHegoaldeko euskarazko testuek. Eta Zuzenbideko hizkeraren ezaugarriek ere ez zion laguntzen mugaren bi aldeetarako balio zezakeen hizkera eta terminologiari.

Aldaera estandarra landu gabe, bat-batean ekin zitzaion 1936an *Euzkadi'ko Agintaritzaren Egunerokoa/ Diario Oficial del PaísVascobi* hizkuntzetan argitaratzeari, ordura arte inoiz argitaratutako testu juridikoen bildumarik garrantzitsuena. Baina testu

⁶Davant, J.L. (2005): “Baionako biltzarra (1964)”, *Nerekinyaionun. Txillardegiri omenaldia*. Iker-17. Bilbo: Euskaltzaindia,207-216.

⁷Gallastegiren (2005) lanean ikus daitezke horietako zenbait.

hauetan eta, oro har, XX. mendearen hasierakoetan, nabarmena ageri da hizkuntzaren funtzio sinbolikoa: “hainbat testu ez da egiten (aurreko garaietan gertatzen zen bezala) euskaldun jendeak hobeto uler dezan, hizkuntza agerrarazteagatik baizik” (Elosegi, 2002: 212).

Laburbilduz, aldi bakoitzeko testu-kopurua gorabehera, ezaugarri hauek dituzte XVII. mendean hasi eta 1937 arteko administrazio eta zuzenbide alorreko idatziek: itzuliak dira gehienak, ez jatorrizkoak (eta, berehala esan dezagun, ezaugarri berbera dute 1980tik aurrerakoek ere); funtzio desberdina dute Iparraldekoek eta Hegoaldekoek (XX. Mendekoek). Iparraldean komunikazio-funtzioa lehenesten da eta horrek dakar nabarmena izatea testu horietako lexiko eta esapideetan frantses administrazioko hizkeraren eragina. Hegoaldean, aldiz, batetik funtzio sinbolikoa zuen euskara erabiltzeak, komunikaziokoa baino areago; eta, bestetik, nabarmena zen Larramendiz geroztik indarra hartu zuen garbizaletasunaren eragina.

4. Larramendiren eta Hegoaldeko eredu garbizalearen eragina lexikoan eta (zuzenbideko) terminologian

Euskara Batuaren aurreko saiotzat hartu ditugu XVII. mendetik aurrera euskaraz idatzitako testu juridikoak. Hala da, ia XX. mendearen amaiera arte ez duelako izan euskarak aldaera estandarrik. Eta, hala ere, ezin esan daiteke aldaera estandar bati buruzko ikuspegirik (nolabaiteko ikuspegirik) ez zegoenik Larramendiren edo Aranaren eta bere jarraitzaileen artean (Azkarate 2015, Azkarate eta Lindemann 2018). XVIII. mendean, Larramendiren (1745) hiztegia, *Diccionario Trilingüe del Castellano, Bascuence y Latín*, hiztegi soil bat baino askoz gehiago izan zen. Inguruko hizkuntzak bezala, euskara ere kultura- hizkuntza izan zitekeela erakutsi nahi zuen Larramendik; horregatik ditu bi helburu nagusi bere hiztegiak. Batetik, “kanpoko” erdaldunei, arrotzei erakutsi euskara hizkuntza bizia eta jakintza-gaietarako egokia zela (Mitxelena, 1961), eta, bestetik, euskara eredu jaso eta garbiago bat eskaini nahi zien garai hartako predikariei. Bi helburu horiek kontuan hartuta, Mitxelenak (1984: 33) dio: “Larramendi izan da, lehenbiziko aldiz eta erabat, hizkuntza larrekua noranahiko bihurtu nahi izan duena”. Terminologia beharrekin topo egin zuen Larramendik ere jakintza-gaietako hitzak sartu nahi izan zituenean; sartu baino areago, asmatu, esan beharko genuke, *voces facultativas* deitzen dituenak. Behar zituen termino horiek euskaratik beretik sortzera jo zuen; latinetik edo grekotik mailegatu ordez, nahiago izan zuen euskarak

dituen baliabideetara jotzea. Ez da hau lekua Larramendiren sorkariak zehatz-mehatz aztertzeke, nahiz merezi lukeen norbaitek Larramendiren termino juridikoak biltzea. Hauexek jaso ditugu, guregana heldu ez direnen erakuskari: *iritarau* ‘política’, *bialkinde* ‘embajada’, *bialkin* ‘embajador’, *inolazkogo* ‘nulidad’, *bedoi* ‘prueba (con la quesejustificaalgo)’, *atzipe* ‘dolo, engaño’, *ekadoiko* ‘jurídico, judicial’, *araujarraide*, *araujakintza* ‘jurisprudencia’, *kotiza* ‘tributo’, *legaraude* ‘legalidad’, *legarauko* ‘legítimo’ edo *legoki* ‘legítima, parte de la herencia’. Asko dira ordain bateko baino gehiagoko sarrerak ere: ‘ministro’ *ekidari*, *ministro*, ‘regente’ *erregentea*, *erondaria*, *gobernutaria*, *bazkazalea*, ‘aduaná’ *aduaná*, *peajelekua*, *kostamaga*, ‘pena, castigo’ *pena*, *minaria*, *gaitzondorea*. Larramendik sorturiko hitzetako batzuk, osterá, guztiz onartuak daude gaurko hizkera juridikoan: *besterendu*⁸ ‘enajenar’, *ordezte* ‘subrogación’, *urube* (orube) ‘solar’, *gaieztua* (*zegaitua*) ‘inhabilitado’ guztiz forma horretan izan ez arren, *salaketa* ‘acusación’...

Larramendiren hiztegiko proposamenek eman zuten bide, adibidez, 1820. urtean *Jaquin-bide Iritarautia* argitaratzeko⁹. Eta Larramendiren hiztegiko terminoak ageri dira *Lore-jokoetanere*: *ekauta* ‘diputación, comisión’, *goarpelari* ‘secretario’, *neurkida* ‘regla, ordenanza’, *otsaunditu* (*hotsanditu*) ‘solemnizar’ edo *salkindari* ‘traidor’, gutxi batzuk baino ez ekartzearren hona¹⁰.

XIX. mendearen amaieran, Arana Goirik, garai hartan beste hizkuntza askok eginiko bidetik, jatorri arrotzeko hitz guztiak baztertu eta haien ordeze euskal hitz jatorrak sortu nahi izan zituen¹¹, askotan euskarazko eratorbidea edo hitz-elkarketa arauak kontuan hartu gabe. Garai horretan nagusitu zen purismoaren aldeko joerak nabarmen baldintzatu zuen orduan sortutako testuetako joskera, bai eta terminologia ere. Hala ere, Aranaren neologismo askok iraun dute eta gaur euskara estandarreko lexikoaren zati dira (Azkarate eta Lindemann, 2019): *alderdi*, *jaurlaritzá*, *abertzale*, *hauteskunde*,

⁸ Larramendi eredu harturik sortu bide zituen Azkuek *inorenduadiera* berarekin (‘enajenar’) eta *norberarendu*. Azken honek ez du agerraldi bakar bat ere ez *Zuzenbide corpusean* eta ez *Egungo Testuen Corpusean* ere.

⁹ Cadizko Konstituzioa euskaraz, Jose Felix Amundarainek izenburu horrekin itzulia. Zumalakarregi Museoaren webgunean kontsulta daiteke eta, nahi izanez gero, testu osoa eskuratu ere bai pdf formatuan http://www.zumalakarregimuseoa.eus/eu/ekintzak-eta-zerbitzuak/ikerketa-eta-dokumentazioa/argitalpen-digitalak/1812ko-dotrina?set_language=eu.

¹⁰ Ikus Elosegi (2002) Eranskinak, 2.6.5. Lore-jokoetako testuetako hitz juridiko-administratiboak.

¹¹ Ikus Pagola (2005).

hautetsi, ordezkari, batzorde, idazkari, espetxe, aldundi, aberri, bazkide edo *lehendakari*.

Testuinguru horretan hasi zen argitaratzen bi hizkuntzetan *Euzkadi'ko Agintaritzaren Egunerokoa / Boletín Oficial del País Vasco*¹². Ez da zaila Sarriegirekin (1985: 11) bat etortzea eta laudagarri eta txalogarritzat jotzea euskarari ordura arte inon eman gabeko hedadura ematea, “ez denbora, ez oinarri, ez lasaitasun eta agian epe laburrerako asmorik (euskara oinarria izanik) ez bazen ere” eta “nahiz eta berori ezinbestean itzulpen huts-hutsa izan eta beharbada ez hizkuntz eredurik proposagarrien eta aukerakoenean egina ere, orduko **Agintaritzaren Aldizkarian** ikus daitekeenez”. Baina nabarmena da terminologian¹³ garai hartako joera puristaren mende dagoela: *uri sariartzalle* ‘becario’, *uri-sari* ‘beca’, *landola* ‘dependencia’, *Zaingo* ‘departamento’, *oroagindu* ‘decreto’, *Goi Banakaritza* ‘Administración Central’, *erki-banakaritza* ‘administración provincial’, *lanari* ‘funcionario’, *latziñaldari* ‘notario’, *Epailletza argibidelari* ‘Juzgado de Instrucción’, *txindi* ‘dinero metálico’, ‘público’ esateko *herri-*, hitz elkartuko lehen osagai... Erabiltzen diren terminoak ere ez dira beti osaeraz egokiak: *ibilkor zubi* (adjektiboa eta izena, alderantzizko hurrenkera behar lukeena), adberbio + izen egiturako terminoak (*ia-injeniero* ‘perito’, *ia-osagille* ‘practicante’, *ia diru artu-emangarri* ‘semibancable’¹⁴). Beste askotan, oster, guztiz egokiak dira osaeraz: *diru-etxeen alkartze eta banatze arazo*, *Diru-etxeak arautzeari buruz emandako Legea*, *Diru-Zaintza Araudia*, *Etixerik gabeko lurren zergari*, *zerga bereziei, eta plus valiarri dagokien Araudia*, *zergaren oñarri*. Edo bete-betean gaur erabiltzen direnak ez izanda ere, oso gertukoak dira: *erantziñak* ‘anexos’.

Badira bi ezaugarri azpimarratzekoak iruditzen zaizkigunak, biak ere gaurko terminologian ikus daitezkeenak: batetik, terminologiaren aldakortasuna eta bestetik, eremu askotako terminoetan ohikoa dena, alegia unitate konplexuen (sintagma egiturako unitateen) portzentajea euskal segmentu baliokideetan (goraxeago emandako adibideez gain, *lan eta alogera gabe uzteko zigor*, *gaixo-susmopean dagoen abel-gorri*, *diruaz ber-jabetu al izateko argibide* edo *legez biztanleturik aurkitu* ‘tener residencia

¹²Azterkizun daude *Eguna* egunkarian eta *Ereintza* aldizkarian 1937 urtean argitaratutako artikuluetako gaiak eta terminologia (Elosegi, 2002).

¹³IVAPek argitaratu zuen 1997an *Euzkadi'ko Agintaritzaren Egunerokoaren* 252 aleetako hitz-bilduma. Lexiko teknikoa edo berezitua ez ezik, lexiko arrunta ere jasotzen duena.

legal’). Aldakortasunaren adibide (nabarmenenak) dira: ‘contratista’ *lanartulari, itunbenlari, lanartuari, lan-artzalle, lanartuzale, lanartutzeale, lanartzelari, lanartzale, lanartzalle, lan-artulari*; ‘sanción’ *ezitu-bear, jipoi, zigor, zigorkada, zigortze, nekaltze, neke* edo ‘Junta provincial de Protección de Menores, Junta provincial de Protección a la infancia’ *Bizkaiko Aur Babes-etxea, Aur laguntza Erki-Batzordea, Aur Laguntzalle Erki-Batzordea, Gaztetxoen Erki Zainketa-Bazkuna, Aurrendako Babes Erki-Batzordea, Erkietako Aurrendako Babes Batzordea, Gaztetxoen Babeserako Erki-Batzordea, Aurraren Laguntasun Erki-Batzordea*. Guztiz ulergarria da aldakortasun hori jakinik zein egoeratan egin zen ahalegin hura (ikus goraxeago Sarriegiren hitzak). Gaur asko murriztu da aldakortasun hori, baina badira oraindik ere sinonimoak: egunotan kaleratuko den *UPV/EHUko Zuzenbide Fakultatearen Hiztegi Juridikoan*, esaterako, ‘ámbito de la acción protectora’ *babes-jardunaren hedadura, babes-jardunaren irismen*; ‘albacea’ *albazea, testamentu-betearazle*; ‘audiencia previa al juicio’ *epaiketa aurreko entzunaldi, judizio aurreko entzunaldiedo* ‘auditoría’ *auditoretza, auditoria, ikuskaritza*. Terminologiaren teoria berrietan onartzen da komunikazio espezializatuan erabiltzen den terminologia errealean aldakortasuna gertatzen dela¹⁵; areago, erdal termino batek adiera bat baino gehiago izan dezake eta, horrenbestez, ordain bat baino gehiago eska dezake (ikus azken puntuan Alvarez Mingoren aipamena).

Ezin dugu ahaztu, bestalde, euskaltzainen artean ere zenbaterainoko lekua zuen maileguen auziak. Agerikoak ziren Altuberen eta Azkueren iritzi kontrajarriak. Gerra ondoren ere iraungo du eztabaida horrek (Azkarate, 1997).

Atal honen laburpen modura esan dezakegu Elosegik dioena oso ondo egokitzen zaiola XIX. mendeko hizkera juridikoari eta XX. mendearen hasierakoari: “Jakina da zein pisu handia izan duten Hegoaldeko literatura osoan, baita itzulpengintza juridikoan ere, euskararen zuzentasunari buruzko aurreiritziek. Jakina denez, hainbat hizkuntza baliabide, bai lexiko, bai morfosintaktiko, bai estilistiko, debeku izan dira garai batzuetan. Horrela, esan daiteke Iparraldeko tradizioa ez zela kontuan hartzen

¹⁴Semantikaren ikuspegitik ere hain bitxia den *ia* adberbioaz gain, euskaraz ezinezkoa den *diru artu-emangarri* adjektibo elkartu sintetiko itxurakoa.

¹⁵Ikus, esaterako, Freixáren lanak, bereziki (2002, 2005, 2013): autoaldakortasuna (autore beraren testu bakarrean edo testu batean baino gehiagotan gertatzen dena) / heteroaldakortasuna (hainbat autoreren testuetan gertatzen dena. Edo Lorente (2013).

–hartzekotan, eredu negatibo gisa– euskarak 1936ko urrian ofizialtasuna eskuratzen duen unean” (Elosegi, 2002: 215).

5. 1980tik aurrerakoak

1978an *Euskal Kontseilu Nagusia* sortu zenerako, euskara batuak finkatuak zituen morfologiako funtsezko kontuak. Baina oraindik bizirik zeuden gerraurreko irizpide garbizaleak. Eta berehala hasi ziren tirabirak 1936ko ereduari jarraitu nahi ziotenen eta Euskaltzaindiaren gidaritzapean aurrera zihoan aldaera estandarraren aldekoen artekoak. Eztabaidak bizi-bizirik jarraitu zuen eta eztabaida horretako hainbat alderdi agerian geratu ziren HAEE/IVAPek urte haietan antolatu zituen administrazioko hizkeraren inguruko jardunaldietan¹⁶. Berasategik (1989) bi eredu bereizten ditu garai haietan: 1936-37 garaiko tradizioari atxikitzen zaiona bata, hizkuntza modernizatu eta garai berrietara egokitu nahi zuena bestea. Tradizioari atxikizaleen jardunak aurreko garaiko hizkeraren ezaugarri berberak ditu: garbizalea da, mailegutzatik ihes egin nahi du; garbizaletasunak, euskal hitzunen ohiko moldeetatik urruntzera daramatza; maiz jotzen du hitz-elkarketara eta postposizio-atzizkiak metatzera; euskal testuari autonomia handiagoa eman nahi diete. Hizkuntza modernizatzearen aldekoek, berriz, espainolezko terminologiaren zehaztasunak eta konnotazioak gorde nahi dituztenez, erraz onartzen dituzte maileguak; inguruko alorretan garatzen ari den hizkerarekin (irakaskuntzakoarekin edo komunikabideetakoarekin) bat datorren moldetik joan nahi dute; maileguz beteriko hiri-hizkerara hurbildu nahi dute. Aurreko tradizioa ez ezagutzeak ere ez zion inolako mesederik egin hasierako urte haietako jardunari: “Aurreko tradizioa ez ezagutzeak ekarri zuen segurtasun eza ere gaituz joan da: “Orduko ez jakitearen kariaz edo, hobeto esanda, falta zen ikerketaren ondorioz, aurki dezakegu orduko testuetan euskaraz berez zeuden terminoak gaztelaniara itzultzen zirela, eta, horiek berriro euskarara ematean, euskaraz inolako tradizioarik gabeko ordainak asmatu zirela, adibidez “herrialde” > “territorio histórico” > “kondaira lurralde”, “lurralde historiko”, “herrialde historiko” eta “historia lurralde”. Orduko joera biek aukera zuten horietako bat edo beste, baina ez zuten jatorrizkoa proposatu” (Lobera 2005: 116). Garai hartatik geratu zaigu *Herri-Arduralaritzaren Euskal Erakundea* izena

¹⁶Bi daude argitaratuak, 1982koa eta 1989koa. Herri-Arduralaritzaren Euskal Erakundea / Instituto Vasco de Administración Pública (1982): *Euskara eta administrazioari buruzko I. Ihardunaldiak*, HAEE/IVAP; Herri-Arduralaritzaren Euskal Erakundea / Instituto Vasco de Administración Pública (1989): *Administrazioko hizkera eta terminologiaren jardunaldiak*. HAEE/IVAP. Ikus Elosegi (2002: 274-276).

edo ‘público’ erdal erreferentzia-adjektiboaren ordain *herri* ematea (askotan behintzat): *herri-ikastetxeak*, *herri-lan(ak)*, *herri-zerbitzu* (nahiz *publiko* mailegua nagusitu).

Ondorengo urteetan, Euskara batuaren oinarriak finkatzen diren heinean, testu juridiko gehien-gehienak haiek jarraituz moldatzen dira. Beste arloetan bezala, euskara batuarekin batera, lexikoan ere aldaketa nabarmenak ageri dira (Elosegi, 2002: 220). Ekarpen handia egin du Terminologia Batzordeak, han ezarritako irizpideek eta han bildu den lantaldearen jardunak (<https://www.euskadi.eus/euskararen-corpus-terminologia/web01-a2corpus/eu/>). Bestalde, HAEE/IVAPek eginiko lana aitortu behar da, bai terminologian eta bai hizkera argi eta ulergarriaren alorrean; administrazioaren alorretarako prosa eredu estandar zaindua lantzeko argitaratutako lanak, bereziki *Estilo liburua*; *Administrazio Euskaraz* aldizkaria. *Euskara Juridikoaren Ataria*, *IUSPLAZA Zuzenbidearen webgunea euskaraz* edo *Legeak-Leyesbilduma*¹⁷. Itzulpenek oraindik ere pisu handia izan arren, badira euskaraz sortzen diren testuak ere. *Legeria* aldizkariak (1996-2013)¹⁸ aurrerabide nabarmena ekarri zuen euskara hutseko lanak argitaratzen ziren neurrian, komunikazio-funtzioa zaindu behar zuelako. Hamazazpi urtean zehar unibertsitateko irakasleen eta IVAPeko teknikarien artikulu eta lanak jaso zituen. Gaur merezi du *Zuzenbidea ikasten. Irakaskuntzarako aldizkaria* aipatzea. 2014an sortua, *Zuzenbideko graduari* aritzeko eta *zuzenbidea ikasteko* erabiltzen diren ikasmaterialak argitaratzea du helburu, bai eta ikasleen ekarpenak eta ikasleentzat interesgarriak izan daitezkeen berri juridikoak ere. Eta, nola ez, unibertsitateetan sortu diren irakaskuntzarako testu-liburuak (EHUkoak <https://ikasmaterialak.ehu.eus/zuzenbidea>, edo Deustuko Unibertsitateko Zuzenbide alorreko bilduma). Ibilbide horri esker egin ahal izan da Zuzenbide Corpora, gaur egun 696 dokumentuz (lege-testuak eta testu akademikoak) eta 7,9 milioi testu-hitzez osatua, eta Euskara Institutuan kontsultagai dagoena.

Horrek guztiak errotik aldatu du terminologiaren egoera. Oraintsu arte hiztegien bidez sortzen ziren terminoak; hiztegien egiten zituzten proposamenak zein termino erabili erdarazkoaren ordain, bai euskara batuaren aurreko aldiari eta bai ondoren ere. Lantalde baten edo pertsona jakin baten proposamenak jasotzen ziren (terminologia) hiztegiaren.

¹⁷<https://www.ehu.eus/eu/web/euskara/legeak-leyes-bilduma>.

¹⁸Euskal Herriko Legelarien Aldizkaria, <http://www.eusko-ikaskuntza.eus/eu/argitalpenak/eleria-euskal-herriko-legelarien-aldizkaria/bi-109/>

Gaur, aldiz, baditugu euskaraz sortutako testuak, corpusak, horiek aztertu eta hortik terminoak erazteko: corpus orokorrak (*Egungo Testuen corpora*), nahiz corpus berezituak (*Zuzenbideko corpora*)¹⁹, Horrek eman digu aukera terminologia planifikatutik terminologia naturalerako pausoa emateko.²⁰

Ez da dudarik XXI. mendearen lehen laurdenera iristen ari garenean, lege-hizkeraren eta, oro har, zuzenbideko eta administrazioko hizkeraren egoerak ez duela zerikusirik orain dela mende batekoarekin. Oro har, esan daiteke euskara estandarrak berak egin duen ibilbidea jarraitu duela; ibilbide hori, Mitxelenak (1968) Arantzazun esandakoaren arabera egin dela esan dezakegu: “Euskaldunok ez dugu, herri gaietan izan ezik, kultura berezirik: mendeko gera, kultura-barruti horretan bizi gera. Ezin izan dezakegu, beraz, askatasunik hizkuntzaren aldetik: askatasun hori erdiets zitekean VIIIgarren mendean, XIIIgarrenean eta XVIgarrenean ere, bai oraindik, agian, ez, ordea, oraingoan eta are gutxiago hurrengoan. Latinaren, eta erabat sortaldeko hizkuntzen, kutsua geure bekokian daramagu. Aitor dezagun, onar dezagun, eta goazen aurrera bide horretarik. (...)«Euskal-usaia», «euskal-kutsua» deritzatena ongi dago, noski, euskal-gaiak darabiltzagunean, Euskal-herriko mendi-giroa irakurleari sumarazi nahi diogunean. Hortik kanpora, ordea, badirudi ur garbiaren pare behar duela izan behar bezalako prosak: inongo usairik, kolorerik eta zaporerik gabea. Euskal-kutsua badario, barrenmuinetarik dario, ez axaleko edergarrietarik”.

6. Zenbait gogoeta: euskarazko lege-hizkeraren erronkak eta aurrera joateko oinarria

Gai horretaz arduratu direnek ia aho batez aitortu dute itzulpenaren eskutik etorri dela lege-hizkera eta, oro har, administrazioko hizkera. Terminologian ere bada oraindik zer gogoeta egin. Beraz, bi puntu horien inguruan harilduko ditugu aurrera begirako gogoetak, beste idazle batzuenak euskarri hartuta.

Itzulpenez. Ingurumari zabalagoa eman nahi diogu itzulpenari buruzko gogoetari, azken batean itzulpen lanaren gaineko gogoeta orokorrek berdin-berdin balio dezaketelako esparru zehatzagoetarako ere; eta, askotan, gainera, argi egin dezakete zein bide hautatu.

¹⁹<https://www.ehu.eus/eu/web/eins>

Lege-hizkera egokitzeko eginkizunean itzulpena izan dugu lanabes eta bide ia bakarra. Hori, nekearen nekez ikasi dugu, ez da, berez, ez ona ez txarra. Are gehiago P. Esterházyk diosku, hungarieraren kasuan, itzulitako literaturak oso tradizio sendoa eta oparoa izan duela beti, bere ustez herri txikiek bere buruarekiko duten begirunearen bereizgarri dena²¹. Baina eskarmentu handiko –eta kalitate literario goreneko– idazleek badakite itzultzeak dituen zailtasunak eta arriskuak. Bi adibide hona ekartzeagatik: Jorge Luis Borgesek diosku ez dagoela bestelako arazorik letrek –idazkuntzak– hain bere-berezko dutenik, eta haien misterio apalarekin lotuta dagoenik itzulpenak proposatzen duena baino²². Eta, gurean, Koldo Mitxelenak ohartarazi zigun “itzulpenak irristakorrak eta zailak direnez gero”²³ trebezia berezia eskatzen dutela; bereziki, uste dugu, hizkuntza maisuki menderatzea eta gaitasuna izatea ez-titasun guztiarekin erabiltzeko.

Hizkuntza bakoitzak badu bere unibertsoa, bere berezitasunak, bere-berezkoak diren bideak. Axular izan dugu gurean, duda gabe, itzultzailek trebeenetakoa. Anjel Lertxundik²⁴ berriki ekarri dizkigu Axularrek erabiltzen zituen metodoak; era berean, hitzez-hitzezko itzulpena eta, gehienetan, horrekin batera, jarraian, itzulingurukoa, sarritan sinonimo ugari erabiltzearen bidez. Axularrek berak, gardentasun guztiarekin, biluzten du bere burua: “...eztitut bethiere... hitzez hitz euscarara bihurtzen. Ceren euscarra eta bertce hitzcuntçac different baitira. Ordea ezta ez handic seguitcen gaiztoago dela euscarra. Aitcitic badirudi ecen bertce hitzcuntça eta lengoaya comun guztiac bata bertcearequin nahasiac direla, Baiña euscarra bere lehenbico hastean eta garbitasunean dagoela”²⁵. Ez da dudarik, neurri batean behintzat, azken xehetasunak, euskararen garbitasunari buruzkoak, beste xehetasun eta ñabarduraren bat behar duela. Baina Axularrek erakusten digu nola egokitu euskararen ezaugarrietara, euskarara ekarri behar dugun hori. Mitxelenaren hitz hauetan ere aurki dezakegu Axularren mezuaren oihartzuna; eta honela uler dezakegu mezu hori: euskarazko lege-hizkera egokitzean ez dugu hizkuntza berri asmatu behar, euskara egina baitago, beharrak izan arren. “Euskarak, egia esan, badu beharrik; zertxobait leuntzeko, hornitzeko eta egokitzeko

²⁰ Alberdi X. eta Salaburu, P. (arg.) (2013): *Terminologia naturala eta terminologia planifikatua euskararen normalizazioari begira*. Ugarteburu Terminologia Jardunaldiak V <https://www.ehu.es/eu/web/eins/jardunaldiak-2013>

²¹ Esterházy, Peter, DezsőKosztolányi-ren *Alondra* nobelari egindako hitzaurrean, p. 10

²² Borges, Jorge Luis: «Las versiones homéricas», *Discusión, Obras Completas*, I, or. 267

²³ Mitxelena, K. (1965) [*Euskalidazlanguztiak*, III, or. 149]

²⁴ Lertxundi, A. (2019): *Itzuliz usu begiak*, Alberdania.

premia ederrean dagoela guziok dakigu. Baina egin beharrik ez, aspaldidanik egin-egina baitago. Euskara egiten –edo egin ustez desegiten– hasi baino hobe genuke euskaldunok euskara ongi ikasten hasi” (Mitxelena, 1961)²⁶

Anjel Lertxundik behin eta berriro errepikatu du itzulpen literarioak emaitza oparoak ekarri diozkiola gure hizkuntza literarioari. Itzultzaile benetan trebeak sortu dira gurean azken hamarkadetan, agian hizkuntzaren inguruan izan dugun emaitzarik aberatsena. Maisu izan dira kanpoko hizkuntzetako bideak, gure hizkuntzaren berezko ezaugarrietan egoki txertatzen. Hizkuntza aberastu dute hizkuntza bortxatu gabe.

Esan da gurean sortu den lege-hizkera edo hizkera burokratikoak, nahi badugu, gaztelaniazko hizkera burokratikoaren maizter dela, *jerga* horrek dituen gaitz guztiak gurera ekarri ditugula (A. Lertxundi, *Eskarmentuaren paperak zein Itzuliz usu begiak* saiakeretan). “Hizkera burokratikoak gaztelania du, eta ez euskara, iturri eta ispilu, eta itzulpena du oinarri” diosku azken saiakeran (or. 110). Euskara juridikoaren ajeak eta urratuak ere aipatu ditu, –literaturaren eta hizkera juridikoaren arteko eremutik, esango genuke– Joseba Lozanok (1997). Erdararen morrontzatik urrundu, erdara “jaso” horren mezuak deskodetu, testuan ezkututzen diren nagusienak zerrendan jarri, ideia horiek euskarazko oinarritzko esaldi bihurtu, eta esaldiok euskarazko diskurtso modura egituratu, euskarak berak gure esku jartzen dituen tresnen laguntzaz: horiexek Lozanoren errezetaren osagaiak.

Arazoa ez da, beraz, itzulpena oinarri izatea. Bide gehiagorik ez genuen eskura. Arazoa da gaztelania izatea, eta ez euskara, iturri eta ispilu. Eta, zilegi bekit berriro esatea, legelarien –etaburokraten– harrokeria. Batzuen eta besteen artean egokitu nahi izan dute lege-hizkera. Askok pentsatzen zuten ez genuela hizkuntzalarien beharrik; ez eta euskara literarioa ederto menderatzen duten idazleen beharrik ere. Zuzenbide Fakultatean, aspalditik, ohikoa da entzutea “ba gu, juristok, legelariok, horrela esaten dugu”. Maiteminduta daude haiek beraiek sortu duten hizkerarekin, lexikoarekin, bereziki.

²⁵Axular, P.: *Gero*, orr. 19-20

²⁶Mitxelena, K. (1961) [*Euskalidazlanguztiak*, III, or. 69]

Terminologiaz. Asko izan dira aldarrikatu dutenak gaztelaniazko lexiko eta hizkera juridikoaren pareko –ispilu– izango zen lege-hizkera behar genuela euskaraz. Eta halakoa sortu dute. Gaitz sendoa dugu lege-hizkeran gaztelaniaren ispilu diren ordain zuzenak sortzea. Askotan esaten dute lege-antolamendu bakoitza mundu guztiz berezia dela eta, beraz, Espainiako lege-antolamendua dela erabili behar duguna, halako legeek ezarri dutena ekarri behar dugula euskarara. Hori egia da neurri nahiko txiki batean. Gutxitan dira beste sistemetan inolako ordainik ez duten ‘berezitasunak’. Horrek ez du arazorik sortzen; salbuespenak diren neurrian, salbuespen arrotzenek ere – hizkuntzarenikuspegitik– ez diote kalterki egingo hizkuntzari. Baina zerk eragozten digu gurearekin antz handiago duten hizkuntzek gauzak adierazteko eta lexikoa sortzeko erabiltzen dituzten bideak hartzea? Ez dira onuragarriagoak guretzat ingelesak edo alemanak dituzten erak? Ingeles hizkuntzan nabaria da hizkera juridikoan hitz arrunten erabilera, hitzaren eremu semantikoa zabaltzearen bidez. Berdin erabiltzen da *claim* hitza hitzun arrunten arteko solasetan eta juristen artekoetan. Baina esangura ez da bera batean eta bestean.

Terminologia auzietara heldu garelarik, gogoan izan behar dugu zein helburu duten gurean, batez ere, terminologia lanek. Izan ere, hizkuntza gutxituen kasuan, hizkuntza plangintzaren helburua nagusitzen da; hizkuntza plangintzari, hizkuntzaren normalizazioari loturik egon ohi dira terminologia hizkuntza horretara egokitze ahaleginak (Cabr  1992). Leku berezia hartzen dute horrelako lanek estandarizazioaren azken fasean, *elaborazio* aldian, nahitaezkoa baita lan hori hizkuntza edozein arlotan erabilgarri egiteko. Hala izan da eta da euskararen kasuan ere. Ikuspegi horretatik, terminoak komunikaziorako elementuak baino ez dira, balio espezializatuko unitate linguistikoak, baina beti ere hizkuntza jakin bateko arau eta erregelak oinarri dituztenak²⁷. Beste hitz batzuetan esanda, hitz berriak sortzeko (edo maileguz hartuak egokitze) hizkuntza batek dituen arauak eta erregelak bete behar dira terminoak sortzerakoan ere. Euskarari dagokionez, Euskaltzaindiaren Hiztegia izango da oinarri, batetik, hiztegi horretan baliatutako irizpideak; eta, bestetik, euskaraz hitz eratorriak eta hitz elkartuak sortzeko bideak. Hizkera berezituko hitzak sortzeak ez digu eskubiderik ematen lexiko orokorreko hitzen arauak hausteko.

²⁷Ikus artikulu-sorta honetan Alberdiren lana, “UPV/EHUko Zuzenbide Fakultatearen Hiztegi Juridikoa: hiztegi-sarreraren egitura eta definizioen idazkera”.

Baina nola jakin zein bide hautatu? Mitxelenak Arantzazuko txostenean eta beste idatzi batzuetan esandakoek argi egin dezakete kontu honetan. Bi ideia azpimarratu zituen Mitxelenak (1968): “Hizkuntza bizia hitz berrien premian da beti: bere baitarik sortzen ditu batzuetan, besterengandik hartu besteetan. Bi bideak zilegi eta beharrezko dira eta nork taxutuko du alde zuretik bakoitzaren neurria eta mugak? Euskaltzaindiak behinola esanak honetarako bakarrik balio zuen: ez dagoela hitz berririk sortu beharrik adierazteko euskal hitz, zahar-jatorrak, erdaratikakoak direlakoak, baztertzeko asmoz”. Eta bigarren gogoeta, “Euskal hitzak sortzean, eta normahik sortzen ditu mintzatzean, gogoan eduki dezagun beti, premia gainera, gure hizkuntzaren moldea, beti izan baitugu horretarako erraztasuna, hitz-elkartzearen bitartez, batez ere. Noraezekoa du hizkuntzak sor-iturri horrek bizirik iraun dezan, bere izatean iraungo baldin badu”.

Egia da, lege-hizkeraren alorrean ere sarri hautatu ditugula euskaren moldeko baliabideak; lexiko orokorrean egin den bezala: “Lexikoaren eguneratzeak hautamen bat egitera behartzen gintuen beste hizkuntzen murrizketaren eta euskarak berak ematen zizkigun aukeren artean. Zorionez, asko tiratu dugu bigarren aukeratik, euskara bera izan dugu iturri nagusia. Bada, ordea, tamalik ere: ez dugu beti asmatu”²⁸.

Bada beti tirabira barrutik sortutako eta maileguz arteko hitzen eta terminoen artean. XIX. eta XX. mendearen zatirik handienean maileguetatik ihesi ibili ondoren, badirudi eskuzabalegi jokatu dugula maileguak hartzean. Hala iradokitzen digute Mitxelenaren (1985) hitz hauek: “mailegatzeko eskubidea ezker-eskuin eta zuzen-bihurri mugarik gabe geureganatua dugunez gero, ez ote dugu zilegi, emendailuz bezala, geure baitarik zer-edo-zer sortzea?”²⁹. Baina ezin gara purismoaren atzaparretan erori: “Genetikari buruzko unibertsitate liburu batean ez dela, kasu, "herentzia" hitza behin ere azaltzen. "Ondoretasuna" erabiltzen dela ordez. Betiko purismo antzuaren ildo da hori. Eta ez da kasu bakana euskal idazkietan: lirdinga bat bezala erantsi zaio joera purista euskara idatzari.”³⁰ Irtenbidea ez da erraza, erdibidea aurkitzea ez da inoiz eta inon erraza. 1980ko hamarkadaren hasieran, hizkera juridikoaren mundutik bertatik egindako gogoetek lagun dezakete erdibide hori aurkitzen. Alor horretako euskarazko testuak (eta, esango genuke, gainerako alorretakoak berdin) baliozko eta eraginkorrak izatea

²⁸Lertxundi, A. (2009): *Eskarmentuaren paperak*, Alberdania.

²⁹Mitxelena, Koldo (1985): “Esaera zahar baten bigarren agerraldia” [*Euskalidazlanguztiak*, VI, Euskal Editoreen Elkartea, or. 186].

nahi badugu, eta ez erabilerarik gabeko apaindura hutsak: a) edukiari begirunea gorde behar zaio; b) ezin ditugu setaz eta mendetasunez erdaratik maileguak hartu; c) kontzeptuak zehazki emateak ezin du ekarri erdaraz hitz bat erabiltzen den bakoitzean euskaraz ere hitz bat eta bera erabiltzea; gaztelaniazko terminoaren balio semantikoa aztertu behar da, euskal ordain egokia hautatzeko; d) mugak jarri maileguak hartzeko; muga hori hizkuntza bera da, jatorrizko testua aztertu eta ulertu ondoren, beste biderik aurkitzen ez dugunean, orduan jo mailegura (Alvarez Mingo, 1982). Azken batean gorago jaso dugun Lozanoren (1997) irtenbide bera, Mitxelenaren hitzekin oso bat datorrena.

Termino eta egitura jakin batzuez. Artikulu honen lehen partean 1980 arteko hizkeraren garbizaletasunaz jardun dugu. Orain jaso ditugun gogoeta orokor horien ondoren, beha diezaiegun azken urteetako hizkera juridikoan erabili diren zenbait hitzi. Batzuek arrakasta izan dute; beste batzuk hor dabilta, baina, oraingoz, ez dute onarpen ofizialik.

Jarauntsi ‘ondarea’.- Ez da termino arrotza gaurko testuetan, baina Olabidek Bibliaren itzulpenean erabiltzeak Mitxelenaren / (1959) haserrea piztu zuen: “...[halako hitzak] dakidanez, *hápxlegómena*[literaturan behin bakarrik agertu direnak] dira. 1556ko *Refranes y sentencias*-en bakarrik ageri direnak. Ba ote zuten horrelako zaharraren zaharrez aspaldi usteldu ziren hitzek oraingo liburu batean sartzeko eskubiderik? Ez, ene ustez, ezinbestean izan ezik, eta hemen ezinbesterik ez zegoela bistan dago”³¹.

Lerrun.-lekukotasun ugari ditu *Egungo Testuen Corpusean* (ETC), eta agerraldi multzoa *Zuzenbide Corpusean* ere. Baina *Orotariko Euskal Hiztegi*a jotzen badugu, ikusiko dugu Azkueren irakurketa okerraren ondorio dela. *Lerrunkan*(Pouvreauk dakarren forma), *lerrunean* zela uste izan zuen. Hortik sortu zuen berak *lerrun*, *Pouvrearen lerrunka* bazter utzita.

Egikaritu, *egikaritzea*.- Testuetan lekukotasun handirik ez duen Larramendiren neologismo bat oinarri hartuta, indar handia hartu dute, hurrenez hurren, ‘ejercer, ejercitar’ eta ‘ejecución’ adieraz testu juridikoetan.

³⁰Atxaga, B. *Diario Vascoegunkarian* eginiko adierazpenak.

³¹Mitxelena, K. (1959): “Itun Zar eta Berria. Olabide’tar Erraimun, S.J.”, [*Euskal idazlan guztiak*, II, Euskal Editoreen Elkarte, or. 112 eh.]

Tarteratu.- erdara ispilu harturik sortu den adibide gordinen adibidetzat hartuko dugu aditz hau, lege-testuetan ez, baina testu akademikoetan aurki dezakeguna. Euskarazko esapidea kendu eta gaztelaniaren morrontzako kalkoa sortu da, inolako beharrik gabe. *Errekurtsoa jarri, helegitea jarri* edo *aurkeztu*, baditugu euskal predikatuak kalkora jo beharrik gabe.

Zaila da hemen ere erdibidea, baina lege-testuetako eta testu akademikoetako terminoak moldatzean, on da Mitxelenaren hitzak begien aurrean izatea: Ez dago ezer txarrik [euskalki guztietatik hitzak hartzean], berriz ere, neurrian eginez gero. [Baina] (...) ez du hitz batek beste edozeinek adinbat esku (...) maizegi [hartzen ohi da] Euskal Herriko xokorik galduenetan jaso izan diren hitzak, baita aspaldidanik nonahi ahaztu zirenak ere, literaturan nahiz herri hizkuntzan zabalduago eta ezagunagoak direnen kaltetan”. Izan ere, batzuetan badirudi lege-hizkera moldatzean badela joera tradizio urriena duten terminoak hautatzeko; arrotzenak diruditen aukerak hartzeko, euskal hiztun ikasiari zailen egokitzen zaizkienak. Nolanahi ere, hitz horiek sartu dira eta bidea egin dute gaurko hizkeran. Beude, beraz, bakean.

Erdal ‘izen + erreferentzia-adjektibo’ egiturako sintagmez.- Hitz elkartuen osaera eta idazkerari buruzko araua eman zuenean, Euskaltzaindiak (25. araua) ohartu gintuen izen-elkarketa dela euskaraz tradizioko bidea mota horretako sintagmen ordainak emateko, izena izaten delako adjektibo horien oinarri, nahiz batzuetan latinetik gertuagoko forman ageri adjektiboa (*mano/manual, leche/lechero, lácteo, economía/económico*, eta abar). “Bide honi eutsi beharko litzaioke orain ere, ahal den guztian, erdal hitz-moldaera arrotzen menpekoegi bihurtu nahi ez badugu”. Garrantzi handiko auzia da, ugariak baitira erreferentzia-adjektibodun sintagmak terminologian oro har, bai etalege-hizkeran nahiz administraziokoan. Garai garbizaleetan ihes egin zieten *público* edo *jurídico*zuten erdal sintagmen ordainetan *publiko* edo *popular* maileguak hartzeari. Baina egia da zenbat eta urrunago egon oinarriko izena eta adjektiboa, zailagoa gertatzen dela izen elkartua erabiltzea. *Normal* adjektiboak, adibidez, galdua du *norma* izenarekiko lotura semantikoa. Nolanahi ere, asko ikertu da gai hau gure artean Euskaltzaindiak 1992ko araua eman ondoren. Corpusetako datuen argitan, badirudi erraz lerratzen garela azken urteetan erdal egitura mailegatzerara, berez horretarako beharrik ez dugunean ere (Azkarate, 2019). *Konstituzio Auzitegi* eta *Herri*

Administrazio defendatu zituen sutuki Alvarez Mingok (1982). Hala erabiltzen dira gaur ere. Baina ‘*konstituzio*+ izen’ edo ‘*herri*+ izen+ egituren ondoan bizi dira, etxe erosoetan, *printzipio konstituzional*, *oinarri konstituzional* edo *zor publiko*, *jabari publiko*, *segurtasun publiko*, *administrazio publiko* eta abar. Beste batzuetan, bi formak eskaintzen dira: *atestatu polizial*, *polizia-atestatu*. Izen elkartuaren aldeko hautuak ere ez dira falta: *administrazio-espeditente*, *administrazio-prozedura*, baina *organo administratibo*. Ertz ugari ditu auzi honek ere, orain arteko guztiek bezala. Baina aurreko puntuak bezala, gogoetatxo bat ekarri nahi izan dugu lerro hauek irakurtzen dituenari baliagarri izango zaiolakoan.

Eta, amaiera gisa, apokalipsia hurbil dagoela pentsaraz dezaketen hitzak, nahiz ez izan hori, inola ere, gure asmoa aipamen hau hona ekartzerakoan. Pizgarri izan nahi du, ikaragarri baino areago, azken parte honetako gogoeta guztiak bezala. Pizgarri eta oroigarri nolako erantzukizuna dugun administrazio- eta lege-hizkera, modu batean edo bestean, esku artean dugunok; oroigarri, hizkuntzalariek eta adituek eskuz esku egin behar dutela bidea; oroigarri, administrazio- eta lege-hizkera ez dela adituei – administrazioko teknikariei edo legelariei- bakarrik dagokien arazoa, gauzak nola joan diren ikusita, hizkuntzaren osasun bera kolokan jartzen duen hizkera baita.

“Hamar puntu eta bi punta hizkera burokratikoaz:

Bat. (...)

Bi. Hizkera burokratikoak klase baten jerga bihurtzen da (...)

Hiru. Hegoaldeko hizkera burokratikoak gaztelania du ispilu eta itzulpena oinarri. Gaztelania burokratikoaren akats guztiak imitatu ditugu, euskararentzat kriminala izan daitekeen dinamika batean (edo erretorika espainola Euskal erretorika gizentzen jarri genueneko).

(...)

Zazpi. Hizkera burokratikoak erro luzeak baldin baditu, are luzeagoak dira gurea bezalako gizarte txiki batean, eta euskara bezalako Hizkuntza menostu batean” (Lertxundi, 2009)³².

³²Lertxundi, A. (2009); *Eskarmentuaren paperak*, Alberdania.

Hizkera burokratikoak gurean izan duen eragina hizkuntza sendoagoetan izan duena baina askoz gogorragoa eta handiagoa izan da, dirudienez jendeak pentsatzen baitu hori dela euskara ona: “(...) administrazioko hizkeraren itzala oso-oso luzea du gure hizkuntzan, hedadura handiko hizkuntzetan ez bezalakoa bai neurritz eta bai eraginez” (...) Kezkagarriagoa egiten zait administrazioaren hizkera-eredua beste alorretara ere hedatu izana (...). Naturaltasunaren kaltean. (...) Hiztun askok apenas ulertzen duen erregistro bat da, ordea. Bere eremutik kanpo deus gutxi komunikatzen duena.” (Lertxundi, 2009).

Aipamen bibliografikoak

- Alvarez Mingo, P. (1982): “E.H.A.A.ko itzulpen-lana”, *Revista Vasca de Administración Pública– Herri-Ardurularitzako Euskal Aldizkaria* 4, 121-142.
- Azkarate, M. (1997): “Hiztegi Batua”, *Federiko Krutwig-i omenaldia*, Iker-10, Bilbo: Euskaltzaindia, 79-104.
- Azkarate, M. (2015): “Euskal lexikografia: kodetzetik garatzera”, Fernandez B. eta P. Salaburu (arg.) *Ibon Sarasola, Gorazarre. Homenatge, Homenaje*, Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea, Argitalpen Zerbitzua, 119-136
- Azkarate, M. (2019): “Adjektibo erreferentzial ala erreferentzi-adjektibo? Euskaltzaindiaren gomendio baten hariari tiraka”, Epelde, I. eta O. Jauregi, *Bihotz ahots. M. L. Oñederra irakaslearen omenez*, Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea, Argitalpen Zerbitzua, 99-113.
- Azkarate, M. eta Lindemann, D. (2018): “Basque Lexicography and Purism”, *International Journal of Lexicography*, Volume 31, Issue 2, 132-150
<https://doi.org/10.1093/ijl/ecy003>
- Berasategi, J. I. (1989): “La traducciónjurídico-administrativaenelPaísVasco”. *Revista de Llengua i Dret* 13, 29-45.
- Cabré, T. (1992): *La terminologia. La teoria, els mètodes, les aplicacions*. Barcelona: Empúries.
- Elosegi, A. (2002): *Zuzenbideko euskal hizkera berezia. Lege-corpus itzuli bateko terminologiaren azterketa linguistikoa eta terminologikoa*, Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea, Argitalpen Zerbitzua.
- Euzkadi'ko Agintaritzaren Egunerokoa (1936ko urritik 1937ko ekainera). Hiztegia*, 1997, HAEE/IVAP

- Freixá, J. (2002): *La variación terminológica; análisis de la variación denominativa en textos de diferente grado de especialización de la área de medioambiente*, Serie Tesis 3, Barcelona: Universitat Pompeu Fabra.
- Freixá, J. (2005): “La variación terminológica: ¿porqué y para qué?”, *Meta: journal de traducteurs. Translator's Journal* 50 (4) <https://www.erudit.org/fr/revues/meta/2005-v50-n4-meta1024/019917ar/>
- Freixà, J. (2013): “Otravez sobre las causas de la variación denominativa”, *Debate terminológico*(9), 38-46.
- Gallastegi, C. (2005): “Itzulpen juridikoa eta euskararen historia”, Larrazabal S. eta E. Oregi (koord.), *Hizkera juridikoa eta itzulpengintza: euskararen norabideak*. Bilbo: Deustuko Unibertsitatea-HAEE, 87-109
- Haugen, E. (1987): *Blessings of Babel: Bilingualism and Language Planning: Problems and Pleasures*, Mouton de Gruyter.
- Lobera, G. (2005): “Gerra-ondoko itzulpen juridikoaren bilakaera”, Larrazabal S. eta E. Oregi (koord.), *Hizkera juridikoa eta itzulpengintza: euskararen norabideak*. Bilbo: Deustuko Unibertsitatea-HAEE, 111-123
- Lorente, M. (2013): “Terminología in vivo y variación funcional”, 2-18
- Lozano, J. (1997): “Zenbait argibide euskara juridikoaren gainean!”, *Eleria* 1, 55-75.
- Mitxelena, K. (1961): “Euskal hiztegi gileak XVII-XVIII garren mendeetan”, *Euskera* 2. Aldia, VI, 7-22 [Hemen berrargitaratua: *Koldo Mitxelena. Euskal idazlan guztiak VII*, Euskal Editoreen Elkarte. Erein, 47-66].
- Mitxelena, K. (1968): “Ortografia”, *Euskera* XIII, 203-219.
- Mitxelena, K. (1984): “*Hauta-Lanerako Euskal Hiztegia*-ren aurkezpena”, I. Sarasola, *Hauta-Lanerako Euskal Hiztegia* [Hemen berrargitaratua: *Koldo Mitxelena. Euskal idazlan guztiak VII*, Euskal Editoreen Elkarte. Erein, 25-45].
- Pagola, I. (2005): *Neologismosen la obra de Sabino Arana Goiri*, Iker-18, Bilbo: Euskaltzaindia.
- Sarriegi, A. (1985): “Administrazioa eta euskara: itzultzaileak eta arduradunak”, *SENEZ: Itzulpen eta terminologiazko aldizkaria*, 4, 11-29 <https://eizie.eus/eu/argitalpenak/senez/19851201/sarriegi>
- Villasante, L. (1968): “Antziñako euskal hitzen formaz”, *Euskera* XIII, 175-201
- Zuazo, K. (2000): *Euskararen sendabelarrak*, Irun: Alberdania.

**(Euskal) Bozak:
erdikoak, inkoatiboak eta arazleak¹**

Ane Berro

Deustuko Unibertsitatea

Beatriz Fernández

Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

Atarikoak

Argumentuak gaineratzeko mekanismoak, batez ere egitura aplikatiboak, euskal syntaxilarien jomuga izan dira laurogeita hamarreko hamarkadaz geroztik, baina argumentuak gutxitzeko mekanismoek, hots, *iragangaiztearekin* (ingelesez, *detransitivization*) zerikusia duten egiturek, salbuespenak salbuespen, ez dute horrenbesteko arretarik jaso euskaraz. Ere ezezagunago honetan sakondu nahian, lan honetan, iragangaiztearekin zerikusia duten egitura *inpersonal* deitutarikoak aztertuko ditugu, hots, predikatu iragankor baten gainean eraiki arren, iragangaitzak diren egiturak, hala nola, *liburuak erraz saltzen dira* bezalakoak (Ortiz de Urbina 1989, 1991, 2003, 2011-2019; Albizu 1997, 2001). Honelako egiturak berriki aztertu ditu Urrestarazuk (2019), eta Ahn & Sailor-en (2014) lanean oinarrituz, *erdiko boz*eko egituratzat hartu ditu, *boz aktiboko* egituratik bereiziz (e.g. *liburuak erraz saltzen dituzte*). Lan honetan, Urrestarazuren lanari segida emanez erakutsiko dugunez, euskararen erdiko egiturak ez zaizkie bete-betean lotzen ingelesez edo alemanez erdikoei egotzi izan zaizkien ezaugarriei, eta antzekotasun handiagoa dute hizkuntza erromantzeetako kideko egiturekin. Alde horretatik, Ackema & Schoorllemmer-ek (2005) erdiko egituren artean bereizten dituzten bi motetatik, hots, 1-motako erdikoak eta 2-motako erdikoak, euskararenak 2-motakoak direla dirudi. Erdikoak, bestalde, iragangaitzak diren aldetik *inkoatiboen* oso antzekoak dira (*hil da*), nahiz eta ez diren egitura bera, eta *arazle*etatik (*hil du*) bereizten dira –inkoatibo/arazle alternantziarako,

¹ Lan honen egileek Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntza jaso dute IT1169-19 ikerketa proiektuaren bidez eta Espainiako Gobernuako Zientziaren, Berrikuntzaren eta Unibertsitateen Ministerioarena PGC2018-096380-B-I00 ikerketa proiektuaren bidez.

ikus Oihartzabal (2003), Ormazabal (2008), eta Berro et al. (2018)–. Hori dela eta, lan honetan hiru egiturak jarriko ditugu harremanetan eta aztertuko dugu zein diren inkoatibo/arazle alternantzia ez ezik, erdikoetan ere ager daitezkeen predikatuak. Ikusiko dugunez, aldaera arazlea duten predikatuak beti ager daitezke erdikoetan; aldaera inkoatiboa baino ez dutenak, berriz, inoiz ez. Lanak ondoko atal hauek izango ditu: 1. atalean, erdiko egiturak zedarriztatuko ditugu; 2. atalean, ingelesezko erdikoak eta euskararenak konparatuko ditugu beste hizkuntza batzuen artean; 3. atalean, erdikoak, inkoatiboak eta arazleak jarriko ditugu harremanetan predikatu jakinak aztertuz; eta 4. atalak bilduko ditu ondorio nagusiak. Lan hau Pello Salaburu adiskideari eskaini nahi diogu. Salaburu dago euskaldunok eskura ditugun bi gramatika egitasmo handiren atzean. Batetik, 1997az geroztik Euskaltzaindiaren Gramatika Batzordearen burua den aldetik, bere zuzendaritzapean idatzi da azken bi hamarkadetan *Euskal Gramatika: Lehen Urratsak (EGLU)* (Euskaltzaindia 1991-2011). Bestetik, bere ekimenez eman zen argitara 2011an *Sareko Euskal Gramatika (SEG)* (Salaburu, Goenaga & Sarasola 2011-gaur arte), sarean euskaraz dagoen gramatika bakarra. Euskal sintaxilariok zordun gatzazkio, beraz, eta lan hau gure esker onaren adierazgarria da.

1. Erdiko boza zedarriztatzen

Euskaraz badira zenbait egitura, predikatu iragankor baten gainean eraikitzen diren arren, iragangaiztat har daitezkeenak. Konpara bitez (1a) eta (1b).

(1) a. Argitaletxeek liburuak erraz saltzen dituzte.

b. Liburuak erruz saltzen dira.

(1b) egitura *inpersonalizat* hartu izan da euskal sintaxi modernoan (Ortiz de Urbina 1989, 1991, 2003, 2011-2019; Albizu 1997, 2001). Alabaina, deitura beraren azpian askotariko egiturak jaso direnez, guztien artean sintaktikoki *iragangaiztearekin* (ing. *detransitivization*) zerikusia dutenak, (1b) bezalakoak alegia, gainerakoetatik bereizi nahi izan ditu Urrestarazuk (2019). Hala, *bozarekin* lotu eta *erdiko boz*eko egiturak direla aldarrikatu du, Sailor & Ahn-ek (2010) eta Ahn & Sailor-ek (2014) ingeleserako egindako proposamenetan oinarrituz. Egile hauek boz aktiboa bereizten dute boz *ez-aktibotik*, eta ez-aktiboan bere aldetik boz pasiboa erdiko bozetik. Ingelesezko erdiko bozeko egitura (2b) konpara daiteke boz aktibokoarekin (2a) (Keyser & Roeper 1984: 381) eta boz pasibokoarekin (2c) (Ahn & Sailor 2014).

(2) a. Someone bribed bureaucrats.

(boz aktiboa)

- b. Bureaucrats bribe easily. (erdiko boza)
 c. Bureaucrats are bribed easily. (boz pasiboa)

Erdiko bozeko egiturak zedarriztatzeko, bost ezaugarri nagusi aipatzen dituzte Ahn & Sailor-ek (2014: 4). Lehenik eta behin, erdiko bozeko egiturako subjektua (*bureaucrats* ‘burokratak’) predikatuaren (*bribe* ‘erosi’) barne argumentua da. Bigarrenik, erdiko bozeko egiturak ezin daitezke pasibo bihurtu. Hirugarrenik, kanpo argumentua sintaxitik kanpo dago. Laugarrenik, kanpo argumentu inplizitu bat dute, eta bosgarren eta azkenik, predikatu arazle, ez-estatibo baten gainean eraikitzen dira.

Euskarari dagokionez, Urrestarazuk (2019) dio boz aktiboko zein erdiko bozeko egiturak daudela, (3a) eta (3b) hurrenez hurren –baita (1a) eta (1b)–, eta (3b, 1b) bezalakoek Ahn & Sailor-ek erdiko egiturei egotzen dizkieten lehen lau ezaugarriak betetzen dituztela –itzuliko gara geroago (2. atala) bosgarren ezaugarrira, Urrestarazuk aztertzeke uzten duena–.

- (3) a. Baten batek burokratak erosten ditu. (boz aktiboa)
 b. Burokratak erraz erosten dira. (erdiko boza)

Bestalde, ingelesez ez bezala zeinetan (2c) bezalako egiturak dauden, euskaraz boz pasiborik ez dagoela dirudi, (3b) erdikoa ez, baizik eta pasiboa ez bada behintzat. Izatez, euskal sintaxi modernoan pasibotzat hartu diren egiturak, (4) bezalakoak esate baterako (Euskaltzaindia 1991, 1993; Salaburu & Lakar 2005 beste batzuen artean), ez zaizkie lotzen hizkuntza tipologiak zein gramatika teoriak pasibotzat jotzen dituzten egiturei. Halakoak, beraz, alde batera utziko ditugu –ikus Ortiz de Urbina & Uribe-Etxebarria (1991) azterbide baterako–.

- (4) a. Orduan cumplitua izan cen Jeremias profetaz errana izan cena
 b. Eta an presentatu cioten perlesiaz artu bat goatze batean etzana (Etxenike, *San Mateoren Ebanjelioa*, Salaburu & Lakar 2005: 146)

Aise ikus daiteke ingelesezko (2a) eta euskarazko (3a) egiturak harremanetan daudela. Bietan predikatu iragankor bat dago (*bribe/erosi*), eta espero bezala, bina argumentu ageri dira, hots, subjektu eta osagarria, egile eta gai rol tematikoa jaso dutenak, hurrenez

hurren. Beste alde batetik, (3b) egitura printzipioz ingelesezko boz ez-aktiboko bi egituretako edozeinekin jar liteke harremanetan: edo (2b) erdiko bozoko egiturarekin eta (2c) boz pasibokoarekin. Izan ere, batak zein besteak iragangaiztearekin dute zerikusia: ez dira berez iragangaiztak, predikatua iragankor baten gainean eraikitzen direlako, baina sintaktikoki iragangaiztu egin dira, argumentu bakarreko egiturak sortaraziz. Hori bera esan daiteke baita (3b) egiturari dagokionez: argumentu bakarra dago (*burokratak*), nahiz eta predikatua (*erosi*) iragankorra den. Egitura iragangaiztu hauetan –(2b,c) eta (3b)–, bestalde, argumentuetako bat *goratu* (ing. *promote*) dela dirudi, izatez barne argumentua delako subjektu gunean ageri dena, eta beste argumentuetako bat, zehazki kanpo argumentua, berriz, *beheratu* (ing. *demote*) edo are gehiago, ezabatu. Boz pasiboko (2c) egituran, beheratu den subjektu logikoa ez da esplizituki ageri, baina adjuntu baten bitartez berreskuratu liteke,² *by* preposizioa buru duen sintagma batekin (*by managers*) (5a). Erdiko bozoko egituran, aldiz, badago kanpo argumentu implizitu bat, baina boz pasiboko egituran ez bezala ezin daiteke sintaktikoki *by*-sintagma batez burutu (5b) (Keyser & Roeper 1984: 406). Hori bera esan daiteke (3b) egituraz den bezainbatean, Urrestarazuk dioenez: kanpo argumentua ezin daiteke sintaktikoki berreskuratu (5c). Alde honetatik behintzat (3b) egitura erdiko bozetik gertuago dago boz pasibotik baino.

- (5) a. Bureaucrats are bribed easily by managers. (boz pasiboa)
 b. *Bureaucrats bribe easily by managers. (erdiko boza)
 c. *Burokratak erraz erosten dira managerrez/managerrekin. (erdiko boza)

Gainerakoan, Urrestarazuren ustez (2019), Ahn & Sailor-ek (2014: 4) erdiko bozoko egiturak zedarriztatzeko aipatzen dituzten ezaugarri nagusiak betetzen dituzte. Hasteko, esan berri dugun bezala, erdiko bozoko egiturako subjektua predikatuaren barne argumentua da; beste alde batetik, kanpo argumenturik ezin daiteke sintaktikoki inola berreskuratu, esate baterako, komitatibo edo instrumental baten bidez, eta sintaxitik kanpo dago beraz; azkenik, kanpo argumentu implizitu bat dago (ikus Keyser & Roeper 1984 eta Bhatt & Pancheva 2005 eztabaidarako). Beheko taulan ikus daitezke bi hizkuntzen ezaugarri nagusiak erdiko bozoko egiturei dagokienez.

² Ikus, alabaina, Siewierska (2013).

<i>Erdiko egiturak</i>	<i>ingeleza</i>	<i>euskara</i>
subjektua, barne argumentua	✓	✓
pasiborik ezin osatu	✓	-
kanpo argumentua sintaxitik at	✓	✓
kanpo argumentu inplizitua	✓	✓

1. taula.

Erdiko egituren ezaugarri nagusiak: ingeleza (Anh & Sailor 2014) vs. euskara (Urrestarazu 2019)

2. Erdiko boza: ingeleza, euskara eta beste

Ezaugarriok ikusirik, ez dirudi printzipioz eragozpenik dagoenik (1b) eta (3b) bezalako boz ez-aktiboko egiturak erdikoak direla irizteko. Alabaina, ingelesez bederen erdiko bozoko egiturek badituzte beste zenbait ezaugarri euskaraz itxuraz betetzen ez direnak. Lehenik eta behin, Keyser & Roeper-en (1984) arabera –aurrerantzean, K&R (1984) –, erdiko bozoko egiturak generikoak dira eta ez dute, beraz, gertaera zehatzik adierazten (*ez-ebentiboak* dira); ondorioz, ezin daitezke denbora zehatz bateko gertaerekin lotu –ikus, alabaina, Sailor & Ahn (2010: 6-7). Hala, (6a) ezgramatikala da (K&R 1984: 384). Oso bestela, euskaraz kideko egiturak gramatikalak direla dirudi (6b). Kontuan izan, dena dela, (6b) adibideak aspektu burutua duela, berebiziko garrantzia duena egitura ebentiboa edo gertaerazkoa izateko.

(6) a. ?Yesterday, the mayor bribed easily, according to the newspaper.

b. Atzo udalen osaketan, alkateak erosi ziren, egunkariaren arabera.

Bigarrenik, gertaerarik adierazten ez dutenez, ezin daitezke aginterazko perpausetan ageri (7a) ezta egitura progresiboetan ere (7b). Alde horretatik, predikatu estatiboak bezalakoak dira. Erdiko bozoko adibideak dira (7a,b) eta *know* ‘jakin’ aditz estatibokoak (7c,d) (K&R 1984: 385).

(7) a. *Bribe easily, bureaucrat!

b. *Bureaucrats are bribing easily.

- c. *Know the answer, John!
d. *John is knowing the answer.

Honetan, ez dirudi oso ezberdin jokatzeko dutenik ingelesezko erdikoak eta hemen aztergai ditugun egiturak: murriztapen berak dituzte bai aginterari (8a) bai progresiboari (8b) dagokionez, estatiboek bezalaxe –progresiboaren azterketarako, ikus, Laka (2003, 2006)–. Jakina, (8a) eta (8b) gramatikalak dira, erdiko egitura gisa interpretatzen ez badira.

- (8) a. (*)Eros(i) erraz, burokrata!
b. (*)Burokratak erraz erosten ari dira.
c. *Jakin ezazu erantzuna, Jon!
d. *Jon erantzuna jakiten ari da.

Hirugarrenik, ingelesez, erdiko bozoko egiturak adberbioekin batera agertu behar dira gramatikalak izateko (K&R 1984: 385) –ikus baita Sailor & Byron (2010: 9, 10 oinoharra)–. Alde horretatik ere, euskaraz ez dirudi halako murriztapenik dagoenik.

- (9) a. *Bureaucrats bribe.
b. Burokratak erosten dira.

Ezaugarriok laburbilduta daude beheko taulan, Urrestarazuren (2019) tipologia osatzera datozenak:

<i>Erdiko egiturak</i>	<i>ingeleza</i>	<i>euskara</i>
ez-ebentiboak	✓	✗ / ✓
aginterarik ez	✓	✓
progresiborik ez	✓	✓
adberbioek lagunduta	✓	✗ / ✓
oharmenezko aditza + perpaus txikia	✓	–

2. taula.

Erdiko egituren ezaugarriak: ingelesa (K&R 1984) vs. Euskara

Laburbilduz, euskaraz, Ahn & Sailor-ek (2014) ingelesezko erdiko egiturez aipatzen dituzten ezaugarri nagusiak betetzen badira ere, badira beste zenbait ezaugarri (K&R 1984) betetzen ez direnak. Zorionez, ez da euskara bakarrik ingelesezko erdiko en tipologia horretatik aldentzen dena. Beste hizkuntza batzuetan, hala nola, hizkuntza erromantzeetan, ez dirudi erdikoek ingelesezko kideko egituren ezaugarri berak dituztenik. Adibidez, Ahn & Sailor-ek (2014) lanean, erdikoei egozten dizkieten ezaugarrien artean diote egitura hauek predikatu arazle, ez-estatibo baten gainean eraikitzen direla (ikus 1. atala), eta nagusiki hala dela dirudi. Alabaina, hizkuntza erromantzeetan –eta euskaraz ere hala da–, erdikoak ez dira predikatu arazleetara mugatzen, Hale & Keyser (1988: 51-52) aspaldi samar konturatu ziren bezala. Adibidez, *see* oharmenezko aditza ezin daiteke ingelesezko erdiko bozan erabili (10a), baina gaztelaniaz bai (10b) –eta euskaraz ere bai (10c)–.

- (10) a. *Planets see easily.
 b. Los planetas se ven facilmente. (Hale & Keyser 1988: 51)
 c. Planetak erraz ikusten dira.

Eta frantsesak ere gaztelaniaz eta euskaraz bezalaxe jokutzen duela dirudi:

- (11) La Tour Eiffel se voit de loin. (Ackema & Schoorllemmer 2005)

Beharbada, Hale & Keyser-ek (1988: 51) dioten bezala, hizkuntza erromantzeetako erdiko egituretan ager daitezkeen predikatu sorta handiagoa da ingelesezko predikatuena baino, eta antzekotasuna, erdiko egituren adibide kanonikoetan baino ezin daiteke ikusi.

- (12) a. John cut the bread.
 b. The bread cuts easily.
 c. Juan cortó el pan.
 d. El pan se corta facilmente. (Hale & Keyser 1988: 51)

Euskaraz ere hala dela gaineratuko genuke guk:

- (13) a. Jonek ogia zatitu zuen.
b. Ogia erraz zatitzen da.

Beste alde batetik, erdiko egituretan modifikatzaile adberbialak agertu beharra dagoela eta, ez dirudi hizkuntza guztietan hala denik. Frantsesez, adibidez, ez dago halako murriztapenik:

- (14) a. Ce papier se lave.
b. Cette racine se mange.
c. Cette solution se discute.
(Zribi-Hertz 1982: 348, apud Ackema & Schoorllemmer 2005)

Ezta gaztelaniaz eta euskaraz ere:

- (15) a. Este papel se lava.
b. Esta raíz se come.
c. Esta solución se discute.
- (16) a. Paper hau garbitzen da.
b. Sustrai hau jaten da.
c. Irtenbide hori eztabaidatzen da.

Honi dagokionez, beraz, hiru hizkuntzok ingelesetik bereizten dira:

- (17) a. *This paper washes.
b. *This root eats/consumes.
c. * That solution debates. (Ackema & Schoorllemmer 2005)

Honek guztiak eta orain aipatuko ez ditugun beste ezberdintasun batzuek eraman dituzte Ackema & Schoorllemmer (2005) erdiko egituren artean bi mota bereiztera, hots, 1-motako erdikoak, ingelesaren tipologiari lotzen zaizkionak, hala nola, alemana eta nederlandera, eta 2-motako erdikoak, hizkuntza erromantzeetan jasotzen direnak

adibidez –baita grezieraz, norvegieraz, errusieraz eta serbiera-kroazieraz ere–, eta itxura guztiaren arabera, euskaraz ere baditugunak.

Gainerakoan, argitzeke gelditzen da nola daitekeen euskaraz erdikoan egitura itxuraz bera baliatuz, adieraz daitezkeen ebentiboak diren adibideak, hala nola, (6b). Erdiko egiturak estatiboak dira, ez-ebentiboak alegia. Alde horretatik, (6b) harrigarria da, gertaera bat adierazten duelako (atzoko udal osaketan, alkateak erosi zirela alegia). Momentuz eta geroko lanaren zain, gure susmoa da euskaraz erdikoak adierazteko erabiltzen dugun estrategia bera eskura dagoela, beharbada erdikoak ez diren egiturak ere adierazteko.

3. (Euskal) Boza: erdikoak, inkoatiboak eta arazleak eztabaidan

Orain arte, erdiko egiturak izan ditugu mintzagai. Atal honetan, erdikoak, inkoatiboak eta arazleak harremanetan aztertuko ditugu kontuan hartuz zein predikaturen gainean eraiki daitezkeen. Lehenago ere esan dugunez (ikus 1. atala), erdiko egiturak gramatikalak izateko beharrezkoa da predikatuak kanpo argumentu implizitua izatea. Horregatik, aldaera inkoatiborik ez duten predikatu arazleak (e.g. *atxilotu*) erdiko egiturak osa ditzakete (3.1); aldiz, aldaera inkoatiboa besterik ez dutenek (e.g. *loratu*) ez (3.2). Azkenik, aldaera inkoatibo zein arazlea dituzten predikatuek (3.3) ere erdiko egiturak sor ditzakete.³ Dena dela, bada ezaugarri bat, aldaera inkoatiboa bazterrera daramana eta aldi berean, erdikoa bultzatzen duena, hots, barne argumentuaren biziduntasunik eza.

3.1 Erdikoak eta aldaera inkoatiborik gabeko predikatu arazleak

Erdiko egituren eta arazle/inkoatibo alternantziaren arteko harremana arakatzen dugunean, kontuan hartu behar duguna da erdiko egitura gramatikala izan dadin, predikatuak kanpo argumentu implizitua izan behar duela halabeharrez (Keyser & Roeper 1984; Ahn & Sailor 2014; Bhatt & Pancheva 2005 beste askoren artean). Horregatik, aldaera arazlea duten predikatuek, esate baterako, *legeztatu* eta *atxilotu* predikatuek, zeinek kanpo argumentua duten, erdiko egiturak osa ditzakete inongo eragozpenik gabe. Halakoak sarri aurki daitezke corpusetan, *Ereduzko Prosa Gaur*

³ Lan honetan ez dugu azterbide formalik egingo ezta euskararako proposatu diren analisiak berrikusiko ere. Boz buruak erdiko egituretan duen zereginaz, ikus Urrestarazu (2018); inkoatibo/arazlerako, berriz, ikus Berro et al. (2018).

(EPG) corpusetik (Sarasola, Salaburu & Landa 2001-2007) ateratako adibide hauek erakusten dutenez.

- (18) a. Alderdiak legeztatu behar dira. (*Berría*, G. Izagirre, 2006-05-02)
 b. Zuzenketak bi alde zituen: batetik, bikote(kide) homosexualen arteko ezkontzak ezin legeztatu zitezkeela zioen, eta, bestetik, homosexualak bikote zibilak osatzeko eskubidea zutela. (*Berría*, Erredakzioa, 2004-03-31)
 c. Emakume trafikoaren mafiak legeztatu dira, ez besterik. (*Berría*, A. Iban, 2004-03-05)

(18)ko adibideek, gorago (1. taulan) zehaztu ditugun ezaugarri guztiak betetzen dituzte: lehenik, barne argumentua egitura hauetako subjektua da; bigarrenik, kanpo argumentua sintaxitik kanpo dago, eta hirugarren eta azkenik, kanpo argumentua inplizitua dute. Gainerakoan, euskararen tipologiari zor zaizkion ezaugarriak ere erakusten dituzte – orain arte aipatu ez ditugunak euskaraz aski ezagunak direlako–. Batetik, barne argumentuak, egitura hauetako subjektua denak, absolutibo kasua darama; bestetik, edozein egitura iragangaitzetan bezala, *izan* aditz laguntzailea hautatu da eta barne argumentuarekin komunztadura egiten du absolutibo komunztaduraren bitartez. Inkoatiboek ere egitura iragangaitzak diren aldetik, euskararen kasu eta komunztadurari nahiz aditz laguntzaileari dagozkion ezaugarri hauek berak dituzte. Alabaina, ez dirudi erdikoak eta inkoatiboak gauza bera direnik. Batetik, inkoatibo/arazle alternantzia aztertu denean erakutsi denez, *legeztatu* predikatuak aldaera arazlea baino ez du, eta hortaz, ez du aldaera inkoatiborik (Oihartzabal 2003; Berro et al. 2018). Hala, (19a) ezin daiteke inkoatibotzat hartu, baina bai, ordea, erdiko bozoko egituratzat –horregatik jarri dugu izartxoaren parentesien artean–. (19b) aldaera arazlea da.

- (19) a. (*) Sexu berekoen arteko ezkontzak legeztatzen dira. (*inkoatiboa/erdikoa)
 b. Sexu berekoen ezkontzak legeztatzen dituzte. (arazlea)

Bestetik, erdiko egituren ezaugarri nagusietako bat bada kanpo argumentu inplizitu bat egotea, orduan erraz uler daiteke zergatik ezin daitekeen (19a) inkoatiboa izan: inkoatiboek ez dute kanpo argumentu inpliziturik onartzen.

Gainerakoan, ez da harrigarria aldaera arazlea dugun kasuetan, erdiko egitura ere eskura izatea. Izan ere, goian (1. atala) erakutsi dugunez, erdiko egiturak predikatu arazle baten gainean eraiki daitezke (Ahn & Sailor-ek 2014), eta 1-motako erdikoak dituzten hizkuntzetan predikatu arazle baten gainean baino ez (Ackema & Schoorllemmer 2005). Hortaz, euskaraz arazleak dituzten predikatuetatik espero izatekoa da erdiko egituretan agertzea.

Dena dela, oinarrian predikatu arazle bat izatea ez dirudi nahikoa denik erdiko egitura bat sortzeko. Adibidez, *atxilotu* ere, *legeztatu* bezala, aldaera arazlea duen predikatua da (20b), nahiz eta aldaera inkoatiborik (20a) ez duen:

- (20) a. *Jon atxilotu da. (inkoatiboa)
 b. Poliziak Jon atxilotu du. (arazlea)

(Berro et al. 2018: 18)

Eta printzipioz esango genuke *atxilotu* predikatuarekin erdiko egiturak sor daitezkeela:

- (21) Gazteak erraz atxilotzen dira.

Alabaina, corpusetan ez dugu halakorik aurkitu eta ez dakigu arrazoia zein den. Susmoa dugu, nahiz susmoa besterik ez den, (18a,b,c) eta (19a) adibideetan barne argumentua bizigabea izateak –*sexu berekoen ezkontzak, bikotekide homosexualen arteko ezkontzak* eta abar– errazten duela erdiko bozaren irakurketa, nekezago aurkitzen dena, nahiz eta ezgramatikala ez den, barne argumentua biziduna denean –*gazteak*– (21) adibideetan den bezala. 3.3 atalean ikusiko dugunez, barne argumentuaren biziduntasunak badu eragina erdiko egituraren interpretazioan.

Beste alde batetik, biziduntasunarekin batera, barne osagarriaren zehaztasunak ere eragina du *atxilotu* predikatuaren erdiko egituraren zilegiztatzean. Izan ere, barne argumentua entitate zehatza denean, izenordain zehatza (22) adibidez, erdiko egitura ezgramatikala da; gramatikala da, ordea, barne osagarria zehaztugabea denean (23).

- (22) *Zuek erraz atxilotzen zarete.

(23) Gazte asko erraz atxilotzen dira.

Badirudi, beraz, erdikoetan murriztapenen bat edo dagoela subjektuari dagokionez. Hori ez da, noski, euskarara mugatzen, italiararen ondoko adibide honek erakusten duenez:

(24) *Io mi trasporto facilmente.

ni BIHUR garraiatu erraz

‘Ni garraiatzen erraza naiz’.

(Cinque 1988: 565)

Ackema & Schoorllemmer-ek (2005) euren buruari galdetzen diote ea erdiko egituretako subjektuak hirugarren pertsonakoak izatea ote den subjektuari eragiten dion *biziduntasunaren kontrako baldintza* bat (*anti-animacy condition* diote, hitzez hitz). Jakina, halako baldintzarik edo murriztapenik ez dago inkoatiboetan. Arretaz arakatu beharrekoa da ustezko baldintza hori –erdiko egituretako subjektua hirugarren pertsonakoa delako eztabaidarako, ikus Urrestarazu (2019) eta bere aipamenak–.

3.2 Erdikoak eta aldaera inkoatiboa baino ez duten predikatuak

Erdikoek kanpo argumentu inplizitu bat behar dutela erakusten duen beste ebidentzia bat da aldaera inkoatiboa besterik ez duten predikatuak erdikoetan ezin agertzea. Argi ikusten da hori *loratu* bezalako predikatuetan, hau da, *barrutik arazitako gertakariak* (ing. *internally caused event*) adierazten dituzten horietan (Oihartzabal 2003; Berro et al. 2018).

(25) a. Gereziondoak loratu dira maiatzeko eguzkiarekin (inkoatiboa)

b. % Maiatzeko eguzkiak gereziondoak loratu ditu (arazlea)

c. *Maiatzean hainbat gereziondo loratzen dira (erdikoa)

Beste hainbat hizkuntzatan gertatzen den bezala, barrutik arazitako gertakariak adierazten dituzten predikatuak nekez onar dezakete aldaera arazlea –zentzu metaforikoan ez bada behintzat (Berro et al. 2018)–. Orobat, ezin dute erdiko egiturarik sortu, kanpo argumentu inpliziturik ez dutelako. Horregatik, (25c) ezgramatikala da erdiko interpretazioa emanez gero.

Beraz, erdikoak eta inkoatiboak iragangaitzak izan arren, ez dirudi sintaktikoki egitura bera izan behar dutenik. Erdikoek kanpo argumentu inplizitua dute; inkoatiboek, aldiz, ez. Besterik da kanpo argumentu inplizitu hori nola implementatzen den, sintaxitik kanpo badago. Nolanahi ere den, inkoatiboetan ez bezala, kanpo argumentu hori egon badago.

3.3 Erdikoak eta aldaera inkoatibo zein arazlea dituzten predikatuak

Azkenik, aldaera arazlea zein inkoatiboa duten predikatuak ere erdiko bozoko egiturak sor ditzakete. 3.1 atalean ikusi dugunez, aldaera arazlea duten aditzak erdiko bozoko egituretan ager daitezke oro har; hortaz, ez da harritzekoa aldaera arazlea zein inkoatiboa dituzten predikatuak ere zilegi izatea erdiko bozan.

- | | | |
|------|-----------------------------------|--------------|
| (26) | a. Kristal asko apurtu dira. | (inkoatiboa) |
| | b. Kristal asko apurtu dituzte. | (arazlea) |
| | c. Kristalak erraz apurtzen dira. | (erdikoa) |

Dena dela, erdikoak eta inkoatiboak ez dira ausaz hautatzen. Izan ere, inkoatibo/arazle alternantzia parte hartzen duten predikatu batzuetan, bederen, berriro ere barne argumentuaren biziduntasunak zerikusia du erdikoaren eta inkoatiboaren arteko hautaketan. Har dezagun *ezkutatu* aditza adibide gisa.

- | | | |
|------|--|--------------|
| (27) | a. Umeak eskailera azpian ezkutatu dira. | (inkoatiboa) |
| | b. Andereñok umeak ezkutatu ditu eskailera azpian. | (arazlea) |

Bi adibideotan, barne argumentua biziduna da (*umeak*), baina bizigabea denean (28), aldaera inkoatiboa ez dago eskura, eta bere ordeaz, erdiko egitura baino ezin daiteke eskuratu.

- | | | |
|------|--|-----------------------|
| (28) | a. Dokumentuak erraz ezkututzen dira. | (*inkoatiboa/erdikoa) |
| | b. Dokumentuak erraz ezkutatu dituzte. | (arazlea) |

Hala, (28a) ezin daiteke inkoatibotzat hartu, dokumentuak berez ezkutatu ezin daitezkeelako, eta kanpo argumentu inplizitu bat (politikariak edo beste) dagoela ulertu

beharra dagoelako. Hau da, egitura iragangaitza delarik, predikatua zein den, biziduntasunik ezak zokoratu dezake aldaera inkoatiboa eta erdiko boza bideratu. Dena dela, ez du horrek esan nahi erdiko boza bideratzeko, barne argumentua nahitaez bizigabea izan behar denik.

- (29) a. Gaitz psikologikoak erraz ezkututzen dira. (erdikoa)
 b. Gaitz psikologikoak dituzten gaixoak erraz ezkututzen dira. (erdikoa)

Nolanahi ere den, corpuseko datuetara begira berriro ere, bizigabeak dira barne argumentuak erdiko bozoko egitura askotan, EPGko adibideok erakusten duten bezala.

- (30) a. Jaunak beti ditu aurrean gizakien jokabideak, ez dira ezkututzen haren begietatik (*Elizen arteko biblia*, Askoren artean, Si 17,15)
 b. Gure sukaldean zeuden familiako gainerako guztiak, mahaiaren inguruan, marrubiei hostoak eta txortanak kentzen, hori ari ziren, behintzat, ustez egiten, zeren marrubi gehienak ahoan barrena ezkututzen baitziren, ontzira joan ordez (*Anne Franken egunkaria*, A. Frank/J. Zabaleta)
 c. Ez, gorde egin beharko genukeen, ezkutatu egin beharko zatekeen: toki sekretu eta ilunen batean ezkutatu (*Eraztunen Jauna III*, J.R.R. Tolkien/A. Otxoa, 101 orr.)

Badirudi, beraz, barne argumentuaren biziduntasunik ezak (edo nahiago bada, bizigabetasunik) erdiko bozaren irakurketa errazten duela (eta zenbait kasutan behintzat inkoatiboa oztopatzen), nahiz eta, ikusi dugunez, ez diren halabeharrez bizigabeak izan behar erdiko egituretako barne argumentuak.

4. Ondorioak

Lan honetan, boza duten hiru egitura azertu ditugu: erdikoak, inkoatiboak eta arazleak. Urrestarazuk (2019) erakutsi duenez, euskal syntaxian egitura inperzonalak deiturikoen artean, bereziki iragangaizteari esker sortutakoek erdiko egiturei egotzi izan zaizkien ezaugarri berberak dituzte (Ahn & Sailor 2014). Nolanahi ere, euskaraz erdiko bozoko egiturak ez datoz beti bat ingelesezko erdiko egituren ezaugarriekin; izan ere, euskaraz ez dira halabeharrez predikatu arazleak erdiko boza sortarazten dutenak; erdiko bozak

ez du nahitaez modifikatzaile adverbialik behar, eta azkenik, aspektu markapena aldatzen bada, interpretazio episodikoa ere izan dezake, ingelesez ezinezkoa dena. Badirudi, beraz, euskal erdiko bozak hizkuntza erromantzeetan aurkitzen diren erdiko enantz handiagoa duela ingelesarena baino, eta Ackema & Schoorllemmer-en (2005) tipologian oinarrituz, 2-motako erdiko dela (frantsesa, gaztelania...), eta ez 1-motakoa (ingeleza, alemana...). Azkenik, erakutsi dugu euskarazko erdiko egitura aldaera arazlea duten predikatuen gainean eraikitzen dela, izan inkoatibogabea (e.g. *legeztatu*) izan inkoatiboduna (e.g. *apurtu*), eta ez, ordea, inkoatiboa besterik ez dutenen gainean (e.g. *loratu*). Horrekin lotuta ikusi dugunez, predikatu batzuetan barne osagarriaren biziduntasunak eragina du bozaren interpretazioan; adibidez, *ezkutatu* predikatuan, barne osagarria bizigabea bada, erdiko interpretazioa nagusitzen da, interpretazio inkoatiboaren kaltetan.

Aipamen bibliografikoak

- Ackema, Peter & Maaike Schoorllemmer. 2005. Middles. In Martin Everaert & Henk Van Riemsdijk (ed.), *The Blackwell Companion to Syntax*. vol. 3. Blackwell Publishing. 131-203.
- Ahn, Byron & Craig Sailor. 2014. The Emerging Middle Class. *Proceedings from the 46th Annual Meeting of the Chicago Linguistic Society (CLS 46)*. 357-371.
- Albizu, Pablo. 1997. En torno a la inacusatividad sintáctica de las construcciones impersonales del euskera. *Interlingüística* 8. 13-18.
- Albizu, Pablo. 2001. Sobre la distribución sintáctica de las formas finitas del verbo vasco: condicionamiento léxico y sintáctico. *Julio Urkixo Euskal Filologi Mintegiaren Urtekariaren Gehigarriak (ASJU)* 35 (1). 65-106.
- Bhatt, Rajesh & Roumyana Pancheva. 2005. Implicit arguments. In Martin Everaert & Henk Van Riemsdijk (ed.), *The Blackwell Companion to Syntax*. vol. 3. Blackwell Publishing. 558–588.
- Berro, Ane, Beñat Oihartzabal & Beatriz Fernández. 2018. Inkoatibo/arazle alternantzia euskaraz eratorritzen. In Beatriz Fernández & Ane Berro (ed.), *Euskaratik giza hizkuntzara. Jon Ortiz de Urbinari gorazarre. Fontes Linguae Vasconum* 126. Nafarroako Gobernua. 99-122.
- Cinque, Guglielmo. 1988. On si constructions and the theory of arb. *Linguistic Inquiry*. 19: 521-582.

- Euskaltzaindia. 1991. *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak I* (EGLU I). Bilbo: Euskaltzaindia.
- Euskaltzaindia. 1993. *Euskal Gramatika Laburra: Perpaus Bakuna* (EGLA). Bilbo: Euskaltzaindia.
- Hale, Kenneth & Samuel J. Keyser. 1988. Explaining and constraining the English middle. In Carol L. Tenny (ed.), *Studies in Generative Approaches to Aspect. [Lexicon Project Working Papers 24]*. Cambridge, MA: Center for Cognitive Science, MIT. 41-57.
- Keyser, Samuel Jay & Thomas Roeper. 1984. On the middle and ergative constructions in English. *Linguistic Inquiry* 15. 381-416.
- Laka, Itziar. 2003. Ari progresiboaz: euskararen kasu markak. In Pablo Albizu & Beatriz Fernández (ed.), *Euskal gramatika XXI. mendearen hasieran: arazo zaharrak, azterbide berriak*. UPV/EHU. 111-132.
- Laka Itziar. 2006. Deriving Split-ergativity in the progressive: the case of Basque. In Alana Johns, Dianne Massam, & Juvenal Ndayiragije (ed.), *Ergativity: Emerging Issues*. Dordrecht/Berlin: Springer. 173-195.
- Oihartzabal, Beñat. 2003. Lexical causatives and causative alternation in Basque. *ASJUren Gehigarriak* 46. 223-253.
- Ormazabal, Javier. 2008. Kausatibo aldizkatzeak euskaraz eta inguruko hizkuntzetan. In Xabier Artigotia & Joseba A. Lakarra (ed.), *Gramatika jaietan Patxi Goenagaren omenez. ASJUren Gehigarriak* 51. 643-663.
- Ortiz de Urbina, Jon. 1989. *Parameters in the Grammar of Basque*. Dordrecht: Foris.
- Ortiz de Urbina, Jon. 1991. Deskribapenetik azalpenetara euskal gramatikan. In Adolfo Arejita (ed.), *Euskal Sintaxiaz*. Bilbo: Labayru. 11-27.
- Ortiz de Urbina, Jon. 2003. Impersonal clauses. In José Ignacio Hualde & Jon Ortiz de Urbina (arg.), *A Grammar of Basque*. Berlin: Mouton de Gruyter. 572-591.
- Ortiz de Urbina, Jon. 2011-2019. Aditz inperpersonalak. In Pello Salaburu, Ibon Sarasola & Patxi Goenaga (ed.), *Sareko Euskal Gramatika (SEG)*. [Interneten eskuragarri: http://www.ehu.eus/seg/morf/5/12/2/2#predikatu_inperpersonalak; azken bisita: 2019-06-21]
- Ortiz de Urbina, Jon & Myriam Uribe-Etxebarria. 1991. Participial predication in Basque. *Julio Urkixo Euskal Filologi Mintegiaren Urtekariaren Gehigarriak (ASJU) [Memoriae L. Mitxelena Magistri Sacrum]* 14 (2). 993-1012.

- Sailor, Craig & Byron Ahn. 2010. The Voices in our Heads: the VoiceP in English. In *Morphological Voice and its Grammatical Interfaces*. esku-orriak, University of Vienna.
- Salaburu, Pello & Maite Lakar. 2005. *Baztango mintzoa: gramatika eta hiztegia*. Nafarroako Gobernua & Euskaltzaindia.
- Salaburu, Pello, Patxi Goenaga & Ibon Sarasola. 2011-gaur arte. *Sareko Euskal Gramatika*. [Interneten eskuragarri: <https://www.ehu.eus/seg/>; azken bisita: 2019-06-24]
- Sarasola, Ibon, Pello Salaburu & Josu Landa. 2001-2007. *Ereduzko Prosa Gaur* (EPG), UPV/EHU, Euskara Institutua. [Interneten eskuragarri: <http://www.ehu.eus/euskara-orria/euskara/ereduzkoa/>]
- Siewierska, Anna. 2013. Passive constructions. In Matthew Dryer & Martin Haspelmath (ed.), *The World Atlas of Language Structures Online*. Leipzig: Max Planck Institute for Evolutionary Anthropology. [Interneten eskuragarri: <https://wals.info/chapter/107>, azken bisita 2019-06-24]
- Urrestarazu, Iñigo. 2019. *Nire barruko Setatsua: (euskal) boza eta erdiko egiturak*. Gradu Amaierako Lana. UPV/EHU.
- Zribi-Hertz, Anne. 1982. La construction ‘se-moyen’ du français et son statut dans le triangle moyen-passif-réfléchi. *Linguisticae Investigationes. International Journal of Linguistics and Language Resources* 6. Amsterdam/Philadelphia : John Benjamins. 345-401.

Coreference and antecedent frequency effects in Spanish: An eye-tracking study¹

Nerea Egusquiza

Adam Zawiszewski

University of the Basque Country (UPV/EHU)

Abstract

In this paper, we explore the nature of the antecedent representations involved during anaphoric pronoun resolution in Spanish. We assume a serial, anaphoric lexical access account derived from the speech production model of Jescheniak and Levelt (1994); Levelt et al. (1999) and use word-frequency effects in order to investigate whether antecedent representations vary across languages during coreference resolution by testing Spanish native speakers and comparing our results to those obtained previously in English and German. We report and discuss the results from an eye-tracking while reading experiment in light of the current hypotheses.

1. Background

Sentence comprehension requires immediate access to the mental lexicon, where conceptual, grammatical and lexical information is stored. We say that speakers understand a sentence, a text or a discourse when they have an accurate mental representation of it. Needless to say, the longer the text or the speech, the more likely will be to find expressions referring to previous entities in the discourse. Anaphoric pronouns belong to this class of referential expressions which depend on the lexical properties of their referent or *antecedent* for interpretation. Evidence from agreement studies in Spanish, Italian, French and German shows that anaphoric pronoun resolution

1 This research was supported by the Basque Government (IT1169-19; BFI-2012-219).

involves retrieving grammatical gender information from its antecedent representation in memory (Garnham et al., 1995; Di Domenico and De Vicenzi, 1995; Cacciari et al., 1997; Irmen and Knoll, 1999; Arnold et al., 2000; Rigalleau et al., 2004; Hammer et al., 2007). Nevertheless, as suggested by Meyer and Bock (1999), antecedent representations could, in principle, differ qualitatively across languages based on the kind of information needed to mediate coreference. It might be the case that in languages like English, for instance, discourse/conceptual information will suffice to interpret anaphoric pronouns (Hankamer and Sag, 1976; Sag and Hankamer, 1984; Cloitrew and Bever, 1988; Lucas et al., 1990). Hence, it is unclear what kind of antecedent representation is retrieved during anaphoric pronoun resolution and whether it is language specific or not.

Here, we adopt a serial, two-stage, activation-based, lexical access model derived from the speech production model of Jescheniak and Levelt (1994); Levelt et al. (1999), which suggests that lexical entries store information at two separate levels: grammatical and semantic information at the lemma level and orthographic and phonological information at the lexeme level. Evidence for a separate access to each informational layer during processing comes from a translation latency task where Jescheniak and Levelt (1994) found that homophones (words that only share the lexeme) inherited the lexical frequency of their control pairs – a word frequency effect which suggests that the locus of the effect lies at the lexeme level (see also Laubstein, 1999, Laubstein, 2002; for a dissenting view, see Bonin and Fayol, 2002; Finocchiaro and Caramazza, 2006; Navarrete et al., 2006).

In order to investigate what kind of antecedent representation is retrieved during pronoun processing in Spanish, we use the *word-frequency effect*, which is one of the most robust phenomena in experimental psycholinguistics. It refers to the fact that frequently used words are processed faster and more accurately than infrequent ones. High-frequency words yield faster responses in reading (Rayner and Duffy, 1986), lexical decision (Schilling et al., 1998) and picture naming tasks (Oldfield and Wingfield, 1965; Almeida et al., 2007). Furthermore, data from brain damaged patients suggest that high-frequency words are preserved more often than low-frequency words (Dell, 1990; Colangelo et al., 2004; Knobel et al., 2008) and that speakers experience less tip-of-the-tongue states with high-frequency words (Brown, 2012; Gianico, 2010;

Vitevitch and Sommers, 2003). Although all these observations suggest a processing advantage for high-frequency words compared to low-frequency words during lexical access, it remains an open question whether anaphoric pronoun resolution depends on the lexical frequency of the antecedent.

2. Hypotheses

In order to account for the results found in previous literature, three hypotheses have been proposed: the *full re-access account*, the *lemma re-access hypothesis* and the *saliency account*.

The *full reaccess account* states that pronoun comprehension is similar to lexical access for non-anaphoric words: readers will retrieve the same information from the antecedent as when they first accessed to it. Hence, it predicts that the lexical frequency of the antecedent should be transferred to the anaphoric pronoun. This effect has been observed in language production tasks. Navarrete et al. (2006), for instance, reported faster naming latencies for sentences containing a pronoun with a high-frequency antecedent noun than with a low-frequency antecedent noun. Similarly, participants tested by Finocchiaro and Caramazza (2006) elicited faster pronominal clitic production latencies when the replaced noun was highly frequent.

The *lemma-reaccess account*, however, assumes that pronoun processing differs from non-anaphoric lexical access in that there is only partial re-access to the antecedent representation in memory; more specifically, to its lemma, where grammatical and semantic information is stored (Simner and Smyth, 1998). Based on evidence from speech production showing that the word frequency effect lies at the lexeme (Jescheniak and Levelt, 1994), the lemma reaccess account predicts that pronouns referring to low-frequency nouns should not be harder or easier to process than those linked to high-frequency nouns (Simner and Smyth, 1999). In a series of experiments carried out by Simner and Smyth (1999), participants read English sentences containing a pronoun whose antecedent had been previously presented in picture form. The lexical frequency of the depicted noun was either high or low. Simner and Smyth found that reading times for sentences containing a pronoun were unaffected by the lexical frequency of the antecedent. Further evidence supporting this account comes from Lago (2014), where she manipulated the lexical frequency of English common and proper noun antecedents

in two eye-tracking experiments and concluded that low-frequency antecedents had no additional cost compared to high-frequency antecedents during pronoun resolution.

The *saliency account* challenges any null antecedent frequency effect. Van Gompel and Majid (2004), for instance, ran an eye-tracking study in which participants read sentence pairs in English containing a pronoun referring to a high or low-frequency antecedent. Pronouns with low-frequency antecedents elicited shorter reading times at the post-anaphoric region in first-fixation, first-pass and total reading times measures. The authors explained their reverse word-frequency effect in terms of saliency (Pynte and Colonna, 2000): infrequent words tend to have rather unusual –salient– features and their processing is thus more costly compared to that of high-frequency words, as evidenced by the word-frequency effect in nouns. The investment of additional attentional resources on infrequent words increases their probability of being better encoded in long-term memory (Garnham et al., 1996; Malmberg and Nelson, 2003; Foraker and McElree, 2007) and, consequently, low-frequency words are recognized more quickly than high-frequency words (O’Brien and Myers, 1985; Glanzer and Adams, 1990; Shiffrin and Steyvers, 1997; Garnham, 2001; Malmberg and Nelson, 2003; Nicol and Swinney, 2003). The *saliency account* predicts that word saliency determines faster processing when pronouns refer to low-frequency antecedent nouns. Further evidence supporting this account comes from the EEG study in Heine et al. (2006b), where pronouns referring to high-frequency antecedents elicited a larger P300 component than those referring to low-frequency antecedents in German, suggesting a higher processing cost for the former (see also Heine et al., 2006a).

The three accounts described above make different predictions. The *full reaccess account* predicts the same effects in nouns as in pronouns, i.e. faster reaction times with pronouns referring to high-frequency words than with pronouns referring to low-frequency words. The *lemma-reaccess account* predicts no frequency effects, whereas the *saliency account* predicts a reverse frequency effect, with faster processing for pronouns referring to low-frequency words.

3. Exploratory research

Previously, in Egusquiza et al. (2016), we reported two self-paced reading tasks showing that pronoun resolution in Spanish was affected by the syntactic role of the

antecedent noun, but unaffected by its lexical frequency, in support of the lemma-reaccess account. The reliability of our results was evidenced by the fact that the frequency manipulation was strong enough to replicate the word-frequency effect in the antecedent regions as well as in the control conditions. Nevertheless, the self-paced reading method might not have been sensitive enough to detect any antecedent frequency effects during pronoun processing. Therefore, in the present study, we opted for eye-tracking, a methodology with a higher temporal resolution and which makes reading more natural than self-paced.

4. The present study

The aim of the present study is to examine the nature of the antecedent representations involved during anaphoric pronoun resolution in Spanish by manipulating the word frequency of the antecedent noun in an eye-tracking experiment. Two factors were crossed: lexical frequency of the antecedent (high vs. low) and anaphor type (pronoun vs. repeated noun). *Repeated noun* refers to the noun phrase control condition where the antecedent was repeated in order to pre-empt a null frequency effect across conditions. Based on Rayner et al. (1995), frequency effects should persist at repeated noun phrases. We considered three hypotheses in our study: (i) faster reading times for pronouns referring to high-frequency antecedents (*full reaccess account*); (ii) no antecedent frequency effects for pronouns (*lemma-reaccess account*); (iii) faster processing for pronouns referring to low-frequency words (*saliency account*).

5. The eye-tracking experiment

The underlying initial assumption in eye-tracking studies is that eye movements are strongly linked to cognitive processing (Just and Carpenter, 1980; cf. Anderson et al., 2004). Reading times are interpreted as an index of language processing effort; with longer reading times (and more fixations) revealing processing difficulty compared to faster reading times (and less fixations), much as in self-paced reading tasks. Eye-movement data, however, offer a more detailed map of what happens during online sentence comprehension. Regressions (i.e. re-reading earlier parts of a text), for instance, cannot be captured in self-paced reading tasks and are interpreted as a sign of language processing difficulty at the discourse/semantic integration levels. Despite its higher temporal resolution compared to self-paced reading, eye-tracking while reading shows higher data loss rates due to word skipping and blinking (Rayner et al., 2011),

among other factors. The method provides highly accurate information about where readers look, for how long they gaze and how many eye fixations they make in a region.

6. Methods

Participants

A set of twenty-two native speakers of Spanish (twelve women), ages 18-24 (SD = 1.96), who had not participated in Egusquiza et al. (2016), were recruited from the University of the Basque Country (Vitoria-Gasteiz campus). All participants had normal or corrected-to-normal vision. Two of them were excluded from further analysis because their data accuracy was below 70%.

Materials and Design

Analitikoak (= ad. jokatu gabea + ad. laguntzaile jokatua)	EKAR dezaket/ EKARRI dut/ EKARTZEN dut/ EKARRIKO nuke

Forma sintetikoa duten aditzak ereapur batzuk baino ez dira: *egon, etorri, ibili, joan* eta beste bakarren batzuk, tartean ‘defektibotzat’ edo har litezkeenak: *erion, etzan, jarraiki* bereziki. Iragankorrak gehiago dira baina hauek ere urriak: *eduki, ekarri, erabili, eraman, eroan, *io, jakin* bereziki, eta *entzun, iritzi, erran, ezagutu, ihardun, iharduki, ikusi, iraut, irudi* defektibotzat har litezkeenak seguru asko.

5. Moduaz, aldiaz, eta aspektuaz

Adizki jokatuetan biltzen den informazioa aditz *erroari* dagokiona dabatetik. Aditz bakoitzaren eduki lexikoa honek ematen du: *dator/ etorri da* diogunean –tor- erroa ageri da, *etorri* aditzaz ari baikara. Eta *dakar/ekarriko zuen* adizkietan berriz –kar- erroa dugu. Oraingoan *ekarri* aditzaz ari gara, noski.

Erroaz gainera, *aspektuari, moduari* eta *aldiari* dagozkion *flexio* markak biltzen dira adizki bakoitzean. Eta perpauseko *subjektu* eta *objektu* gisa parte hartzen duten sintagmekiko *komunztadura* ere bai.

Adizki sintetikoetanez dago aspektu markarik. Alegia, *dena DAKI* edo *berehala NATOR* diogunean, aspektu markarik gabeko adizkien aurrean gaude. Aldiz, *egunero etortzen da* edo *ongi ikasi duzudiogunean*, lehenbizikoak *aspektu burutugabea* adierazten du, bigarrenak, *aspektu burutua*. Baina *etortzen* eta *ikasi*-ren parean *ikasiko (<ikas-i-ko)/etorriko (< etorr-i-ko)* ere hor ditugu. Eta inolako aspektu markarik ez dutenak ere baditugu: *ikas* eta *etor* adibidez. Hortaz, *lau aukera* ditugu aspektuari dagokionez:

(9)

aspektua	erroa	aldia		
		[+oraina]	[+iragan]	[-oraina-iragana] 'balizkoa'
aspekturik ez	-TOR-/ -IZ-	DATOR/ DA	ZEN/ZETORREN	LETOR
		DATORKE	ZETORKEEN	LETORKE
	ETOR/IZAN JAKIN/*EDUN	DADI-/ DEZA-	ZEDIN/ ZEZAN	LEDI-/ LEZAN
		DAITEKE/ DEZAKE	ZITEKEEN/ ZEZAKEEN	LITEKE/ LEZAKE
[+burutua]	ETORRI/ IZAN	DA/ DU	ZEN/ ZUEN	ba-Litz
[-burutua] 'burutzekoa'	EKARRI /*EDUN ETORTZEN/I ZATEN/ EKARTZEN/I ZATEN ETORRIKO/I ZANGO EKARRIKO/I ZANGO	DATEKE/ DUKE	ZATEKEEN/ ZUKEEN	LITZATEKE/ LUKE

Modu horretan aurkezten ditu, funtsean, adizkiok Euskaltzaindiaren *EGLU II*-k. NENTORREN/ba-NENTOR// ZETORREN/ba-LETOR... adizki 'bixkiak' dira, nolabait esateko. Ezagun dute aurpegian, morfologian, alegia:lehen pertsonaz (NI) ari garelarik N- agertuko zaigu bai*iraganean* bai *balizkoan*. Hirugarren pertsonaz ari

bagara, berriz, ø ‘agertuko’ da pertsona-komunztadura marka gisa. Baina batean –EN agertzen den bitartean, besteetan ez da holakorik ageri.

Modu berean, ZEN/ba-LITZ// ZIREN/ba-LIRA adizkiak. *Zetorren, nentorren, zen, ziren* iraganeko formak dira: *letor, banentor, balitz, balira...* ez dira orainaldikoak ez eta ere iraganaldikoak. Erraz onar daitezke honako esaldi hauek: *bihar baletor, serioagoak balira...* beste hauek, berriz, nekez: **joan den urtean baletor, *lehenago serioak balira*. Hauen aldi-balioa gorabehera, EGLU-n ‘alegiakotzat’ ematen dira. ‘Supositibo’ deitura ere erabili izan da noizpait gure gramatiketan. Inoiz pentsatu dut ‘menturazko’ ere erabil litekeela. Edo, beharbada, ‘balizko’ balioa duela esan genezake. Horregatik, azkenean termino honen alde egingo dut (cf. *Balizko oleak burdiarik ez*). Balizko kontuez dihardugunean erabiltzen ditugu, izan ere. Uste dut azken batean *alegiakoz* baino egokiago dela *balizko* hau. Hortaz, aspektuari dagokionez lau aukera eman diren bezala, aldiari buruz bereizketa hirukoa da. Alegia, *hiru aldi* izango genituzke.

Bestalde, forma beretan oinarri hartuta bestelako adizki batzuk ‘atera’ ditzakegu. Bereziki, hor goiko hirukote horri –(te)ke morfema erantsirik ahalezkoak edo geroaldiko formak sortzen zaizkigu:

- (10) a) da-->daTEke/dator --> datorke/daki --> dakike...
 b) zen --> zatekeen/ zetorren --> zetorkeen/ zekien ---> zekikeen
 c) litz --> litzateke/letor --> letorKE/ litz ---> litzateke.

Ezari ditugun taula hauek laburbiltzen ahal dute adizki sintetikoaren jokoak. Morfologiari begira, bi multzo nagusi ditugu: DA/DU saila lehenbizi, orainaldiari dagokiona. Honen ezaugarri morfologikoak begien bistan ditugu: irregulartasun batzuk gorabehera, denetan elementu berak aurkitzen ditugu. IZAN-en irregulartasuna nahikoa nabarmena da, nolana ere. Normala, horixe baita maiztasun handiena duen aditza, corpusen azterketa arrunt batek bistaratzen ahal duen bezala. Erabiliena bera da eta erabiliena izaki, ez da harrizkoa historian zehar aldaketa zenbait jasan izana. Eredu gisa jarri dugun etorriaditzak ongi erakusten dunola osatua den: IZAN eta *EDUN-en kasuan erroa, esate baterako, askoz itxuraldatuago dagoela ematen du. Dena dela, hauek ere ‘gordetzen’ dute nolabait adizki guztien taxu bera.

Eskema berean sartzen ahal ditugu adizki jokatu guztiak. Aditz jokatuak, sintetikoak nahiz analitikoak, sar daitezke eskema honetan.

*EDIN/*EZAN aditz laguntzaile jokatuak ere berdin lan egiten dute. Koadroan argi ageri zaigu.

Adizki hauei erreparatzen badiegu, argiro azalduko zaigu zein den osaera. DA/NAIZ (< izan) eta DU/DUT (< edun) bikoteak dira, seguru asko, maiztasun handiena dutenak corpusetan. Alegia, horiexek direnez euskaldunon ahotan maizenik gertatzen direnak, historian zehar aldaketa handienak jasan dituztenak ere bai. Horrenbestez, norbaitek pentsa lezake ez direla hain gardenak. Erabat erregularrak diren formak badira ordea bste aditz batzuen kasuan, adibidez, ETORRI edo EGON aditzaren kasuan: hauen orainaldian, -TOR- / -GO- erroaageri-agerikoa da: dator < da-TOR; nator < na-TOR; hator < ha-TOR; gatoz < ga-TO-Z; dago < da-GO; nago < na-GO. IZAN aditzaren kasuan gauza ez dago hain agerian: da < da-ø; naiz < na-IZ; haiz < ha-IZ, haiz < ha-IZ, baina gara < ga-RA, zara < za...

*EDIN/ *EZAN laguntzaileek ere kontraste-bertsuak erakusten dituzte egiturari Dagokionez. Hirugarren pertsona singularra hartuko dugu kontuan

hori gerta da-di-n	hori gerta ze-di-n	hori gerta ba-le-di- ai-ledi gerta
hori egin de-za-n	hori egin Ze-za-n	hori egin ba-Le-za- ai-LEZA egin
hori gerta da-i-teke	hori gerta ZI-teke-en	hori gerta LI-teke
hori esan de-za-ke	hori esan ze-za-ke-en	hori esan le-za-ke

Hortaz, euskal aditz laguntzaileak ere betetzen du aditz sintetikoen funtsezko egitura, sintetikoak baitira laguntzaile direnean ere.

Jakina, eskema honek badu bere konplexutasuna, baina adizki guztiek eskema berari erantzuten diote. Horretan jarri behar lukete arreta euskara ikasleek eta irakasleek. Eta mamuak uxatu.

Morfologiari dagokionez, aditz jokoaren konplexutasunagaztelaniazeta euskarazki pareko dela esango nuke. Hala ere, euskarak badu alde on bat: sintetiko gisa jokatzen duten aditzak gutxi batzuk besterik ez dira, laguntzaileak barne. Aldiz, nolabait gure adizki sintetiko urrientaldean (*nator, daki, dabilta, daramagu...*) askoz gehiago dira gaztelaniazkoak, hemen aditz guztiek joka baitezakete nolabait ‘sintetiko’ gisa (*vengo, sabe, andan, anduvimos, llevamos, lleve, crecieron, dijera, compraríamos...*) euskaraz ez bezala (*hazi ziren, esango banu, erosiko genuke...*)

Gaztelaniazko gramatiken arabera, aditz morfologian erroa eta desinentzia bereizten dira. Euskaraz ez dugu desinentziaz hitz egiten, hitzaren ‘amaiera’ baita ‘desinentzia’ hori, adizkiaren eskuin muturrean doana. Euskaraz adizkion atalkatzea egiten dugunean, erroa ez doa hasieran, erdian doa nolabait. Hortaz, desinentziaz ez hitz egiteak badu arrazoia. *Caminábamos* aditzaren erroa *camín-* bada, honi eransten zaiona da desinentzia: *camínábamos* < *camín-a^{vt}-batm-mos^{pn}*. Desinentzia honetan biltzen da aditz jokatuaren flexioari buruzko informazioa: a) *vt* ‘bokal tematikoa’: *camínar* aditzaren kasuan, -a, *temer*-n kasuan, -e, *servir*-enean, -i; b) *tm* ‘denbora eta modua’; *pn* ‘pertsona eta numeroa’. (RAE 4. Atala)

Konplexutasunaren aldetik, *camínábamos* aditzaren analisiak ez dio enbidia handirik euskal aditz jokatueieskaini ohi diegun analisiari. Ingelesarenak ere ez, bere sotiltasunean. Euskaraz bokal tematikorik ez denez, edozein aditzek berdin balio digu, baldin eta jokabide sintetikoa onartzen badu. Har dezagun, esaterako, *ibili* aditzaren forma bat: *genbiltzan* < *g-en-bil-tza-n*. Adizki honen atalkatzea eginez gero, euskal aditzak gaztelaniazkoak baino atal bat gehiago duela ohartuko gara: *g₁-en₂-bil₃-tza₄-n₅*. Izan ere, gaztelaniazko *camínábamos* aditzean bertan ere, morfema bera bikoitza da: -*mos*-ek pertsona eta numeroa ‘biltzen’ ditu. -*ba*- morfemak ere denbora eta modua (eta aspektua) ‘biltzen’ dituen bezala. Elkarren parekotzat har litezke, dena dela, nahiz eta hemen ere euskarak ‘alderantzizko’ hurrenkerara behartzen gaituen. ‘Desinentzia’ delako hori, gure kasuan, erroaren ezker-eskuin kokatua ageri da: *g-en-bil-tza-n*. Hori bai diferentzia, baina konplexutasuna, bertsua. Morfemen hurrenkerak eta kokaguneak goian eman dugun sintagmaren kasuan bezala, kontraste bera erakusten dute. Hemen ere, morfemak nonbait kokatu behar direnez eta nahaste-borraste ezin direnez ezarri, beren lekua izan behar dute.

Euskal aditzaren aldean gaztelaniazkoak badu arazo bat, hala ere. Zeren euskaraz aditz jokatuak bi multzotan banatzen direla ikusi dugu: a) *adizki sintetikoak* (*naiz, nator, geundeke... , dugu, dakigu, lekarke...*), eta b) *adizki analitikoak*, adizki jokatu batez eta aditz laguntzaile jokatu batez osatuak. Euskaraz, adizki sintetiko tankeran erabiltzen direnak guxi batzuk baino ez dira: hauetako batzuk (*EZAN eta *EDIN) laguntzaile gisa erabiltzen dira. Gaztelaniaz, aldiz, denak erabiltzen ahal dira aditz ‘soil’ gisa, sintetiko gisa alegia: *veníamos, temisteis, cantaríamos...* nahiz analitiko edo konposatu gisa: *habíamos venido, habéis temido, hubierais cantado, habríamos protestado...* Gainera, aditz hauetako asko irregularrak dira: *caminar* ->*caminasteis* vs *andar* ->*anduvisteis*; *temer* ->*temióvs* *placer* ->*plugo* etab. Euskarak holakorik ez.

EGLU II-k proposatzen duen aditzaren egitura hirukoitz horren jatorri zuzena Allieresen (1983) proposamena da eta honen azpian Lafitte-rena (1944) dago. Morfologianoinarritua da ez semantikan². Arazoa, batez ere hirugarren zutabeko adizkietan dago. Zer da subjuntiboa, adibidez? Lafittek behin baino gehiagotan aipatzen du bere gramatika ospetsuan halako formak frantsesez subjuntiboa deitzen zaion horren itzulpen direla, baina berariaz ez du subjuntiborik aipatzen euskararentzat. Gogoan dut ikasle aleman batzuk nola etorri zitzaizkidan behin gaztelaniazko ikastaro bati buruz galdezka. Haien kezka nagusia, aitortu zidatenez, gaztelaniazko subjuntiboa ikastea zen. Buruko min handia ematen zien nonbait. Subjuntiboa zer datekeen ez da ulertzen erraza, ez eta zein balio semantiko duen ere. Ez dago garbi euskaraz subjuntiborik baden edo behar ote den ere. EGLU-n ez da jasotzen, EBE-n bai. Alboan gaztelania bezalako hizkuntza bat dugularik, ihes ezin egin diogun kontzeptu bat da subjuntiboa. Euskaraz subjuntibotzat hartzen dira *etor dadin, etor dadila/ egin dezan, egin dezala* moduko aditzak. Forma hauek, ordea, [aditza + beste zerbait] ere badira: hor dute eskuinean -en/-ela konplementatzailea ***edin**/***ezan** aditz laguntzaileari

² Hain zuzen, Allieres-ek lanaren hasieran honela dio: “On peut distinguer trois principaux types d'erreurs parmi celles où ces auteurs sont tombés. (...) Seconde fausse manoeuvre: légiférer sur le verbe basque en general en prenant pour base exclusive de référence un système local. Et l'inconvénient d'une telle pratique s'aggrave si vient s'y joindre un autre choix néfaste: celui de définir les divers tiroirs verbaux en termes sémantiques plutôt que morphologiques. En effet, comme le même type de formation peut revêtir selon les régions des valeurs et des fonctions différentes, on perd de vue le lien qui unit morphologiquement les divers systèmes locaux en un ensemble à peu près homogène partout, compte tenu des particularités d'usage ou des phénomènes de supplétion propres à chaque localité ou ensemble dialectal.

itsatsirik. Baina berez, *etor dadila/egin dezaneta etorri dela/ egin duela* bezalakoxeak dira. Diferentzia bakarra aditz laguntzailean eta adizki ‘nagusian’ daukagu: {*etorri/etorriko/etortzen*} *da/*dadin* vs *etor* {**da/dadin*}. Alegia, *edin/ezan* laguntzaileek aspektu markarik gabeko aditz bati itsasten zaizkio. Aldiz, *ukan/izan*, aspektu marka duenari. Hori morfologian argi dago. Baina honek zer esan nahi du? aspektu markarik ez duen oro subjuntiboa dela? Ezin hori esan, zeren ahalezko adizkiek ere ezaugarri horixe dute: *etor daiteke* baina {**etorriko/*etortzen/*etorri*} *daiteke*. *Datorrela hurrengoa, goazen kalera* diogunean eta *etor dadila hurrengoa, joan gaitezen kalera* diogunean ere berdin. Morfologiaren ikuspegitik ez dago alde handirik *joan gaitezen* eta *goazen*-en artean aditz bera dugu. Diferentzia atzizkian dago. Atzizki hau, bistan da perpaus osagarrietan erabiltzen dugun bera da. Hots: *Allieres*-en ikuspegia zuzena da. Arazoa da ez dakigula zer den juxtu subjuntiboa. Dakigun bakarra da beste hizkuntzetako subjuntibo deituei modu batera edo bestera parekoak aurkitzen ahal ditugula, eta gainera ordain horiek ez direla beti bat eta bera izaten.

Horregatik, EGLU-II –n paradigmetan ez da jasotzen *subjuntibo* hitza. Dena dela, euskara gaztelaniarekin eta beste hizkuntza askorekin alderatuta, nekez esango dugu besteak baino konplexuago denik alde honetatik. Baina bai, nire gazte alemaniar haien kezka ikusita, subjuntiboaren erabilera.

Terminologia ere aski nahasia gertatzen da, euskaraz bakarrik ez, hala ere. –*edin*- eta –*ezan*- aditz laguntzaileen gainean eraikitako formei ‘subjektibo’ deitzen die Allières-ek eta **edun/ izan*-en gainean eraikiei berriz, ‘objektibo’. Hau ere, beharbada, hankamotz gelditzen da baina bide zuzenetik doala esango nuke, indikatibo/subjuntibo bereizketa baino. Nolanahi ere, EGLU-ko taulan formen banaketa argia dela uste dut. Baina taula horretako zein ‘laukitan’ kokatu beharko genuke subjuntiboa? Garbi dagoena da lau laguntzaileek adizki jokatu gabe desberdinekin elkartzen direla: erro soila (*etor/lagun...*) **EDIN* eta **EZAN* laguntzailea hautatzen dute. Beste hirurek DA/DU. Mais le problème qui se pose est celui de leur dénomination, car là presque chaque descripteur a créé son propre vocabulaire fondé sur la sémantique (...) la terminologie reste souvent hésitante et mal adaptée parce que toujours plus ou moins rattachée aux usages romans.” (Allières xxx orr.). Honen ondorioz, morfologian oinarritutako

sailkapenaproposatzen du. Euskaltzaindiaren paradigmek ere bide horrisegitu beharko liokete. Garbi dago, dena dela, gaztelaniazko sistemak ez digula asko laguntzen. Subjuntibo deitura horrekin ezagutzen ditugun aditzak ez dira mota berekoak euskaraz eta gaztelaniaz. Hona hemen adibide batzuk, non euskarak eta gaztelaniak gehienetan bat egiten ez duten:

- (6) a. No conozco a nadie que *haya leído* ese libro.
 a'. Ez dut liburu hori *irakurri duen* inor ezagutzen
 b. Pocos alumnos habrá que *hayan aprobado*.
 b'. Ikasle gutxi izango dira *gainditu dutenak*.
 c. Se necesita secretario que *sepa* inglés.
 c'. Inglesez *dakien* idazkari bat behar da.
 d. La próxima vez que *venga*, te haré una visita.
 d'. Hurrena *natorrenean*, bisita bat egingo dizut. ehar
 e. Si *hubiéramos* tenido tiempo, *hubiéramos* ido a visitarte.
 e'. Astia *izan bagenu*, zu ikustera joango ginen.

(ikus Porto Dapena, J. (1991), 240 eta hurr.)

Gauzak horrela, tentu guztiarekin jokatzearabaki zuten EGLU II-ren egileek. Han egiten zen proposamen bat, badaezpadakoa beharbada, baina bidezkoa, nire ustez. Testu liburuetan ere jaso izan da (ik. J. Butron & J. De Pedro (1988): 127 eta hurr.), Gramatika Batzordeari baimena eskatuta, gainera.³

6. Pertsona/numero komunztadura eta abar

Hona hemen euskal aditzaren egiturari dagokion beste mamua: subjektuaren pertsona-numero komunztadura nahikoa ez, eta objektu zuzenarekin eta zehar-objektuarekin ere komunztadura egin behar. Hizkuntza ikasteko ahaleaginean ari denarentzat zailtasun bat gehiago. Baina ondo pentsatzen jarrita, gure inguruan eta gure artean nagusi eta harro dabilzan beste hizkuntzetan, gaztelaniaz esaterako, antzeko zerbait gertatzen dela esango nuke izenordain klitikoekin. Eta inor ez da asaldatzen horregatik. R.A.E-ko

³ Harrigarriago egiten da, ordea, aurtan bertan, Euskaltzaindiaren “ehuntzea” ospatzeko kaleratu den *Euskara Batua Eskuliburuan (EBE)* noizbaiteko aurkezpen zaharrarekin jarraitzea (514-522 orr.) oharririk txikiena ere egin gabe gauzen zergatia azaltzeko. Eta hori, bibliografian, EGLU II oinarriko erreferentzia gisa aipatzen dutelarik.

gramatikak orrialde mordoia eskaintzen dio kontu honi. Bestalde, klitiko horiek maiz beharrezkoak dira, R.A.E-k dioen bezala. Hain zuzen, euskaldun askori, ustez dotoreantzean erdaraz mintzo direlarik, ateratzen zaizkie holako batzuk, behar den klitikoa ‘irentsiz’. Adibidez: “*Cómprameel periódico*” eskari/agindu edo dena delakoari erantzunez: “*No te he comprado; luego te compraré*” moduko erantzuna aski ohikoa da. Hala ez balitz, RAE-ko gramatikaren egileek ez zuketzen honen aipurik egingo.⁴ Dena dela, espainol estandarrean, honela behar luke erantzun horrek: “*No telo he comprado; luego telo compraré*”. Gaztelaniazko *te-lo-he comprado* hitz-segida eta gure *erosi dizut* aditza (<eros -i+d-i-zu-t)gauza bera ez badira, gutxi falta zaie. Gaztelaniaz ari garenean *te-lo-h-e comprado* gertatzen zaigun bezain arrunta, hain zuzen.

Jakina, erantzuna berehala etorriko zaigu esanaz hor pertsona eta numero informazioa hitz bakarrean ematen zaigula euskaraz eta gaztelaniaz hirutan. Ahoskerak ordea beste zer bait adierazten digu: gaztelaniaz *nótelohé /comprado*, modu arruntean emanda. Euskaraz berdin: *eztítut /erosi*. Idazkera alde batetik doa eta ahoskera bestetik. Hortaz, hemen gaztelaniak eta euskarak elkarren antz pittin bat badutela esango nuke. Gaztelaniazko izenordain horiek *klitikoak* dira. Eta klitiko horiek, gainera, euskaraz ez bezala, gaztelaniaz erredundanteak gertatzen dira batzuetan: *yome tomó todos los días un vaso de leche fría* perpausean hiru aldiz jasotzen da lehen pertsonari buruzko informazioa. Objektuari buruzko informaziorik ez da jasotzen, baina batzuetan jaso beharra dago (cf. ‘*esos vasos de leche yome los tomó de un trago, sin respirar*’). Euskaraz hainbestera inoko erredudantziarik ez da gertatzen subjektuari dagokionez behintzat: *egunero baso bat esne hotz hartzen dut* (<Ø^{abs3sg}-du-t^{erg1sg}). Beraz, hizkuntzen konplexutasunaz ari baldin bagara, ez dago, funtsean hizpide ditugun bi hizkuntzen artean hainbesteko alderik: biak eder, biak on, biak antzeko. Hau oso modu argian erakusten du B. Fernandez-ek (2016: 121-142 orr.). Bide batez, gure hizkuntzalari zuhurrak Wikipediako eta beste hainbat lekutako euskal aditz jokoaren

⁴ “En el español hablado en ciertas zonas de las áreas rioplatenses y andina, así como del País Vasco (España), se elide a menudo el objeto directo de los verbos transitivos sin que ocupe su lugar un pronombre átono. El proceso se registra incluso con grupos nominales de interpretación específica: *Cuando termine la carta llevaré al correo* (...) La ausencia de pronombre átono en estos contextos parece deberse a la influencia del quechua (...) en el primer caso y a la del euskera, en el segundo”. Ez dakit hori datekeen euskaldunen kasuan gertatzen denaren arrazoia, euskaraz klitiko horiek hor segitzen baitute aditzean itsatsirik, Ø gisa bada ere: [eramango Ø-D-U-T].

‘*gehiagizko konplexutasunaz*’ baino nahiago du ‘euskal aditz *inflexioaren izaera sofistikatuaz*’ hitz egin. Dotore; bejondeiola!⁵

7. Aditzekin jolasean: *Darabagu, datsegit, bazeniezazkigukete, nirudike, naiozu...*

Lantxo hau amaitzeko ahaleginean, ezin diot uko egin egunotan zabaldu berri den datorren urteko *Araba Euskaraz* festari erantsi dioten goiburua: *Darabagu*. Atsegin dut txantxa, baita hizkuntza bezalako gai serioetan ere. Hizkuntzak eta gramatikak ere txantxarako aukera eman dezakete eta eman behar ligukete. Erratza sudurraren puntan jarrita, tente, metro batzuetan eramatea bezala da: erratzaren funtzioa ez da hori, jakina, baina lurreko zaborrak batu ostean metro batzuk egitea erratzak sudur puntatik ihes egin gabe ez dago gaizki: horregatik ez zaio errespetorik galtzen erratzari. Tresna sofistikatu horrek berez dituen aplikazioak ‘ukitzeke’ gaindi daiteke ariketa. Gure kasuan adizki edo adizki usteko horiek ere ez dute adierazten euskal aditz beneragarriarekiko errespetu falta. Txantxa horrek hizkuntzaren balizko konplexutasuna gainditzeko edo garrantzia kentzeko (!) balio dezakeen neurrian ongi etorria izan bedi. Aditz jokoak gure kirioak lasaitzeko balio badu, ongi etorria, askotan kontra aritzen baikara.

Jar gaitezen serio. *Darabagu* aditz bat da edo aditz tankerako asmazio bat, asmatutako aditz ‘berri’ bat, alegia. Eta zer esan nahi du? Nahi duzuna, edo ezer ez. Fantasia hutsa izan daiteke, euskal adizki peto-petoaren tankera duena.

Gorago aipatu dudan Altunaren liburutxoan, hasiera-hasieratik esaten zitzaigun euskal aditza hiru zutaberen gainean eraikitzen dela: nor, nori eta nork zutaberen gainean. Saia gaitezen aditz hauen arkitektura osatzen hiru zutabe horien gainean. Badakigu, NOR dela ezinbesteko zutabea eta beste biak komunztadura premien arabera erabiltzen direla. Forma alokutiboak albo batera utziko ditugu.

⁵*Bejondeiola* honek ere adizki sintetiko baten itxura guztia du. Euskaltzaindiaren *Hiztegiak* ‘norbaiti zerbait onuragarri desiratzeko esaten zaion esapidea’ dela dio. Euskara-irakasle hasi berri nintzen garaian, egun batez, ikasgelan sartu eta harbelean norbaitek idatzia zuen honako hau: “Patxi bejondeizula bat da”. Ez nuen ulertu. Ikasleak, exerita, irriparez, begirik kendu gabe, harbelari so, etsita. Azkenean, batek erakutsi zidan ikasliburuko hiztegitxoan, non *bejondeizula*-ren ordain gisa ‘bravo’ ageri zen. Jakina, ez nien azaldu esapide horren egitura konplexua zein zen. Aski izan zen interjekzio bat zela esatea. Denek barre.

NOR	NORI	NORK
N-	-IDA- /-IT	-T
H-	-I(K)A-/-IK(-INA-/-IN	-K
d-	-IO-	∅
G-	-IGU-	-GU
Z-	-IZU-	-ZU
Z-	-IZUE-	-ZUE
d-	-IE-	-TE

Zutabe hauen gainean aditz erroa ezarri behar da. Guredarabagu horretand_{nor}-arabagu_{nork} horren erroa RABA edo ARABA bada... hor dugu aditza dagoeneko eratua: D-ARABA-GU. Eta hau daukagun neurrian, balizko D-ARABA-KE-GU, edo D-ARABA-TE, N-ARABA-ZU... Datiboa ere behar bada, d-araba-kio-gu eta antzekoak osa daitezke erraz-erraz. Baina txantxetako adizki horri erroa alda diezaiokegu -RAMA-esaterako eta horrela, benetako aditzetara ere irits gaitzke: *daramat, daramate...*

Datsegit ere txantxetako aditza litzateke. Baina euskal aditzaren zirrikituetan barrena trebatzeko egokia izan liteke hau ere. Horra beste adizki ‘fantastiko’ bat. Eta zer esaten didazue *zeniezazkigukete* adizkiak? “lekua hartu, mingaina trahatu, burmuina berotu eta komunikazio mailan deus ere gaineratzen ez duena” (Salaburu 2002: 177 orr.). Baina, jakina, *darabagu* ez bezala, *zeniezazkigukete* egiazko aditz bezala sortua da, *zenizkigukete* izan litekeen bezala. Eta haubezalakoa litzateke *zenigukete* edo *zeniguten*. Hortaz, non dago *zeniezazkigukete* horren akatsa? Salaburuk aipatzen dituen trabetan, hain zuzen. Zer egin orduan? Euskara batuko adizki izaeraz jantzia ageri da hor zehar dabilzan paradigma guztietan, nahiz eta inork ez duen erabiltzen, corpusek erakusten duten bezala. Esango nuke, hala ere, aditz batuaren zerrendetan ageri bada, badagoela nonbait eta badela. Baina inor ez dago behartua erabiltzera. Eta pentsatzekoa da, halaber, inork ez duela erabili ez erabiliko ere. Idatziz betiere errazago litzateke, baina testu idatzi hori norbaitek irakurri behar badu, jendaurrean adibidez, hobe, *izki, gu* eta *ke* artean ito nahi ez badugu, beste bideren bat hartzea: hasteko datiboa bera ordezka daiteke modu askotara. *Eraman* aditzarekin, adibidez errazago gertatzen da *X-entzat* edo *X-raerabiltzea*. Horrek adizkiari pisu dezente kenduko lioke. Ahalezko forma denez, gainera aditz analitiko bat osatu beharrean perifrasi modura ere saia gaitzke *ahal*-ez baliatuz: (*zuek*) *eraman ahal(ko) zenioke/ Andonirengana eraman ahalko zenukete*.

Atal honen izenburuan beste aditz bat ere ezarri dugu: *nirudike* nahiz *nirudien*. Hau ez *dadarabagu*-ren antzeko aditz fantastikoa, izatekotan ere aditz ‘fantasma’litzateke, aurrekoa bezala. Honek, noski, egitura eta itxura soilagoa edo sotilagoa du, baina lehenbiziko aldiz aditz zerrenda batean lekua bazuela ikusi nuenean zer demontre izan zitekeen ezinasmaturik ibili nintzen. Gero *zirudien*, *dirudi* eta holakoek ‘arrimuan’ zentzua hartzen joan zen. Hala ere kontrabandoko adizkia dela esango nuke. Nire euskaraz behintzat hirugarren pertsonako subjektua eskatzen du eta ergatiboa, *horrek* adibidez: *horrek inozoa dirudi* ‘inozoa ematen du’. Gaurko gramatiketan, aditz inergatiboa dela esango genuke, beharbada. Alegia, subjektu ergatiboa eta objekturik gabea, *irakin*-en antzekoa. Dena dela, *iruditu* aditzaz ari al gara?. Ezetz uste dut. *Iruditu*, Euskaltzaindiaren *Hiztegian*, ‘zaio’ motako aditza da. *Irudi* aditza, ordea, ez da ageri hiztegi horretan, nahiz eta aditz batuaren paradigmetan ageri-agerian dagoen. Beraz, aditz defektibotzat hartua izatea merezi luke, beharbada. Baina ez hiztegian ‘falta’ delako, baizik teorian izan beharko lituzkeen forma batzuk ez dituelako: *dirudi*, *zirudien* bai, baina agian *?dirudit* edo *?nirudien/?nirudike* modukoak handiegi gelditzen zaizkio hain aditz kokorrari. Zerbaitengatik du aldamenen gure zerbitzurako *eman* aditza bera: *apaiza dirudit/nirudien*-en orde, *apaiza ematen dut*. Gauzak nik uste bezala izatekotan, zerrenda zuzentzea eskatuko luke. Euskara ikasleek merezi dute horrenbeste. Gauza bera gertatzen da *iraun* aditzarekin ere. Hau inergatiboa dela argiago dago, *irakin* bezalaxe. Ez bata ez besteak ez du objekturik onartzen: **zer iraun duzu?/ *bost urte hauek iraun ditut (baina bai bost urte hauetan iraun dut)*. Beharbada, *irudi*-rekin gauza ez dago hain garbi, zeren *mutil honek {zuhurra/ gure aitona...} dirudizuzenak* dira, baina *zuhurra* eta *gure aitona* sintagmak hemen ez dira objektu, izen predikatu baizik. Hortaz, *irudi* eta *iraun*-en paradigmak berrikusi beharko lirateke eta dagokien lekura bidali.⁶

Beste kontu bat: EKARRI, ERAMAN aditzen berririk ez da ematen ‘alegiatzko’ formetarako EGLU II-n. Pentsatu nahi dut Euskaltzaindiaren arauan ere agertzen ez delako dela. Baina, neure harridurarako, EBE-n nola edo hala jasoak ageri dira. Hori bai, inolako azalpenik eman gabe. Bide horretatik segituz gero sor dezakegun nahaste-borrastea handia izan daiteke. Eskerrak adizki konplexu horieinork ez diela begiratu ere egiten, nonbait. Konplexutasunaren konplexuak ez du, antza, hainbesteko indarrik.

⁶ EBE-n hemen zalantzan jarri ditudan hiru aditzon paradigmatik bat bakararra jasotzen da: *iruditu*-rena. Baina gorago esandakoaren arabera, *irudi*-rena beharko zukeen.

Baina balizko irakurleari esan behar diot, *nirudien* edo *nirudike* ez bezala, *balekar*, *lekarke* eta antzekoak norbaitek erabili dituela idatziz. Beraz, EBE-koei zorionak, gehiegi luzatu ez badira ere azalpenak emateko orduan.⁷

8. Azken hitza: errefraura berriro

Gaur hasierako errefrau hori honela parafrasea genezake beharbada: “Ai ederragoa balitz ... eta ez ona” edo “Ai ederragoa balitz ona ez izan arren”, “ederra nahiago, ona baino, alegia. Hau euskararekin zenbaitek duen maitasun harremanari aplikatu ahal zaiola iruditzen zait: euskara maite bide dute, baina ez ona delako edo delakoan, duen edo dukeen edertasun miresgarriagatik, nahiz eta praktikan, oharkabean bada ere, ez duten ezertarako nahi, ez behar. Euskaraz bizi nahi dugunok ‘eder *eta* on’ nahi gure gure hizkuntza, bi kualitateak bat eginik. Zenbat bider kontatu ote zigun Patxi Altunak Azpeitian ezagutu zuela mutiko bat, zeharoko ergela nonbait, eta buruari bi eskuez heldurik honela esaten omen zuena betiere: “Ai tontoagoa banintz!” Itxura horretako esaldia dugu izenburu gisa hautatu dugun errefrau hori. Baina euskararen kasuan, eta munduko hizkuntza guztien kasuan ere, honela bihur genezake errefrau hori: *euskara ailitz ederra, ona eilitz*. Edo gaurko euskaraz, *ai ederragoa balitz, eta bertute handiagokoa!* Eta *ailitz* moduko adizki zaharkitu batek hizpide eman badigu, gure taulan eskuineko zutabearen kokatu beharko genuke, alegia: “IZAN-en adizki sintetikoa, balizkoa, aspektu-markarik gabea, 3. NOR singularra...” Luzetxo, agian. Ea noiz hemen hizpide izan ditugun adizki motentzat ere izen egokiak aurkitzen ditugun.

Eta azken burutazioa: *ailitz, ailu* modukoak zaharkituak bide dira eta bazter utziak. Ez ahal zaigu geuri ere gertatuko aditz ‘botibo’ hauei gertatua! Hots, zaharraren zaharraz baztertu eta ahaztu. Adizki zaharrak dira, baina gaurko idazle batzuek erabili izan dituzte (*Ereduzko prosa gaur-* en egin daiteke bilaketa). Ez zait gelditzen azkenean honako hau esatea baino: *Aikina gazte, euskara bezala: urtetsu baina bizi*.

Bibliografia

⁷ Baina noraezean bezala ibili naiz EBE-ren informazioarekin. Izan ere, LEKARKE moduko ‘alegiakoei’ leku egin ostean, IHARDUN-en kasuan ez dute ezer jartzen. Justu EGLU II-ko

- Allieres, J. (1983): “De la formalisation du système verbal basque”, *Piarres Lafitte'ri omenaldia* IKER 2, Bilbao, 37-91.
- Altuna, P. (1971): *Euskal Aditza. Batua? ... Baturakoa*. Etor, Bilbao.
- Amuriza, X. (2010): *Euskara batuaren bigarren jaiotza*. Lanku, Oiartzun.
- Butron, J & J. De Pedro (): *Euskal Gramatika Praktikoa*. Erein, Donostia.
- Euskaltzaindia. (2012): *Euskaltzaindiaren Hiztegia. Adierak ea adibideak*. Euskaltzaindia, Bilbao.
- Euskaltzaindia (1987). *Euskal Gramatika. Lehen urratsak II*. Euskaltzaindia, Bilbao
- Euskaltzaindia. (2018): *Euskara Batuaren Eskuliburua (EBE)*. Euskaltzaindia, Bilbao
- Fernandez, B. (2017): *Euskara eta hizkuntzari buruz. Hizketan semearekin*. Erein Donostia.
- Fernandez, B. (2016): *Euskera para castellanohablantes*. Erein Donostia.
- Lafitte, P. (1944): *Grammaire Basque (Navarro-Labourdin Littéraire)*. Librairie “Le Livre”, Baionne.
- Lafon, R. (1943): *Le système du verbe basque au XV^o siècle*. Berrinprimatua Elkar, (1980). Donostia
- Moreno Cabrera, J. C. (2000), *La dignidad e igualdad de las lenguas. Crítica de la discriminación lingüística*. Alianza Editorial, Madrid.
- Moreno Cabrera, J. C. (2008): *El nacionalismo lingüístico. Una ideología destructiva*. Panínsula, Barcelona.
- Porto Dapena, J. A. (1991): *Del indicativo al subjuntivo*. Arco/Libros S.A. Madrid.
- Real Academia de la Lengua Española. (2010): *Nueva gramática de la lengua española. Manual*. Espasa Libros S.L.U. Madrid.
- Rebuschi, G. (1984): *Structure de l'énoncé en basque*. SELAF, Paris.
- Salaburu, P. (2002): *Euskararen etxea*. Alberdania, Irun.
- Zubiaur, J. R. & J. Arzamendi. (1976): “El léxico vasco de los refranes de Garibay”, ASJU X, 47-143. Donostia.

Baliabide lexikoen sarea:

Baldintza filologiko eta teknikoak eta aplikazioak

David Lindemann

Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

Iñaki San Vicente

Elhuyar

1. Sarrera

Humanitate Digitalen (HD) arloan, berrikuntza garrantzitsuak izan dira azken urteotan, eta informatikarekiko lankidetzaren delako medio, metodologia arlo konputazionalerara zabaldu egin du filologiak. Testu klasikoaren edizio digitalak burutu eta prozesamendu konputazionalerako prestatzea da Humanitate Digitalen ardatz nagusi bat. Argitalpen historikoen edukiak testu digital bihurtzeaz gain, edizio digitala metadatuarekin osatzera igaro dira HD arloko ikerlariak, hala nola, anotazio filologikoak (esaterako, forma historikoa egungo formarekin lotzen dituztenak), edo anotazio linguistikoak, adibidez, hitz bati dagokion lema, analisi morfosintaktikoa edota semantikaren inguruko anotazioak. Bestetik, errekurtsuen artean loturak daramatzaten poligrafiak sortzeko

ahalmena ematen du edizio digitalak (Smith, 2004).¹

Hiztegi gintza historikoan ere metodologia konputazionalen etorreraren lekukoak gara, Europako hainbat hizkuntza-komunitatetan burutu diren ikerlanei erreparatzen badiegu. Hiztegi historikoa banakako baliabide itxi bezala ulertu beharrean, haren edukiak beste hainbat baliabidetako edukiekin lotzeak abantaila nabarmenak ekartzen dizkio edizioaren erabiltzaileari. Hala egitea ez da batere ideia berria, baina, Orotariko Euskal Hiztegiaren (OEH, Mitxelena & Sarasola, 1988) ekoizpen prozesuan egin zen moduan, hiztegi historikoen edukiak kartoizko txarteletan idatzi eta indexatu beharrean, hiztegi sarrerak eta haien metadatuak errepresentatzeko eredu digital aurreratuak ditugu egun. Eta haiek erabilia, edizioaren egileak eta erabiltzaileak biek dituzte onurak. Edizioen elkarrengingarritasuna bermatzeko asmotan, estandarrak garatzen ari dira. Artikulu honetan, joera berri hauen oinarri batzuk ikusi eta metodologia konputazionalaren zenbait aplikazio ikusiko ditugu, baita nazioarteko arloaren egoera euskararen eremura ekartzeko zenbait baldintza identifikatu ere. Oso oinarrizko esperimendu bi aurkeztuko dugu, baliabide lexikal ezberdinen edukiak elkartzeak zer aukera zabaltzen duen irudikatzeke.

2. Hiztegien sareak

Euskarazko hiztegi guztiak, klasikoak nahiz egungoak, banakako *stand-alone* baliabide gisa ditugu eskura, elkarrekiko lotura espliziturik gabe. Hiztegien ohiko egituran eta ekoizpenerako ohiko lan-fluxuan datza atomizazioaren zergatia: lemategia zehaztu ondoren, lema bakoitza argibide lexikografikoez hornitzera igaro ohi da hiztegi gilea. Lemaren azpian, desanbiguazio sintaktiko edota semantikoa txertatzen du, hiztegi-sarrerari zer egitura eman nahi dionaren arabera. Aldi berean, edukien aurkibide bakarria lemategia izan ohi da, kasu batzuetan, sarrera batetik beste sarrera batera bidaltzen duten zeharkako erreferentziez osaturik. Hiztegi batean hiztegi beretik kanporako erreferentziak jasotzen badira, OEH-k lemaren edo haren aldaeraren agerpena hiztegi

1

Cologne Centre for eHumanities erakundeak burututako *Vedaweb* proiektua aipa daiteke edizio digital aurreratuaren adibide gisa, Rig-Veda-ren edizio ezberdinak lerrokaturik eta metadatuekin batera interfaze publiko baten bitartez eskaintzen dituenak, ikus <https://vedaweb.uni-koeln.de/>. Kopenhageneko

aurrekarietan aipatzen duen bezala, kanpo-erreferentzia horiek ez dira, orokorrean, edizio digitaletan landu, hau da, ez dago aplikazio informatiko batek interpreta lezakeen lotura espliziturik aipuraren jatorrizko agertokira edo sarrera horrek beste kanpo baliabideetan izan dezakeen informazio osagarrietara.

Hori dela eta, lema-ikurra (hots, lema ordezkatzeko duen hizki segida) baino ezin izan da ustiatu baliabideetan zehar loturak eraikitzeke. *Euskalbar* bilaketa-tresna² eta *Elhuyar Hiztegi App*³ horrelako ekimenak dira, bilaketa bakarra hainbat hiztegitan aldi berean egitea ahalbidetzen dutenak. Bilatzen den hizki-segida bat euskarazko hainbat online-hiztegitako sarbideetara bidaltzen dute tresna horiek, emaitzarik izango ote den aurretik argitu edo bilaketa lema-ikurraz bestelako edukietara murriztu edo hedatu ahal izan gabe. Bilatzen den hizki-segida bera hainbat hiztegitako bilaketa-eremuetan eskuz sartzeko (eta emaitzak ikustarazteko) prozesua bizkortzea baino ezin diote erabiltzaileari eskaini, beraz, aipatutako tresnek. Murriztasun horren zergatia hiztegi elektroniko gehienek datu-base egituran datza: lema-ikurrak baino ez ohi dira bilaketak ahalbidetzeko indexatu, ezta datu-baseon edukiak API⁴ bidez zuzenean atzitzeko prestatu ere.

Gauzak horrela, *hiztegi sare* motako baliabidea ezin izan da ekoitzi euskararako, hau da, hainbat hiztegitako edukiak ezin izan dira batu eta lema-ikurra loturak antolatzeko pibot elementutzat harturik elkarrekin eskura jarri, nazioartean hainbat kasutan egin den legez. Alemanezko *Wörterbuchnetz* hiztegien bilduma,⁵ galegozko *Dicionario de Dicionarios*,⁶ portugesezko *Corpus Lexicográfico do Português*⁷ eta neerlandieraren

ONP *Old Norse Prose*, berriz, baliabide ezberdinak interfaze bakarretik atzitzeko eskaintza da, ikus <http://onp.ku.dk/onp/onp.php>.

2

Ikus <https://github.com/euskalbar/euskalbar>.

3

Ikus <https://www.elhuyar.eus/eu/site/prentsa-aretoa/147/hiztegiapp-mugikorretarako-aplikazio-berria>.

4

Aplikazio batek baliabide batetik erauzketak egitea ahalbidetzen duen sarbidea da.

5

Ikus <http://www.woerterbuchnetz.de>.

6

Ikus <http://sli.uvigo.es/DdD/>.

7

Ikus <http://clp.dlc.ua.pt/DICIweb/>.

*Geïntegreerde Taalbank*⁸ gertuko adibideak dira.⁹

Nederlanderaren *Geïntegreerde Taalbank* baliabidea Europa mailan aurrekaria dela esan daiteke. Aipatutako beste ekimenetan bezalaxe, hiztegi historikoen edukiak bateratu egin dituzte, baina besteetan ez bezala, lema-ikur historikoak egungo nederlanderazko formekiko lotura esplizituz hornitu dituzte; horrela, lema-ikur historikoak nahiz egungoak erabil daitezke bilaketak egin eta beti forma historiko zein egungoari lotutako hiztegi-edukiak ikustarazteko. Jokabide hori OEhk euskararako erakusten duen irizpide filologikoarekin bat dator, hau da, forma historikoak egungo formarekin lotzea, OEhk Larramendiren (1745) hiztegiko lema gehienak egungo lemaren azpian erreferentzia gisa zerrendatzen dituen gisan. Baina nederlanderazko baliabidean, egungo lema ez ezik, forma historikoak ere bilaketarako indexatu dituzte, horrela aurkibidea corpus lexicografikoan agerpena duten lema aldaera guztietara hedatuz.

Esan bezala, lema-ikurraz bestelako edukiak ezin izan dira elkarrekiko loturaz hornitu, eta horrela gertatzen da aipatu ditugun nazioarteko hiztegi sareetan. Egoera hori gaindi dezakeen Hiztegi Matrix izenda litekeen baliabideak¹⁰ lema-ikurrez gain adierak ere hartuko lituzke aintzat hiztegietan zehar loturak ezartzeko. Adierak elkarrekin lotzea (*sense linking* deritzona) egun pil-pilean dagoen erronka dela esan daiteke. Adierak (*word senses*) lema homografo eta polisemikoen kasuan desanbiguatzea Lengoaia Naturalaren Prozesamenduaren (LNP) erronka nagusietako bat da. Azken urteetan hitzen errepresentazio bektorial berriei esker (*word embeddings*) aurrerapauso garrantzitsuak eman dira (Raganato, Camacho-Collados & Navigli, 2017). Hala ere, emaitzarik onenak lortzen dituzten sistemak gainbegiratuak dira, eta adierak eskuz

8


Ikus <http://gtb.inl.nl/search/>.

9

Artikulu honetan arazo filologiko eta teknikoak ditugu hizpide. Alabaina, aipatu beharra dago hiztegien egile-eskubideak ere oztopoa izaten dira hiztegien edukiak berrerabiltzeko. Egile-eskubideak argitalpena baino 70 urte beranduago desagertzeak ahalbidetzen du hiztegi historikoen edukiak berrerabiltzeko; hiztegi berriagoen kasuan, berrerabiltzeko hitzarmenak behar dira, lizentzia irekiko baliabideak ez badira.

10

Elaxis Lexicographic Infrastructure ikerketa-azpiegitura proiektu europarrean (2019ean abiatuta,



1 irudia: hiztegi lema eta wordnet kontzeptua

argitalpenetatik atera eta ustiapen konputazionalerako prestatzea, beraz, hutsune haiek betetzeko jokabide baliotsua izan daiteke.

Polisemiaren arazoaren aurreran, eta hiztegegintzari dagokionez, lema-ikurretatik abiatu beharrean kontzeptuetan oinarritzen diren baliabideak sortzea izan da erantzun bat. Wordnet bezalako baliabide lexikoek, esaterako, sinonimo-talde banaren bitartez lexikalizatzen diren kontzeptuak biltzen dituzte, hiztegietan adierak lemaren azpian biltzen diren bitartean (ikus 1 irudia). Kontzeptua sinonimo-taldeko kideen (hots, kontzeptuaren lexikalizazioen) adieretako bat da, definizio batez deskriba daitekeena eta beste kontzeptuekiko erlazio semantikoak dituena. Sinonimia, eredu honen arabera, kontzeptu bera denotatzea esan nahi du, dagokion unitate lexikoaren erregistroari, dialektoari edo datazioari, adibidez, erreparatu gabe. Xehetasun horiek unitate lexikoari lotuta daude ikuspegi horretatik, eta ez kontzeptuari. Hiztegiak adiera mailan elkarrekin lotu ahal izateko jokabidea ematen digu Wordnet ereduak, beste hizkuntzetako Wordnet-etara nahiz bestelako baliabide lexiko-semantikotara,¹¹ kontzeptutik abiatzen diren loturek adierak zuzenean lotu, eta adieren desanbiguazioaren arazoa gainditzen baitituzte.

3. Hiztegiak sartzeko lan-fluxua

Hiztegien edizio digitalak burutzeko bide berriak jorratu dira azken hamarkadatan. Bibliotekonomian oro har gertatzen den bezalaxe, hiztegegintza historikoan ere egungo irizpideen araberrako edizio digitalak, jatorrizko edizioaren edukiaren babesa bermatzeaz

ikus <http://elex.is>) lema eta adiera mailan lotutako hiztegien bilduma eleanitza sortu nahi dute, *Dictionary Matrix* izenpean.

etiketatuta dituzten datu bildumak behar dituzte desanbiguazioa egiten ikasteko. Tamalez, baliabide horiek oso urriak dira eta gainera kostu handia du horiek sortzea (Camacho-Collados & Pilehvar, 2018). Jakintza lexikografiko preziatua paperezko

gain, edukiak makinak uler dezakeen formatuan errepresentatzea du helburu, hau da, testu-geruza duen faksimile digitala eskaintzeaz gain, hiztegiaren makroegiturari (lemategiari) eta mikroegiturari (sarrerren barruko antolamenduari) dagozkion anotazioak gehitzea, makinak testu-zatia bakoitzari item lexikografiko zehatz gisa interpretatu ahal izateko. Bestela esanda, testu-geruza hutsari anotazio semantikoak dituen metadatu-geruza bat gehitzen zaio. Errekurtsuaren barruko bilaketa aurreratuak ahalbidetzeko eta baliabide barruko nahiz kanporako lotura esplizituak esleitzeko baldintza teknikoak betetzen dira horrela. Nazioartean, hainbat hiztegi klasikotako edukiak horrela prozesatu izan dira, eta egun *machine-readable* formatuan ditugu eskura.¹²

Hiztegi historikoen kasu askotan, Larramendi (1745) euskarazko klasiko ezagunaren kasuan, esaterako, digitalizazioa faksimile-irudiak ekoiztean gelditu egin da, eta, ondorioz, pixel-irudi haiei begira dagoen erabiltzailek ikus ditzakeen testu-edukiak ezin dira ordenagailuz lagunduta aurkitu ezta bestela prozesatu ere. OCR (karaktereen ezagutza optikoa) izango litzateke testu-edukiak azaleratzeko beharrezkoa den lan-urratsa. Hiztegi berriago gehien kasuan, testu-geruza duen PDF formatuko argitalpena edota argitalpenaren oinarria izan den testu-fitxategia dugu, eta zenbait kasutan, are gehiago, mikroegitura lexikografikoa islatzen duen markaketa semantikoaz osatua da hiztegiaren testua; hala nola, Euskaltzaindiaren 2010ko Hiztegi Batuaren XML bertsioa.¹³ Horregatik, eta 2 irudian azaltzen dugunez, hiztegi bat datu-multzo lexikal egituratu bihurtzeko lan-fluxuak abiapuntu ezberdina izan ahal du (“start”), jatorrizko formatuaren arabera.

11


Adibidez, danierazko hainbat baliabide lexiko adiera mailan lotu dituzte, danierazko Wordnet kontzeptuak pibot elementuz harturik ([Pedersen, Nimb, Olsen & Sørensen, 2018](#)).

12

Digitalizazio lan-fluxuen inguruan, ikus, adibidez, <https://digilex.hypotheses.org/> blogean baturiko txostenak. Oraingoz lema mailan baino elkarrekin loturarik ez duten hiztegi historikoen bilduma bat ikus <http://woerterbuchnetz.de> helbidean.

13

<http://www.euskaltzaindia.eus/dok/eaeb/hiztegibatua/> helbidean eskuragarri.



2 irudia: Hiztegiak digitalizatzeko lan-fluxu orokorra

Hiztegiaren testu-geruza metadatu lexikografikoez osatzeko, ordenagailuz lagundutako metodologiak ere urrats garrantzitsuak eman dituela esan daiteke. “Lema-ikurra”, “adiera”, “definizioa” edo “itzulpen-ordaina” bezalako mikroegitura-elementuak atzeman eta markatzeko, machine learning algoritmoak darabiltzan tresna batekin esperimentuak egin ditugu, lizentzia libreko OEH-ren PDF bertsioa adibide hartuta.¹⁴ Zenbait orrialdetan markaketa eskuz egin eta tresnak entrenatzeko erabili ondoren, hiztegi-sarrera bakoitzaren hasiera eta amaiera markatzeko gai izan gara hiztegi osoan zehar, sarrera oso laburra izan edo sarrera batek orrialde bat baino gehiago hartzen badu ere. Machine learning algoritmoak malgutasuna erakutsi du eginkizun horretan, erregeletan oinarritutako sistema batek nekez izango lukeena. Sarreraren hasiera eta amaiera zehazturik, sarrera bakoitzaren barrukoak zatitu eta etiketatzea izango litzateke hurrengo lan-urratsa, handitik txikira aurreratuz (“cascaded approach”, ik. (Khemakhem, Foppiano & Romary, 2017)). Tresna entrenatzeko datuak eskuz prestatu behar dira, zatiketa automatikoaren emaitzen (eskuzko) ebaluazioak doitasun maila egokia lortu arte.

behar ditugu,¹⁵ hiztegi digitalen egiturak eta markaketa-lengoiak berdintzea helburu dutenak. Hiztegiak eta bestelako baliabide lexiko-semanticok elkartzeko, berriz, azken urteotan maiz aipaturiko estandarrak sortzen ari dira *Linguistic Linked Open Data* eremua lantzen duen komunitatean, haren baitan dagoen *Ontolex* W3C lan-taldean,¹⁶ bereziki. Web semantikoaren RDF estandarra (Berners-Lee, 2006) erabili eta hiztegien edukiak eredu formal batean jasotzeko ahaleginak dira *Ontolex-core* (“lemon”) eta *Ontolex-lexicog* ereduak. Ereduok eskaintzen dituzten klaseak elkarrekin lotuta daude, zehazki definituriko propietateen bitartez, eta haien arabera sailkaturiko baliabide lexikalen edukiak aurkigarriak izango dira mikroegitura-elementuak islatzen dituzten klaseak eta haiekin lotutako propietateak zehazturik. Horretaz gain, *Ontolex-core* ereduko klaseek *Wikidata* baliabidearen zenbait klaserekiko loturak eskaintzen dituzte.¹⁷ *Wikidata* baliabidearen barruan, berriz, milioika kontzeptu daude bilduta, hiztegiatiko adierekin lotu daitezkeenak. Kontzeptuak biltzen dituen *Wikipedia* ez bezala, *Wikidata* datu lexikalak ere batzen hasi da. Osagai horiekin, Wordnet bezalako egitura bat eraiki daiteke *Wikidata*-n bertan, eta *Wikidata* bera izan liteke, beraz, Hiztegi Matrixaren ardatz eta kokapena. Nabarmentzekoa da Euskararen pozisionamendua *Wikidata*-ko datu lexikalei dagokienean, Euskal Wikilarien Elkartearen eta Elhuyar fundazioaren lanari esker.¹⁸

Adiera mailan lotutako Hiztegi Matrix delakoa etorkizuneko erronka bada ere, laburbiltzeko, bi baldintza nagusi bete behar dira Hiztegi Matrixaren parte izan daitezkeen datu-multzoak sortzeko; lehenik, datu lexikalak egituratuak izan behar dute, XML edo RDF bezalako ereduak erabilia. Hiztegi-sarrera baten barruan, gutxienez honako mikroegitura-elementu hauek markaketa eraman behar dute, hiztegia sareratu

15

Ikus <https://github.com/DARIAH-ERIC/lexicalresources>.

16

Ikus <https://www.w3.org/community/ontolex/>.

17

Ikus https://www.wikidata.org/wiki/Wikidata:Lexicographical_data eta https://www.mediawiki.org/wiki/Extension:WikibaseLexeme/RDF_mapping.

18

Ikus euskarezko lexemen kopurua *Wikidatan* <https://tools.wmflabs.org/ordia/language/> helbidean, eta adibide bat hemen: <https://www.wikidata.org/wiki/Lexeme:L48738>. Wikidata-ko euskarazko lema guztiak honako SPARQL-query honen bitartez ikus daitezke: <https://w.wiki/Byt>.

ahal izateko: lema-ikurra, kategoria eta adiera.¹⁹ Bigarren baldintza litzateke loturak ezartzea: Alde batetik, lema-ikur hutsaz haratago, kategoria duen lema bakoitzari (*lempos-entity* bakoitza) eta, bestetik, adiera bakoitzari identifikatzailea esleitzea, identifikatzaile hori propietate sorta batez kanpoko baliabideetako beste identifikatzaile batzuekin lotu ahal izateko. Lema mailako loturak ezartzeko bide nahiko zuzena dagoen bitartean, lema ikurra bera horretarako balia daitekelako, *sense linking* deritzona askoz ere eginkizun konplikatuagoa da. Joera berriek hemen ere *machine learning* teknikak erabiltzen dituzte, eskuzko lana errazteko asmotan (ikus eztabaida Saurí, Mahon, Russo & Bitinis, 2019 lanean). Erabateko doitasunari hurbiltzeko, alabaina, hiztegiaren eskuzko lana ezinbestekoa izaten jarraitzen du, eta algoritmoen garapenean ez ezik, eskuzko lanean ere inbertitzen jarraitzen dute era masiboan arloko egungo proiektuek. Polonierazko Wordnet baliabidea hedatu eta haren kontzeptuak ingelesezko Wordnet-ekoekin lotzeko, esaterako, dozenaka hiztegiak dihardute polonieraren inoizko

```
<homograph homograph="aditu" corpus_counts="42842">
  <ADI lemma="aditu" pos="ADI SIN" corpus_counts="18989">
    <sense synset="30-00588888-v" equivs="understand"/>
    <sense synset="30-02169782-v" equivs="hear"/>
    <sense synset="30-02571901-v" equivs="heed mind listen"/>
  </ADI>
  <IZE lemma="aditu" pos="IZE ARR" corpus_counts="13945">
    <sense synset="30-09617867-n" equivs="expert"/>
    <sense synset="30-10557854-n" equivs="scholar scholarly_person bookman"/>
  </IZE>
  <ADJ lemma="aditu" pos="ADJ ARR" corpus_counts="5486">
    <sense synset="30-02226162-a" equivs="adept expert skillful"/>
  </ADJ>
</homograph>
```

3 irudia: aditu lema, EDBL eta EusWN datuak eta maiztasunak

baliabide lexiko-
semantiko handiena
sortu eta
mantentzeko
ahaleginean
(Maziarz, Piasecki,
Rudnicka,
Szapkowicz &

Kedzia, 2016).

4. Bestelako baliabide lexikalak

Hiztegiatan zehar ez ezik, lema eta adierak dituen bestelako baliabide lexikaleetan zehar ere loturak ezartzea ezinbesteko baldintza da hainbat aplikazio burutzeko. LNP alorrean kokatu ohi diren baliabide lexiko-semantikoetatik bat aipatu dugu goian: *Wordnet* kontzeptu-sarea (Miller, Beckwith, Fellbaum, Gross & Miller, 1990). Horretaz gain, testu-corpusetatik erauzitako maiztasun lemategiak eta hizkuntzalaritza konputazionaleko lexikoak ere lotu ditugu lema-ikur mailan elkarrekin eta hiztegiatiko

19

Mikroegitura-elementu gehiago markatuz gero, haien edukia ere aurkigarri eta loturak ezartzeko gai bihurtzen dira, hala nola, aipuak, *Geintegreerde Taalbank* gertatzen den moduan.

lemategiekin. Hiztegi elebidun berri bat sortzeko, euskarazko oinarrizko lematagia sortzea baitzen gure asmoa (EusLemStd, Lindemann & San Vicente, 2015). Horretarako, gaurko corpus handienetan, hau da, ETC Egungo Testuen Corpus (Sarasola, Landa & Salaburu, 2013) eta Elhuyar 200M-Webcorpusean (Elh200, Leturia, 2014), eta, aldi berean, hiztegi nagusietariko batean²⁰ agerpena duten lema-ikurrak zehaztu ditugu. Horrela, hiru baldintza betetzen zituzten lema-ikurren zerrenda lortu dugu. Lehenik, lema-ikur historikoak baztertu ditugu, hau da, gaurko erabilera islatzen duten corpusetako batean agerpen-atalasa²¹ gainditzeko ez dutenak. Bigarrenik, hiztegi nagusietan inon jaso ez direnak baztertu ditugu, corpusetan agertzen den guztiaren artean jasotzeko mereziko luketeen neologismoak iragaztea ez baita hiztegi gintza elebidunaren zeregina, Lexikoaren Behatokia (Artola, Ezeiza, Gurrutxaga, Sagarna & Urkia, 2017) bezalako ekimen berezituaren eginkizun erraldoia baizik. Eta hirugarrenik, hiztegien eta corpusen intersektzioa islatzen duen lematagia corpusetako maiztasun datuekin hornitu dugu, horrela EusLemStd lematagia abiapuntua duen hiztegi berrian lemen maiztasunari buruz argibideak eman ahal izateko.

Aipatutako lanean euskal Wordnet (EusWN, Pociello, 2007) eta EDBL (Aldezabal et al., 2001)²² ere aintzat hartu genituen, corpus eta hiztegiekiko intersektzioak definitzeko. Hutsetik sortzekoa litzatekeen hiztegi elebidun berria eduki gehiagoz osatzeko ere erabili genituen bi baliabide horiek (Lindemann & San Vicente, 2016). EusLemStd zerrendako lema-ikurra EDBL-en agerpena izanez gero, bertan asoziatuak dituen hitz kategoriez anotatu genuen, bigarren pauso batean EusWN-eko adierak ere gehitzeko. 3 irudian erakusten dugu emaitzen adibide bat, *aditu* lema, lehengo maila batean hitz kategoriaren arabera antolatuta, haren azpian *Open Multilingual Wordnet* (Bond & Foster, 2013) bitartez lortutako ingelesezko itzulpen-ordainak eta Elh200 corpuseko agerpen-kopuruak adierazten ditugula.

20

Orotariko Euskal Hiztegia (Mitzelena & Sarasola, 1988), Hiztegi Batua (Euskaltzaindia, 2010), Euskal Hiztegia (Sarasola 1996) eta Elhuyar Euskara-Gaztelania hiztegiaren euskarazko lematagia (Azkarate, Kintana & Mendiguren, 2006) dira eskuragarri izan ditugun lematagiak.

21

Hogei agerpenetan finkatu dugu atalasea, corpus hizkuntzalaritzako usadio bati jarraituz.

Horrela lortutako hiztegi-zirriborroa hiztegi elebidunaren abiapuntua balitz, eta eduki guztiek irudian dugun bezalako markaketaz hornituko balira, zirriborroa erazteko baliatu zituen iturriak aberasteko lanean jardungo luke hiztegi-gilea aldi berean, eskuzko lanaren balorea bikoiztuz, elkarreragingarritasun iraunkorreko *bootstrapping loop* deitu daitekeen lan-fluxu batean.

Euskarazko hiztegiek ez dutela baliabide bakoitzetik kanpora bidaltzen duen lotura esplizitorik esan dugu. Corpusetako adibideak hiztegi sarrerei edo adieretako bakoitzari lotuta agertzen badira, hiztegiaren parte gisa jaso ditu hiztegi-gileak, Egungo Euskararen Hiztegia (EEH, Sarasola, 2008), esaterako, gertatzen den moduan. Hiztegitik kanpora lotura espliziturik ezean, erabiltzaileak baliabide ezberdinen artean salto egiteko moduak badaude, hala ere. Elhuyar hiztegi elebiduneko erabiltzaile-interfazeak²³ eskaintzen dituen aukerak adibide moduan azalduko ditugu.

Batetik, hiztegi horretako sarrera elebidunetan, corpus paraleloan bilaketa egiteko aukera ematen da. Bilaketa egiteko bi hizkuntzetako lemak erabiltzen dira, eta horrela bilaketa bi ordainak agertzen diren esaldi-bikoteetara mugatu. Adieren desanbiguaioa, beraz, ordainaren bidez egiten da, bilaketa egiten den momentuan bertan. Jokabide horren abantaila begi-bistakoa da: corpusetako adibideak ez dira euskarazko lemaren beste adierei dagozkienekin nahasten. Aldi berean, horrek adibideak hiztegian agertzen diren ordainetara mugatzen ditu, bestelako ordainak bilatzeko corpusera zuzenean jo beharko genukeelarik.

Bestetik, Elhuyarrek bere hiztegi tekniko eta terminologikoak elkar-lotuta ditu. Horri esker, erabiltzaileak hiztegi-sarrera bat kontsultatzen duenean aukera du sarrera hori aipatutako kanpo baliabideetan kontsultatzeko. Horren muga, berriz ere, erakunde ezberdinek garatutako baliabideak elkarlotzeko aukeran datza. Hori bilaketa bidez ahalbidetu liteke (*Euskalbar* tresnak egiten duena), baina ez hiztegi-sarrera

22

Euskararen datu base lexikala (EDBL) corpusetan metadatu morfosintaktikoak gehitzeko eta zuzentzaile ortografikoetan erabiltzen da, besteak beste.

desanbiguatuen mailan.

5. Sarearen aplikazioak

3. atalean aurkeztutako lan-fluxuaren emaitza datu-multzo lexikalen sorta da, eta haien elkarketa lema-ikurren edota adieren bitartez baliabide lexikalen sarea, edo, neerlanderazko izendapen-ereduari jarraituz, hizkuntza-banku integratua. Horrelako sarearen aplikazioen artean, erabiltzaile-interfaze baten bitartez bilaketa aurreratuak eskaintzea aipa daiteke lehendabizi, *Geïntegreerde Taalbank*-ek duen interfaze publikoak ahalbidetzen duen bezala. Galizierazko baliabide lexikalen sarea *Recursos Integrados da Lingua Galega* du izena,²⁴ idatzizko lekukotza eta lema-ikurraren araberrako bilaketak ahalbidetzen ditu hainbat baliabidetan aldi berean, hiztegieta, GalNet Wordnetean nahiz testu-corpusetan, lemaren kategoria gramatikala zehazturik.

Bigarrenik, sare bihurtutako datu lexikalen bilduma horrelako beste sare batzuekin elkar daiteke, egiturak TEI-XML edo Ontolex-RDF bezalako nazioarteko estandar bati jarraitzen badio. Lema mailan elkarturik dauden bilduma batzuk goian aipatu ditugu. Bestetik, Wordnet sare semantikoaren ereduari jarraitzen dioten bildumak aipagarriak dira, azken urteotan maiz aipaturiko BabelNet ekimena tartean (Navigli & Ponzetto, 2010),²⁵ *Open Multilingual Wordnet* eta *Wikipedia* baliabideen edukiak, besteak beste, kontzeptu mailan batzen dituen, doitasun handiko algoritmo baten bitartez.²⁶ BabelNetek bee edukiak aberasten jarraituko du, eta hiztegi historikoen edukiak BabelNet-eko kontzeptuekin lotzea da, hain zuzen ere, *Elexis* ekimenean jarri duten erronketako bat (Declerck, McCrae, Navigli, Zaytseva & Wissik, 2018).

23

<http://hiztegiak.elhuyar.eus> helbidean eskuragarri.

24

ikus <http://sli.uvigo.es/RILG>.

25

Ikus <http://babelnet.org>.

26

BabelNet baliabidetik euskaraz-ingeleszko hiztegi elebiduna erauzteko gure esperimentu eta ebaluaketaz ikus (Lindemann & Kliche, 2017). EusLemStd zerrendaren estaldura nabarmen handiagoa eskaini du BabelNet-ek (%40), WordNet soilik erabiltzearen aldean (%31), doitasuna maila berean mantentzen duen bitartean (%85).

Hirugarrenik, baliabide lexikalen sarea filologia arloko ikerketa kuantitatiboen iturri gisa erabil daiteke, edota hurbiletik aztertzeo laginak sortzeo. Euskarazko zenbait datu lexikal elkartu ditugu, baliabide ezberdinetatik erauzketak eginda. Jarraian, elkarketa horren aplikazioetarako bi adibide emango dugu.

5.1. Larramendiren lema berriak gaurko euskararen

Goian aipatu dugun euskarazko hiztegi klasikoa, Larramendirena, alegia, ez dugu oraindik edizio digitalean. Alabaina, digitalizazioa burutu ezean, bidezidorra dugu beste hiztegi baten edukiak erabiliz. Izan ere, Ibon Sarasolaren hiztegi elebakarretan “*1745” marka darama lemak, Larramendiren hiztegia lehengo agerpen dokumentatua baldin bada. Bestetik, egungo lema-ikur baten azpian jasotzen du Sarasolak Larramendik erabilitako forma (OEH-n gertatzen den bezalaxe). Larramendiren *beguordeac* (s.v. *anteojos*), adibidez, islatzeko, grafiari eta, pluraleko forma denez, morfologiari dagokionez gaurko lematizazio estandarrari erantzuten ez dion forma beharrea, *begi-orde* bezala zerrendatzen dute Sarasolak eta OEH-k, eta *begiordeak* da Larramendiren hiztegi aipuan OEH-n ematen duen forma. Egungo euskararen lematizaziorako egokitzapena ere badugu, beraz, Sarasola/OEH hiztegieta. OEH-tik lemaz bestelako eremuetara murriztutako bilaketak egun ez ditugu ordenagailuz lagunduta egin. Alabaina, OEH-ko *begi-orde* adibideak prototipikoki erakusten du lematizazio historikoa interpretatzeko jokabidea (*beguordeac* > *begiordeak* > *begi-orde*), eta hain zuzen Sarasolak eta OEH lantzen duen taldeak egindako egokitzapen horregatik izango gara gai Larramendiren lemak gaurko euskararen beste baliabide batzuetan bilatzeko.

Euskal Hiztegiaren 1996ko edizioa XML bihurtu dutenez (Arriola et al., 2003), hiztegi osoan zehar aurki eta erauz ditzakegu edukiak, mikroegitura-elementua zehazturik, datazioarena, esaterako. Larramendiren lanean lehendabiziko agerpena duten lemak 3.420 “*1745” marka daramaten horiek direla onartuz gero, eta lema haien zerrenda egungo corpusetatik erauzitako maiztasun-zerrendekin erkatzen badugu, Larramendiren lema berrien arrakastaz zerbait esan dezakegu, eskuzko inolako bilaketarik egin gabe.

1 eranskinean “*1745” lemen maiztasun-zerrenda ematen dugu, ETC eta Elh200

corpusetik erauzitako maiztasun-zerrendan dituen tokiak adierazita. Gaurko euskararen 750 gehien erabilitako lemetatik 40 Larramendik lehen aldiz jasotakoak direla izango litzateke ondorioa, ereduzko testuetan nahiz internetean topaturiko euskarazko edukietan. Oro har, 3.420 lema-ikur haien erdia (1.742) Elh200 corpusean hogeiki agerpen edo gehiago dutenez, gaurko erabilera frogatutzat eman daiteke, beste erdiaren %44 (1678tik 733) hogeiki aldiz baino gutxiago agertzen den bitartean; gainontzeko 945 lema ez dira behin ere agertzen.

5.2 Twitter corpusaren azterketa

Azkenik, sare sozialetara begira jarri nahi izan dugu. Horretarako Twitterretik erauzitako 40 Miloi hitzeko corpora erabili dugu. Twitterren erabiltzen den hizkuntza aztertzeak berez erronkak ditu. Izan ere, Twitterren erabiltzen den hizkuntza askotan kaleko ahozko hizketatik hurbilago dago idatzizko hizkuntzatik baino. Ohiko testuetan topatzen ez ditugu zenbait fenomeno tratatu behar dira. Adibidez, gaztelania eta euskara nahasten dituzten esaldiak (*Code Switching* izenez ezagutzen dena, adib. “*Ta atzo kede fatal!!!*”, “*Ingleseko azterketa de puto kulo itezunen...*”), enfasia adierazteko hitzak maiuskulaz idaztea (“*A ze pelikula TXARRA ikusi dugun gaur*”) ala bokalak errepikatzea (adib., *oona!*), edo lekua aurrezteko hitzak moztea (adib., *msdz -> mesedez, mlskr -> milesker, pxkt > pixka bat*). Fenomeno horiek denek noski prozesamendu automatikoa zailtzen dute, harik eta berariazko aurreprozesatze bat eskatzen dutelarik (Alegria et al., 2015). Aurreprozesatze hori bereziki da beharrezkoa hiztegitantza arloko aplikazioetarako, edo lema beste baliabideetako loturez hornitzeko, forma ez estandarren lema identifikatu nahi baditugu.

Sare sozialetako datuek erronkak planteatzen badituzte ere, abantailak ere badituzte. Hizkuntzaren aldaketak sare sozialetan idatzizko lekukotza izaten du, beste inon baino bizkorrago. Eta lekukotza horiek eraz ditzakegu, era masiboan. Termino berrien agerpena, edo gazte hizkera bezalako erregistroen azterketa egiteko informazio iturri egokia izan daiteke, beraz (Nguyen, Gravel, Trieschnigg & Meder, 2013).

Iturri honetatik eratorri dezakegun informazioa baliatzeko adibide gisa, Twitter

corpusean agertzen diren lemen azterketa egin dugu. 2 eranskinean, hiru corpusetan agerpena duten lema-ikurren lagina eskaintzen dugu. Lema-ikurrek hiru corpusetan dituzten maiztasun erlatiboak (*rfreq*, ikus Lindemann & San Vicente (2015)) konparatzen ditugu, terminologia-erazketan erabiltzen den *weirdness ratio* neurria erabiliz (Ahmad, Davies, Fulford & Rogers, 1994; ik. Schäfer, Rösiger, Heid & Dorna, 2015). *Weirdness* baloreak adierazten du ikur baten maiztasuna corpus batean, erreferentzia-corpus batean duenarekin alderaturik. Taulan zerrendatutako lema-ikurrek corpus zehatz batean askoz ere agerpen gehiago dute dagokion erreferentzia-corpusean baino, eta, hortaz, corpus zehatz horren osajeraren ikuspegi berezia eskaintzen dute. Ez dira corpus batean maizen agertzen direnak, erreferentzia-corpuseko maiztasunetik urrunenak gelditzen direnak baizik. Zerrendako lehenengo posizioei erreparatuta, Internetetik erauzitako edukiak biltzen dituzten Elh200 corpora eta Twitter Corpora antzekotasuna erakusten dute, eskuz hautaturiko eredu-ereduzko testuez osatutako ETC corpusaren aldean. Bestalde, Twitter corpusak, Elh200 erreferentzia harturik, bere berezitasunak erakusten ditu, hemengo lehenengo tokietan ere erakuskari esanguratsuak agertzen baitira. Hemen aurkezten duguna oso oinarrizkoa bada ere, maiztasunak erkatzeko ariketa hau ezingo genuke burutu iturri ditugun baliabideak elkartu ahal izan ezean.

6. Ondorioak

Hiztegi historikoak eta bestelako baliabide lexikalak saretzea izan dugu hizpide artikulu honetan. Lan-urratsak ikusi ditugu, karaktereen ezagutza eta testu-edukien markaketa semantikotik datu-multzo lexikal egituratuz osatutako bilduma sortzeraino. Bestetik, horrelako bilduma sare semantikoekin erlazionatzeko baldintzak ere aztertu ditugu, horien artean, datu-ereduen estandarrei erreparatzeko premia.

Euskarazko hiztegi historikoei dagokienez, hastapen batzuk baino ezin izan dugu gauzatu egun arte. Lemen aldaera historikoak egungo estandarrentz moldatzea beharrezkoa dela ikusi dugu lema-ikurretan oinarritutako baliabide-sareak eraikitzeko. Beste puntu batean ere agertu zaigu premia bera: Sare sozialetan erabiltzen diren formak ere estandar diren edo litzatekeen formekin lotzea. Lan-urrats horek, aurrean dugun aldaerak historikoak ala berri-berriak izanda, irizpide filologikoak eskatzen ditu.

Euskarazko hiztezigintza historikoan lematizazioaz sortutako ereduak aztertu eta erabilgarri bihurtzea, corpus hizkuntzalaritzako tresnek aplikatu dituzten, gerorako eginkizun garrantzitsua izan daitekeela aipatu nahi dugu, eta OEH-n lema historikoen kodifikatze lexikografikoaz egindako eskuzko lan erraldoia banan-banan eraztea horretarako bide egokia izan litekeela.

Datozen urteetan ildo horretan lanean jarraitzeko beharra eta aukera ikusten dugu. Datozen urteetan ildo horretan lanean jarraitzeko beharra eta aukera ikusten dugu. Elhuyar Fundazioa hasia da dagoeneko bide horretan. Batetik, fundazioak berak garatutako baliabide lexikalen inguruko loturak eskaintzen dizkie erabiltzaileei, corpusetatik eratorritako adibideak, edo hiztegi terminologikoetan egon daitekeen sarreretara loturak. Horiek “barne loturak” direla esan dezakegu, erakunde berak sortutako baliabideen artekoak. Baina, Euskal Wikilarien Elkartearekin elkarlanean, Elhuyar hiztegi-takako datu lexikalak *Wikidata* ekimenean txertatzen hasiak dira. Honek pausu garrantzitsua suposatzen du, euskarazko bestelako baliabideekin zein beste hizkuntzetako lexikalizazioekin loturak sortzeko.

H2020 Elexis ikerketa-azpiegitura lagungarria izango zaigu, lan-fluxuak, datu-ereduak eta teknologiak europako hizkuntza-komunitateetan zehar eztabaidatu, garatu eta zabaltzeko asmoa duena. Europako beste hainbat erakundek bezala, EHUK ere *Elexis* proiektuan hartzen du parte *observer* gisa, konsortzioari euskarazko datu lexikalak eskuragarri jarritz, azaldutako lan-fluxuaren urrats bakoitzean esperimenduak egin daitezten, eta esperimendu haien emaitzak ebaluatuz, tresna automatikoen garatzaileek ondorioak atera ditzaten. Trukean, garatutako teknologien *early adopters* izango gara. Tresnen garatzaileen eta datuen emaileen, informatikoen eta filologen artean dugun nazioarteko lankidetzak hori Humanitate Digitala arloa gorpuzten duten haietarikoa da, mundu biek irabazteko moduko lankidetzak, zalantzarik gabe.

Bibliografia

Ahmad, K., Davies, A., Fulford, H. & Rogers, M. (1994). What is a term?: The semi-automatic extraction of terms from text. In M. Snell-Hornby, F. Pöschhacker &

- K. Kaindl (Arg.), *Benjamins Translation Library* (Libk. 2, or. 267).
<https://doi.org/10.1075/btl.2.33ahm>
- Aldezabal, I., Ansa, O., Arrieta, B., Artola, X., Ezeiza, A., Hernandez, G. & Lersundi, M. (2001). EDBL: A General Lexical Basis for the Automatic Processing of Basque. *Proceedings of the IRCS Workshop on linguistic databases*, Philadelphia. Sarean: <http://artxiker.ccsd.cnrs.fr/docs/00/08/11/54/PDF/2001-IRCS.pdf>
- Alegria, I., Aranberri, N., Comas, P. R., Fresno, V., Gamallo, P., Padró, L., San Vicente, I., Turmo, J., Zubiaga, A. (2015). TweetNorm: A Benchmark for Lexical Normalization of Spanish Tweets. *Language Resources and Evaluation*, 49(4), 883–905. Sarean: <https://doi.org/10.1007/s10579-015-9315-6>
- Artola, X., Ezeiza, N., Gurrutxaga, A., Sagarna, A. & Urkia, M. (2017). Lexikoaren Behatokia: Leiho bat XXI. mendeko hedabideetako euskarari. *Senez: itzulpen aldizkaria*, (48), 16. Sarean: <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=6206911>
- Azkarate, M., Kintana, X. & Mendiguren, X. (Arg.). (2006). *Elhuyar hiztegia: Euskara-gaztelania, castellano-vasco* (3. arg.). Usurbil Gipuzkoa: Elhuyar Edizioak. Sareko interfazea: <http://hiztegiak.elhuyar.org>
- Bond, F. & Foster, R. (2013). Linking and Extending an Open Multilingual Wordnet. *Proceedings of the The 51st Annual Meeting of the Association for Computational Linguistics*, 1352–1362. Sarean: <http://anthology.aclweb.org/P/P13/P13-1133.pdf>
- Camacho-Collados, J. & Pilehvar, M. T. (2018). From word to sense embeddings: A survey on vector representations of meaning. *Journal of Artificial Intelligence Research*, 63, 743–788. Sarean: <https://jair.org/index.php/jair/article/view/11259>
- Declerck, T., McCrae, J., Navigli, R., Zaytseva, K. & Wissik, T. (2018). ELEXIS - European Lexicographic Infrastructure: Contributions to and from the Linguistic Linked Open Data. In I. Kernerman & S. Krek (Arg.), *Proceedings of the LREC 2018 Workshop «Globalex 2018 – Lexicography & WordNets»* (or. 17–22). Sarean: <https://globalex.link/globalex2018/proceedings/>

- Euskaltzaindia. (2010). *Hiztegi batua* (3.). Sarean: <http://www.euskaltzaindia.net/hiztegiatua/>
- Khemakhem, M., Foppiano, L. & Romary, L. (2017). Automatic Extraction of TEI Structures in Digitized Lexical Resources using Conditional Random Fields. In I. Kosem, C. Tiberius, M. Jakubíček, J. Kallas, S. Krek & V. Baisa (Arg.), *Electronic lexicography in the 21st century: Lexicography from scratch. Proceedings of eLex 2017*. Sarean: <https://elex.link/elex2017/proceedings-download/>
- Larramendi, M. (1745). *Diccionario trilingüe castellano, bascuence y latin dedicado a la M.N. y M.L. provincia de Guipuzcoa*. Sarean: <http://www.kmliburutegia.eus/Record/203133> eta <http://www.kmliburutegia.eus/Record/26577>
- Leturia, I. (2014). *The Web as a Corpus of Basque* (PhD Thesis). UPV-EHU Lengoia eta Sistema Informatikoak Saila, Donostia. Sarean: <https://www.elhuyar.eus/media/content/files/ILeturia-The%20Web%20as%20a%20Corpus%20of%20Basque.pdf>
- Lindemann, D. & Kliche, F. (2017). Bilingual Dictionary Drafting: Bootstrapping WordNet and BabelNet. In I. Kosem, C. Tiberius, M. Jakubíček, J. Kallas, S. Krek & V. Baisa (Arg.), *Electronic lexicography in the 21st century: Lexicography from scratch. Proceedings of eLex 2017* (or. 23–42). Sarean: <https://elex.link/elex2017/wp-content/uploads/2017/09/paper02.pdf>
- Lindemann, D. & San Vicente, I. (2015). Euskarazko maiztasun lematagia gaurko teknologien ikuspuntutik. In B. Fernández Fernández & P. Salaburu Etxeberria (Arg.), *Ibon Sarasola, gorazarre. Homenatge, homenaje* (or. 441–456). Sarean: <http://www.ehu.eus/ehg/sarasola/liburua/SarasolaGorazarre36.pdf>
- Lindemann, D. & San Vicente, I. (2016). Bilingual Dictionary Drafting: Connecting Basque word senses to multilingual equivalents. In T. Margalitadze & G. Meladze (Arg.), *Proceedings of the 17th EURALEX International Congress: Lexicography and Linguistic Diversity* (or. 898–905). Sarean: <http://euralex.org/publications/bilingual-dictionary-drafting-connecting-basque-word-senses-to-multilingual-equivalents/>

- Maziarz, M., Piasecki, M., Rudnicka, E., Szpakowicz, S. & Kedzia, P. (2016). plWordNet 3.0—A Comprehensive Lexical-Semantic Resource. *Proceedings of COLING 2016, the 26th International Conference on Computational Linguistics*, 2259–2268. Sarean: <https://www.aclweb.org/anthology/C/C16/C16-1213.pdf>
- Miller, G. A., Beckwith, R., Fellbaum, C., Gross, D. & Miller, K. J. (1990). Introduction to WordNet: An On-line Lexical Database. *International Journal of Lexicography*, 3(4), 235–244. <https://doi.org/10.1093/ijl/3.4.235>
- Mitxelena, K. & Sarasola, I. (1988). *Diccionario general vasco—Orotariko euskal hiztegia*. Euskaltzaindia; Editorial Desclée de Brouwer. Sarean: <https://www.euskaltzaindia.eus/hizkuntza-baliabideak/online-hiztegiak>
- Navigli, R. & Ponzetto, S. P. (2010). BabelNet: Building a Very Large Multilingual Semantic Network. *Proceedings of the 48th Annual Meeting of the Association for Computational Linguistics*, 216–225. Sarean: <http://dl.acm.org/citation.cfm?id=1858681.1858704>
- Nguyen, D., Gravel, R., Trieschnigg, D., & Meder, T. (2013). «How old do you think I am?» A study of language and age in Twitter. *Proceedings of the Seventh International AAAI Conference on Weblogs and Social Media*. -(E)n aurkeztua Cambridge MA. Sarean: <https://www.aaai.org/ocs/index.php/ICWSM/ICWSM13/paper/viewPaper/5984>
- Pedersen, B. S., Nimb, S., Olsen, S. & Sørensen, N. H. (2018). Combining Dictionaries, Wordnets and other Lexical Resources – Advantages and Challenges. In I. Kernerman & S. Krek (Arg.), *Proceedings of the LREC 2018 Workshop «Globalex 2018 – Lexicography & WordNets»* (or. 101–104). Sarean: <https://globalex.link/globalex2018/proceedings/>
- Pociello, E. (2007). *Euskararen ezagutza-base lexikala: Euskal WordNet* (PhD Thesis). UPV-EHU Euskal Filologia Saila, Donostia. Sarean: <http://ixa.si.ehu.es/node/4117>
- Raganato, A., Camacho-Collados, J. & Navigli, R. (2017). Word sense disambiguation: A unified evaluation framework and empirical comparison. *Proceedings of the*

15th Conference of the European Chapter of the Association for Computational Linguistics: Volume 1, Long Papers, 99–110. Sarean: <https://www.aclweb.org/anthology/E17-1010/>

Sarasola, I. (1996). *Euskal Hiztegia*. Donostia: Kutxa Gizarte-eta Kultur Fundazioa.

Sarasola, I. (2008). Egungo Euskararen Hiztegia (EEH). Berreskuratua 2019(e)ko azaroakaren 12a, -(e)tik UPV/EHU website: <https://www.ehu.eus/eeh/>

Sarasola, I., Landa, J. & Salaburu, P. (2013). *Egungo Testuen Corpusa*. Sarean: <http://www.ehu.es/etc/>

Saurí, R., Mahon, L., Russo, I. & Bitinis, M. (2019). Cross-Dictionary Linking at Sense Level with a Double-Layer Classifier. In M. Eskevich, G. de Melo, C. Fäth, J. P. McCrae, P. Buitelaar, C. Chiarcos, ... M. Dojchinovski (Arg.), *2nd Conference on Language, Data and Knowledge (LDK 2019)* (or. 20:1–20:16). <https://doi.org/10.4230/OASlcs.LDK.2019.20>

Schäfer, J., Rösiger, I., Heid, U. & Dorna, M. (2015). Evaluating noise reduction strategies for terminology extraction. In T. Poibeau & P. Faber (Arg.), *Proceedings of the 11th Int. Conference on Terminology and Artificial Intelligence (TIA'15)* (or. 10). Granada: Universidad de Granada. Sarean: http://ceur-ws.org/Vol-1495/paper_7.pdf

Smith, M. N. (2004). Electronic Scholarly Editing. In S. Schreibman, R. Siemens & J. Unsworth (Arg.), *A Companion to Digital Humanities* (Hardcover). Sarean: <http://www.digitalhumanities.org/companion/>

1. Eranskina

Sarasolaren (Larramendiren) "*1745" lemen maiztasun-zerrenda, ETC eta Elh200 corpusetik erazitako maiztasun-zerrendan dituen tokiak adierazita (40 lehenengoak).

Posizioa	Lema	ETC rank	Lema	Elh200 rank
1	talde	39	talde	42
2	erabaki	100	aurkeztu	93

3	egoera	121	ondoren	95
4	azaldu	128	elkarte	108
5	maila	136	erabaki	120
6	ondoren	143	maila	130
7	biztanle	174	egoera	134
8	arazo	183	azaldu	173
9	aurkeztu	207	era	208
10	elkarte	233	arazo	215
11	asmo	241	atal	268
12	era	281	irail	271
13	arrazoi	301	asmo	311
14	saiatu	355	honako	319
15	zuzendari	373	zehar	348
16	sarrera	381	hona	359
17	bukatu	394	sarrera	364
18	ordaindu	423	bultzatu	367
19	bultzatu	455	albiste	379
20	ondorengo	459	ordaindu	395
21	adina	510	martxa	411
22	doan	543	arrazoi	412
23	zehar	545	zuzendari	416
24	atal	549	bukatu	444
25	giro	550	lasai	512

26	egitura	559	saiatu	526
27	baztertu	560	hitzaldi	538
28	lasai	565	hondakin	559
29	antzeko	569	ale	581
30	desagertu	615	egitura	587
31	irail	630	bideratu	617
32	iparralde	641	giro	620
33	garaipen	651	arautu	640
34	zalantza	664	gehitu	649
35	honako	693	ipuin	652
36	aski	700	zalantza	675
37	benetan	716	bizitu	685
38	hainbeste	719	egiaztatu	710
39	sasoi	721	neu	712
40	proba	747	antzeko	721

2. Eranskina

Twitter corpusean gutxienez hogeit aldiz nahiz ETC eta Elhuyar corpus bietan agertzen diren lema-ikurrak, *weirdness-ratio* neurriaren arabera ordenaturik, erreferentzia-corpus ezberdinak oinarritzat hartuta (100 lehenengoak). Hirugarren zutabeetan, Twitter corpuseko maiztasun erlatiboak ETC eta Elh200 corpusetako maiztasunekin, eta laugarren zutabeetan, berriz, bien batezbestekoarekin duen proportzioaren arabera hurrenkera dugu, hau da hirugarren zutaberako, Twitteren soilik internet osoan baino maiztasun askozaz ere handiagoaz erabiltzen direnen erakuskaria.

Posizioa	Elh200_rfreq / ETC_rfreq	Twitter_rfreq / ETC_rfreq	Twitter_rfreq / Elh200_rfreq	Twitter_rfr eq / ETC_Elh20 0_rfreq
1	batera	batera	ezker	etxeondo
2	arteko	noranzko	mikroskopiko	zupra
3	aurrez	arteko	aspirazio	patatx
4	bertatik	zuzeneko	astintzaile	antifaxismo
5	arriskutsu	arriskutsu	berritsukeria	manugaitz
6	baserritar	bertatik	botagura	torraka
7	zuzeneko	baserritar	burugorri	egibide
8	arrakastatsu	aurrez	indargetu	txantxibiri
9	bigarren	arrakastatsu	saharai	infrasoinu
10	inon	bigarren	amatista	txerren
11	zehazki	inon	tematu	elikagune
12	berrikusi	eguberri	interrogatorio	mozal
13	garapa	urrezko	gedar	salabardo
14	zelan	aspaldiko	librepentsalari	noranzko
15	jatorriz	etxeondo	patroi	mertzero
16	zeharka	zelan	tiratu	eztabai
17	aspaldiko	ospa	artalde	enkantatu
18	bada	orduko	tesla	prospero
19	urrezko	indartsu	frustazio	nabaro
20	bertako	berrikusi	tuneatu	spoiler
21	zai	zai	txeketegi	bermiotar

22	indartsu	fuerte	egozentriko	zerraldatu
23	hirugarren	txiolari	kontari	golatu
24	bakarka	zehazki	fiskalizatu	brutal
25	orduko	koloretsu	pito	azarri
26	eskuko	larriki	bikini	berjabetu
27	berreskuratu	hamargarren	hispanoamerikar	euskarafobo
28	berreraiki	klaru	pertso	behizain
29	berriki	berreskuratu	hirixka	zibereraso
30	nora	zabalik	tupla	proximo
31	gogoko	eskuko	bengaliar	armagabetu
32	ageriko	bizirik	graduatu	fronton
33	bizirik	nora	marigorringo	basomutil
34	ahozko	gogoko	normalitate	txiotxio
35	nahikoa	bertako	enbaxada	horrible
36	hamargarren	garapa	kultista	bonito
37	hare	hirugarren	arrastiri	alegrias
38	neu	ikusarazi	israeldar	sorki
39	klaru	zeharka	dibisa	jornada
40	gehiegizko	oriotar	domeinatu	txiolari
41	amen	ageriko	arilo	lagunkoitasu n
42	gaineko	bada	zorun	playoff
43	onuradun	mago	zabalketa	erretura
44	interesdun	keatu	zakuto	restaurante

45	koloretsu	aitzina	konopial	bidelari
46	misteriotsu	basura	dolore	desakatu
47	zatika	hagoatu	irudikeria	maravilloso
48	delako	berreraiki	atralaka	salio
49	zentsu	gogotsu	hamargarren	estatalizazio
50	berregin	ikustarazi	espainiarzale	bypass
51	zabalik	hiruko	gexo	habuin
52	baliotsu	neu	zentralizatzaile	larretxe
53	berraztertu	biziarazi	armagabe	taup
54	eguberri	ustezko	momotxorro	inguralde
55	zeia	bakarka	indigaztainondo	migrante
56	dirudienez	barrura	txortalo	oholtzape
57	zegi	jatorriz	ezpatadantza	fitoteka
58	gutzizko	irundar	glass	movil
59	kartzeatu	adimentsu	tentaldi	zalagarda
60	ustezko	polideportibo	mahi	ziztor
61	legezko	nahikoa	ur	mineri
62	baketsu	baliotsu	trikatu	txinta
63	maket	berregin	ingurukatu	baluarte
64	saltoka	erduzu	izain	txamarreta
65	garrantzitsu	delako	tease	cadiztar
66	lapurtar	kartzeatu	arazle	oxala
67	mutxi	dirudienez	hargindegi	ugaitz

68	esplikazio	berriki	beroketa	traol
69	belasko	aberia	beno	ikasmin
70	ezagutarazi	belasko	hondeagailu	ahi
71	ikusarazi	gehiegizko	begigorri	kurkubi
72	gutxiegi	saltoka	tridente	mordaza
73	historikoki	lapurtar	sprinter	euskaitz
74	oriotar	haizegune	ondoezik	txotor
75	formalki	misteriotsu	hondarpe	kupe
76	sutsu	baldintzape	ikusketak	aurrestreinal di
77	odoltsu	zeu	goizale	buruto
78	kementsu	baketsu	andetar	urgatzi
79	geroko	zentsu	jiratu	ihitza
80	moduzko	gutxiegi	txamarra	artefaktu
81	eregi	laguntxo	lorezale	twit
82	gehi	amen	relazio	hankazabal
83	aitzina	pentsiodun	apiril	turf
84	apurka	dozenaka	elkarreragile	haizeberritu
85	baiezko	maket	petraldu	animos
86	zeu	xitu	itsusikeria	gizaeskubid e
87	zazpigarren	pago	mandatu	polideportib o
88	halakoxe	garrantzitsu	alergeno	moreno
89	berridatzi	ahozko	berantetsi	tanda

90	bertsu	zapra	sintetiko	puto
91	borondatezko	zazpigarren	errekurrente	galgorri
92	larriki	joko	zarpaildu	saratu
93	ereduzko	trabela	apurkor	argazkigile
94	berrantolatu	gaineko	ezkutaleku	semifinal
95	giza	kostata	klasifikazio	estreno
96	pasonibel	pina	barrendero	ahaldungai
97	berregituratu	giza	zarabanda	rikar
98	orokorki	sutsu	itsasgora	gipuzkoano
99	adimentsu	pozoitsu	kontrapuntu	jenial
100	latindar	baiezko	esperoan	sorteo

Tesiko Bosgarren Kapituluaren Historia Txikia
**(“*Zer arraio idatzi dok zorioneko bosgarren kapitulu*
horretan?!”)**

Jesus Mari Makazaga

UPV/EHUko Euskara Zerbitzuaren zuzendaria

Pello Salaburu irakasle, lankide eta adiskidearen erretiroa dela eta, omenaldi modura, errekonozimenduzko hitz batzuk juntatu nahi nituzke. Urte mordo bat badira elkar ezagutzen dugula, eta, halako batean, erretiroa hartzeko ordua etorri zaio, ondo irabazitako erretiroa hartzeko ordua.

(Pello irakasle)

1985. urtea izango zen Pello ezagutu nuenean: irakasle izan nuen, Euskal Filologia karrerako azken urteetan irakasle. Sintaxia irakasten zigun, mugimendu generatibistaren ikuspegitik, eta, gaia hain abstraktua eta berezia izanik, beti iruditu izan zait azalpen ezin argiagoak ematen zizkigula; gaiak eta edukiak oso txukun ordenatuta eskaintzen zizkigun, eta atsegina eta erakargarria egiten zitzaidan zenbaitentzat hain gai lehorra izan zitekeenaren irakaskuntza. Beti, gainera, pazientzia handiz eta patxadaz eskaintzen zizkigun eskolak.

(Pello Gramatika Batzordeko kide)

Handik urte batzuetara, Gramatika Batzordean bekadun-lanetan sartu nintzenean egin nuen topo berriz Pellorekin. Artean ez zen batzordeburu (Patxi Altuna zen garai artan, oker ez banabil), baina batzordearen sortzaileetariko bat zen, eta ni, batzordean sartu berri zen bekadun lotsati bat. Aukera polita izan zen niretzat Pelloren ez ezik batzordekide guztien jakintzaren berri izatea, lehen eskutik gainera: oso aberasgarriak izan dira urte hauek guztiak niretzat, bertatik bertara bainuen aukera batzordekide jakintsuen ezagutza handi hartatik ikasteko (halakoetan esaten den bezala, ikasi ez ditudanak nire erruagatik ez nituen ikasiko, eta ez haienagatik). Batzorde horretan hainbeste urte egin baldin baditut, han ikusten nuen adiskidantza-giro bikainagatik ere bazela aitortu behar dut. Ni bezalako sartu berri gazte hark beti izan du lankidetzeta eta konfiantza-giro ezin hobea batzordean, eta ez du inongo kexurik. Alderantziz, den-dena aldekoa iruditzen zitzaidan: giro akademiko eta adiskidantzazko ezin egokiagoa.

(Pello doktoretza-tesiaren zuzendari)

Doktoretza-tesia Elgoibarko ahozko euskararen gainean egiteko asmoa nuen, eta horretarako, Pellori berari eskatu nion zuzendari izateko, harekin neukan konfiantzagatik, haren ezagutzagatik eta Baztango euskalkiari buruz egina zuen tesi bikainagatik. Baiezkoa eman zidan, eta hor ere beste lotura bat sortu zen gure artean. Lehenbiziko urteetan, irakaskuntzako kontuak zirela eta, batzordeko lanak zirela eta, ez zuen aurrera egin tesiak; baina behin, halako batean, gaiari serio heldu nionetik, Pelloren erantzuna bikaina izan da beti: galdera bat egiten nionean, materiala pasatzen nionean berak gainbegiratzeko eta iritzia emateko, berehala iristen zen beti erantzuna. Berak seguru ezin duela gauza bera esan nigatik, hark eskatutakoei ematen nion erantzuna askotan luzatu egiten baitzen. Baina inoiz ez zuen pazientzia galtzen: “egingo du halako batean” pentsatuko zuen seguruenik, eta itxoiten geratzen zen, eserita badaezpada. Askatasun handia ematen zidan zuzendari gisa, eta bere iritzia ematearekin batera, ondo onartzen zuen nirea ere, bata bat ez zetozen kasuetan ere.

(Pello lankide)

Sailkide izan gara Euskal Herriko Unibertsitateko Euskal Filologia sailean aurrena, eta Euskal Hizkuntza eta Komunikazioa sailean ondoren. Ni neu zerbitzu-betekizunetan nabil azken urte luzeetan UPV/EHUko Euskara Zerbitzuan, eta han ere, 2011tik aurrera (ni zerbitzuburu naizenetik) paraleloki zuzendu ditugu hark Euskara Institutua eta nik Euskara Zerbitzua, konfiantza-giroan, lankidetza onean eta era ahalik eta koordinatuenean betiere.

(Pello adiskide)

Urte hauetan guztietan, errespetuzkoa eta konfiantzazkoa izan da beti elkarrekiko harremana; hainbeste gauza partekatu ondoren, adiskidantza-harreman on bat izatera iritsi garela esango nuke, eta hala jarraituko dugu, etorkizunak ekartzen digun eran.

(Tesia eta bosgarren kapitulua)

Herri jakin bateko hizkerak aztertzeke dialektologiako ohiko lan monografikoetan, hizkuntzaren arlo hauek izan ohi dira hizpide eta aztergai normalean: fonologia, izenaren morfologia, aditzaren morfologia, sintaxia eta hiztegia.

Horietatik aparte, berri-emaileen ahotik jasotako testuak ere transkribatu izan dira, hizkeraren erakusgarri orokorrago bat emateko, eta berri-emaileen munduaren eta mundu-ikuskeraren testigantza bat finkatuta utzi, eta lanari balio etnologiko erantsi bat emateko ere.

Horiek ere egin nituen nire tesian: testu sorta oparo bat berri-emaileen bizitzaren alderdi askotan sailkatuta: eskola-kontuak, umetako jolasak, neskametzta, soldadutza, Gerra Zibila, ogibideak, baserriko lanak, jaiak, erromeriak eta bestelako ospakizunak, hizkerari buruzko testuak (oharmenezko dialektologiaren arloan), eta abar. Aholku zentzuzko batzuk salbuetsita, arazorik ez halakoetan ere tesi-zuzendariaren partetik

horiek ere sartzeko (gorago aipatu dut askatasun handia ematen zidala Pellok tesiko kontuetan).

Dialektologiaren arloan ere, ekarpen bat egin nahi izan nuen tesian: euskalkien eta azpieuskalkien azterketan pauso bat eman nahi izan nuen, Mendebaleko eta Erdialdeko hizkeren arteko muga horretan, argi pixka bat egin nahi izan nuen inguruko hizkerekiko konparazio kualitatiboa eta kuantitatiboa eginez lanaren amaieran.

Ondo joan ziren kontu horiek, oro har, tesiaren defentsaren egunean. Izan ziren ongi arrazoitutako oharak ere, noski, asko estimatu eta aintzat hartu ditudanak ondorengo bertsioetan; ohar xebreak ere izan ziren. Bat aipatuko nuke, halako tentsio-unean ere barrea eragin zidalako: “Abarka asko, apreta¹ gutxi” esamoldearen bidez laburbildu zuen Patxi Goenaga epaimahaikideak bere kritika, gaztelaniazko “El que mucho abarca poco aprieta” esamoldearen egokitzapen zoragarriaren bidez. Tesian gauza asko sartu nahi izan nuelako, gai batzuetan gehiegi sakontzera ez nintzela iritsi esan zidan; eta ados. Gero etorri zen, ordea, Orreaga Ibarra epaimahaikidea nik aurkeztu nuenaz gainera ia-ia beste tesi bat egiteko eskatzen zidana, alegia belaunaldi gazteagoen euskara ikertzea eta bi belaunaldien arteko euskarak konparatzea: epaimahaikideak ez zetozen bat, eta, jakina, ni erdibidean, poztxo horrekin: ezin, ba, biei kasu egin, esaten zituztenak kontraesanean zeudenez gero.

Idatziz eman zizkidan Miren Azkaratek bere jardunaren hitzak, eta biziki eskertzen diot. Ez dut esango epaimahaikide guztien iritzien adierazle denik Mirenena, baina guztienak ez ziren urrun izan, eta ekar ditzagun hona Miren Azkarateren hitz batzuk, haren baimenarekin:

“Oso argi adierazten duzu atal bakoitzean, Fonologian, Izenaren morfologian, aditzean... zer egin duzun eta zer hartu duzun oinarritzat. Alde honetatik, sintaxiaren atalean esaten duzun bezala, dialektologian ohikoak izan diren aztergaietatik “haruntzago” joan zara. Egia da oso aberasgarria dela bai Esaera,

¹ Zenbait hizkeratan, *abarketa* eta *espartina* hitzen ordaina da.

Esapide eta Interjekzioen bilduma, eta zer esanik ez Hiztegiarena (kontuan izanik, gainera, zeuk diozun bezala, zenbat diren inguruko hizkerez ondutako hiztegiak).”

Atal horietan, zehaztasun gehiagorekin edo gutxiagorekin, era honetako lan monografikoetan egin ohi diren kontuak aztertu nituen.

Berri-emaileen partetik jasotako ahozko testuen azterketa egiten ari nintzela, haien ahozko jarduneko honako ezaugarri hau fonologiaren atalean sartzen nuen, horrako beste hori syntaxiko *zakuan*, harako hura aditzaren morfologiarenean, eta abar eta abar.

Hala ere, baziren tarteka-tarteka sailkapen zurrun horretan (fonologia, izenaren morfologia, aditzaren morfologia, syntaxia eta hiztegia) lekurik ez zuten ezaugarri batzuk, kokapen egokirik ez zuten hizkuntza-item batzuk. Betidanik izan dut Diogenes sindrome ikutu bat, ustez ez-morbidoa, eta badaezpada ere halako ezaugarriak gorde egiten nituen, BESTELAKOAK edo SASKI-NASKI (ez naiz ondo gogorutzen) izeneko *zaku* berriaz sortu berri batean. Beste ataletan leku garbirik ikusten ez nuen aldietan, zaku berri horretan sartzen nituen nire atentzioa erakartzen zuten ezaugarri edo hizkuntza-item berezi horiek.

Zaku berri hori gero eta handiagoa eginez joan zen; ahal nuenean, garbi samar ikusten nuenean irizpidea, azpiatal berriak sortzen nituen, eta haiek poliki-poliki elikatu. Guztiz gozagarria egiten zitzaidan zaku berri hori elikatzeko lana, eta horrek ere laguntzen zuen, ondo lagundu ere, doktoretza-tesia bezalako arnas luzeko lan batean interesa eta arreta ez galtzen.

Tesiaren lehenbiziko helburuei uko egin gabe (hizkera jakin baten ohiko ezaugarritzea eta haren kokapen dialektala egitea), helburu berri baten ateak ireki zitzaizkidan: neurri batean hizkera horren ezaugarritzea egiten ari nintzen atal berriarekin ere, baina ikusten

nuen orokorragoa zen zerbait jasotzen ari nintzela, eta argi neukan ez niola ezikusiarrena egin nahi.

Iruditzen zitzaidan jasotzen ari nintzen ezaugarri horietan zegoela gure zaharren (errespetu guztiz erabiltzen dut berba hau) euskararen sena, haien euskararen adierazgarritasuna, komunikagarritasuna eta poesia, nolabait esateko. Ezaugarri horiei esker zen, da, haien euskara hain komunikagarria, hain adierazgarria, hain polita eta, azken finean, hain eraginkorra.

Zer esanik ez, Pellori aipatu zaku berri honen kontua, eta, “aurrera, bai”, “interesgarria oso”² bat haren erantzuna. Ados hura ere gai honen garrantziarekin. Pozarren ni: lan gozagarria egiten ari nintzen, eta banuen *nagusiaren* oniritzia, gainera. Gure herritarren artean esaten den bezala, *Gustoko mendixan, aldaparik ez*.

Tesiko beste atal guztiak adinakoa edo, kasu askotan, handiagoa izatera iritsi zen, bolumenari dagokionez, atal berri hau. Bazegoen, bai, zer hustua gure berri-emaileen ahozko testu ezin interesgarriago eta aberatsagoetatik. Eta gero esango dute zenbaitek, edo berri-emaileek berek, edo haietako batzuek behintzat, euskara hori ez dela ona, Azkoitia aldekoa edo, areago, Tolosa aldekoa dela ona, garbia, eta abar. Bai zera! Edo bai, seguruenik haiek onak dira, baina, Erdialdeko euskara horiei ezer kendu nahi gabe, eman diezaiozun geureari dagokion balioa, handia da eta.³

2 Beharbada, nire atzerapenetara hain ohitua, era honetako jarraipenen batekin: “... baina ez gehiegi luzatu; laster bukatzea komeni zaik”.

3 Bada gure berri-emaileen artean konplexu bat, darabilten euskarari dagokionez: diote ez dela garbia, nahaste handia daukala (“Bizkai aldeko berbak eta Gipuzkoa aldekuak, nahasketa haundixa dagok”; berbak ... eta ezaugarriak, gaineratuko nuke nik), eta garbiagoa dela Erdialdera egiten duena, Azkoitia edo Tolosa aldera. Bestalde, bada gure inguru hurbilean, Eibarren, Soraluzen, Elgoibarren..., hiztegi kontuetan mailegutzarako joera markatu samar bat (beti aipatu izan diren *kaballua* eta *bentania*, horren adierazgarri), gure euskararen pertzepzioa iluntzen eta estigmatizatzen duena. Ez dira ohartzen, ordea, darabilten euskara zoragarria dela, haien helburu komunikatiboetarako tresna zoragarriki zorrotzia dutela, eta eraginkorra, dinamikoa eta ederra dela; beste leku hizkeraz garbiago batean erabiltzen dena bezain ederra, ederragoa ez bada.

Gai horrekin nuen lehenbiziko helburua beteta zegoen: jasoak nituen nire ustez pertinenteak ziren hainbat ezaugarri, eta hor geratuko ziren jasota behintzat, hobeto edo okerrago sailkatuta eta azalduta, baina jasota behintzat. Eguneroko jarduneko elkarrizketetan, ahozko jardunean, berri-emaileek darabiltzaten esaerak, esapide eginak, interjekzio eta hitz adierazgarriak, harridurazkoak; guztiak hizkuntzaren ahozko erabileraren bereizgarri, hizkuntzaren bizigarri, freskagarri eta, zergatik ez esan, edergarri (metafora eta baliabide literarioz josiak baitira haietako asko).

Izan ere, garai bateko euskaldunen bizimodua, pentsaera, sentitzeko eta hitz egiteko era badoakigula ikusita, horien guztien ispilu diren hizkuntza-baliabideak bildu nahi nituen, ahalik eta era sistematikoenean, ordenatuenean eta nabarmenenean. Horietako asko beharbada hiztegiaren atalean sar zitezkeen, baina hiztegiaren *zaku* handiaren hurrenkera alfabetiko eta arbitrario horretan, iruditzen zitzaidan “galdu”-edo egiten zirela altxor horiek, hainbeste sarrera eta azpisarreraren artean. Horregatik erreskatatu nituen *zaku* berrira, irizpide tematiko-kontzeptualen bidez ikusgarriago egiten nituelakoan.

Bihar-etziko euskaldun gazteei, haien euskarari ekarpen bat egingo niela uste nuen ahozko jardunaren baliabide haiek bilduta: ulerterrazagoak, sinpleagoak, naturalagoak eta adierazgarriagoak izango dira haien testuak, idatzizkoak nahiz ahozkoak, gure zaharrek erabiltzen zituzten baliabideen laguntzarekin.

Izan ere, lagunarteko erregistroan, batez ere belaunaldi gazteagoen ahozko jardunean, hutsune handiak nabaritzen nituen. Hizkera mota horrek behar-beharrezko duen adierazgarritasuna eta indarra bilatzeko, gehiegitxotan doaz gure herriko gazteak erdaren iturrietara, euskaraz aurkitzen ez duten ur freskoaren bila. Izan ere, ahozko euskararen transmisioan, hutsune handiak izan dira azken urteotan, eta gaztetxoek ez dute, oro har, Elgoibar bezalako herri askotan behintzat, horren berri zehatzegirik izan, gero beren eguneroko lagunarteko giroan euskara natural erabiltzeko. Erdaren kasuan guztiz bestelakoa da egoera gure herrian, oro har, askoz osasuntsuagoa, bistan denez; gure herriko euskararen kasuan, herriko gazteen arteko elkarrizketei zaharrek duten

(zuten) naturaltasuna, adierazgarritasuna falta zaie, alde batera utzi baita (irakaskuntzan, hedabideetan, telesailetan...) ahozko jardunaren baliabideak lantzearen eginkizuna.

Gaur egun, Euskaltzaindiaren arauen arabeko euskara nahiko ondo idazten eta erabiltzen dute gazteek, oro har. Euskararen gramatika ere ondo ezagutzen dute jeneralean; baina euskara egokiaren eta eraginkorraren kontuan oraindik herren dabilta, nire ustez. Kalean adin batetik beherakoek darabilten euskara ere askotan epela da, neutroa, aukeran; askotan ez du indarririk, gatz eta piperririk, eraginkortasunik mintzakidearengan bilatu nahi den erreakzioa lortzeko. Argi dago azken urteetako transmisioak eta irakaskuntzak zerbaitetan huts egin duela: auzi honi dagokionez behintzat, nabarmena da ahozkoitasuna ez dela behar bezala landu ikastetxeetan. Hori garatzeak asko lagunduko liguke hizkuntza era naturalagoan eta adierazgarriagoan erabiltzen.

Hor ikusten dut nik (eta beste askok ere bai, zorionez) gaur egungo euskararen hutsune larrienetako bat: ahozko lagun arteko jardunean erabiltzeko tresna egokia falta da askotan. Kezka hori izanik, gure herriko (eta ingurueta) zaharrek darabilten euskararen sakondu nahi izan dut, euskara horretatik atera daitekeen etekinik handiena atera ahal izateko: gazteen jarduna naturaltasunez eta adierazgarritasunez hornitu, idatzizko testuak ere eraginkorrago egiteko hobekuntza-bide batzuk aztertu, eta abar.

Hor kokatzen dut tesiko bosgarren kapitulu honekin egin nahi izan dudana ekarpena. Elgoibarko ahozko jarduneko adibide batzuk bildu nahi izan ditut, ahozko jardunak dituen baliabide estilistiko edo poetiko zenbaiten erakusgarri gisa⁴. Egunero-egunero darabilgun euskararen adierazgarritasunaren eta eraginkortasunaren mesedetan, betiere.

Gure ahozko tradiziotik elikatu nahi nuen, beraz; handik bildu nahi nituen hainbat adibide. Ikusten bainuen euskararen hobekuntza-bideetako bat tradizio hori lantzea dela;

⁴ *Poetiko* hitzaren zentzurik zabalenean, Joxerra Garziak (1998) dioen bezala, “gauzak modu itxuraz berri eta berezian” adieraztearen zentzuan; hain bereak dituen hitzak hona ekarriz, “esana era bakan-betean” esatea da harentzat poesia, bere zentzurik zabalenean. Esanaren bete-bakantasan irudipen hori gudan

ez bakarria, sortu ere egin behar baitute hiztunek. Edonola ere, sormena eta berrikuntzak tradizioa ezagututa egitea litzateke egokiena: tradizioan dugunetik hartu (erabil dezakegun neurrian), eta sortu (tradizioan ez duguna edo zaharkitua geratu dena), baina ez sortzen ibili tradizioan baduguna eta erabil dezakeguna.

Adierazgarritasunaren bila aritu nintzen, ahozko hizkerak eskaintzen dizkigun baliabide horien erakusgarrien bila: alde horretatik ikusten nion nik interesa *zaku* berri honi, ahozko hizkeraren baliabide garrantzitsu batzuen bilduma den aldetik; eta ez hainbeste dialektologiaren aldetik.

Nik, aditu izan gabe, eman nitzakeen argibideei baino garrantzi handiagoa eman nahi nien adibideei berei; adibide kopuru zabala eskaini nuen, eta haietan sumatu uste nituen joerak azaldu nituen. Pozik nengoke helburu horretan behintzat asmatu badut.

Arloko adituek hizkera kolokialaren edo lagunartekoaren definizio eta ezaugarritzat aipatzen zituztenak ere bildu nituen kapituluaren sarreran.

Arlo honetan aitzindarietako bat dugun W. Beinhauer-ek (1929 [1991], 9) gaztelania kolokialari buruzko definizio hau ematen du:

“El habla tal como brota, natural y espontáneamente en la conversación diaria, a diferencia de las manifestaciones lingüísticas conscientemente formuladas, y por tanto más cerebrales, de oradores, predicadores, abogados, conferenciantes, etc., o las artísticamente moldeadas y engalanadas de escritores, periodistas o poetas.”

Berezkotasuna, naturaltasuna eta planifikazio falta dira definizio horretatik atera daitezkeen hizkera kolokialaren ezaugarriak.

Hona M.C. Lassalettak (1974, 14) dioena:

“El lenguaje coloquial es una fracción o nivel de lenguaje total que se destaca por su caracter pintoresco reflejado en multitud de expresiones y vocablos intraducibles a otros idiomas, fundados muchas veces en alusiones metafóricas y que posee una gracia, viveza, gran espontaneidad, concreción y expresividad que lo distinguen de otros niveles.”

Hor aipatu direnetako asko aurkitzen dira nik *zaku* berrian jasotako ezaugarrietan: esapide berezi itzulezinak eta esapide metaforikoak; esaeren eta esapideen atalean ditugu horiek, eguneroko bizitzako metafora eta konparazio bidez osatuak.

Lagunarteko hizketa deskribatzen duten adituek honako ezaugarri hauek aipatzen dituzte (ikus Briz, 1996): orainaldian gertatua, ahozkoa, interaktiboa, berehalakoa, informala, berezkoa, gai ez berezituak tratatzen dituen, gutxienez bi hiztunen artean gertatua, prestatu gabea, berdinen artean gertatua, eta abar.

Jardun lagunartekoaren konstanteak ere aipatzen ditu Brizek (1996):

- Sintaxi-egitura parataktikoak.
- Egitura parafrastikoak erabiltzea (ingurumarietan ibiltzea).
- Geldialdien ugaritasuna.
- Erreduantzien erabilera joria: errepikapenak ugariak dira (diskurtoaren kohesioa lortzeko baliabide eraginkorra).
- Enfasiaren leku nabarmena.
- Elipsia nagusi.
- Anakoluto ugari agertzea.
- Estilo zuzenaren erabilera (oso arruntak dira hizketaldiaren barruko kontakizunak estilo zuzenean).
- Hitz-hurrenkera pragmatikaren araberakoa (komeni den osagaia bereziki nabarmentzea, bai galdegai gisa, bai mintzagai hanpatu gisa).
- Mintzakideak osatu behar dituen enuntziatu bertan behera utziak.

- Entonazio goranzkoak, adierazgarriak.
- Egitura indargarriak (hiperbolea).
- Aukera lexiko urria (proformak erabiltzea, *verba omnibus* izenekoak).
- Parahizkuntzak duen garrantzia (keinuek hitzezko komunikazioa osatu edo are ordezkatu ere egin dezakete).
- ...

Behin ezaugarri horien bilketa eta nolabaiteko sailkapen-lana eginda, emaitzak ezagutzea geratzen zen, epaimahaikideen ahotik.

Pozgarria izan zen, adibidez, Miren Azkaratek esandakoa:

“(dialektologian ohikoak izan diren aztergaietatik “haruntzago” joan zara) “Haruntzago” joan izan horrek berarekin dakar emaitzen erabilgarritasuna, bai gramatikaren ezagutza, bai dialektologian, baina, batez ere, ahozko hizkuntzaren eta herriko hizkuntzaren ezagutza. Ahozkotasunak eta gaurko gazteen komunikaziorako ahalmen kamutsaz kezkatuak dabiltzanak (gabiltzanak) benetan eskertuko dute esapideetan-eta egindako bilduma. Gai labainkorra da, berak bakarrik tesi bat osatzeko beste emango lukeena (sailkapen irizpideetatik hasita), baina bilduma hor dago. Hortik aurrera, gehiago sakondu nahi duenak, hortxe du lehengaia.”

Eta Miren bezala, gainerako epaimahaikide guzti-guztiek (Orreaga Ibarrek, Xarles Bidegainek, Patxi Goenagak eta Beñat Oihartzabalek) aipatu zuten bosgarren kapitulua, nabarmenki aipatu ere. Normala den bezala, bakoitzak bere arloan egin zituen ekarpen jorienak eta lanaren eragozpen handienak (Goenagak eta Oihartzabalek sintaxian, Azkaratek morfologian, Bidegainek hiztegian eta Ibarrek dialektologian eta hizkera lagunartekoan), baina denak gelditu ziren, denbora luzea eskainiz gainera, tesiaren bosgarren kapitulu hori komentatzen. Nobedadea izan zen haientzat halako lan batean gai hori sartzea: hala aitortu zuten; ikusten zuten hor erabilgarria izan zitekeen material

bat, nahiz beharbada beste era batera sailkatuko zuten...; denek izan zuten hizpide bosgarren kapitulu hori⁵.

Eta ni pozarren, nire ekarpenak berritasuna ekarri zuelako, eta horrekin epaimahaikideen arreta eskuratu nuelako. Ordura arte ez nengoen lasai, baina hortik aurrera bai lasaitu nintzela.

Defentsa-lana amaitu eta gero ere, jarraitzen genuen bosgarren kapituluaren kontuarekin. Dirudenez, ez zen nire inpresioa bakarrik epaimahaikideen arreta eskuratu nuela: Koldo Zuazo adiskideak ekitaldia amaitu eta lehenbiziko komentario hau egin zidan: “Baina zer arraio idatzi dok zorioneko bosgarren kapitulu horretan?!”. Jose Luis Ormaetxea *Txipik* ere berdintsu: hark ezagutzen zuen, Koldok bezala, nire tesia, eta alde zuzenetik zoriondu ninduen kapitulu berri hori irekitzeagatik. Koldok ere bai bere garaian, baina, jakina, tesi-efentsaren egunean ez zen gogoratzen zer zenbaki zeukan kapituluak.

Ez zen nire inpresioa bakarrik, beraz, entzuleena ere bazen.

Zer idatzi nuen? Ba, Koldoren galderari erantzunez, hona hemen ezaugarri horien erakusgarri labur-txiki bat beren adibide eta guzti (halaxe ulertzen dira ondoen eta).

1. Konparazio bidezko esapideak

Solaseko norbaiten ezaugarri bat edo egoera bat era markatuan adierazteko konparazioak erabiltzen direla sarritan. Besterik gabe, era neutroan, izenondo arrunt baten bidez, pertsona horren ezaugarri hori eman beharrean, konparazio enfatiko bat egiten da, eta hala, berebiziko indarra eta, askotan, grazia hartzen du deskribapenak.

⁵ Tesi-defentsarako prestatu nuen tesiaren kopian, “Esaerak, esapideak eta interjekzioak” izenburupean jaso nituen; geroago etorri zen argitalpenean, berriz (ikus Makazaga 2010), “Ahozko hizkeraren ezaugarri

Hona halakoen erakusgarri batzuk⁶:

- *Zorria baino alferragoa du semea.*
- *Ezpala baino argalago geratu da aita gaixo egon eta gero.*
- *Txoria baino arinagoa da ume hori.*
- *Ardi galdua bezala dabil, beti bakar-bakarrik.*
- *Uztarrarian joateko modukoak dira lagun bi horiek, beti elkarrekin.*
- *Infernuko deabrua baino gaiztoagoa da mutil hori.*
- *Urrea baino finagoa dut alaba.*
- *Txita batek bezainbeste jaten du ume horrek.*
- *Txakurra eta katua bezala dabilta beti seme-alabak.*
- *Ume batek baino pena handiagoa hartu nuen Errealak galduta.*
- *Garizuma baino luzeagoa zen emakume hura.*
- *Beldurraren beldurrez, tximista baino azkarrago etorri zitzaigun umea.*

2. Galdera erretorikoak

Gure diskurtsoan erabiltzen dugun beste baliabide bat da. Galdera erretorikoetan, dakigun bezala, ez dugu mintzakidearen erantzunik espero; beharbada berrespen txiki bat bai, baina, jaso ditudan kasuetan, batez ere diskurtsoa antolatzeko baliabide bat da, diskurtsoaren erritmoa antolatzeko, diskurtsoaren harian, dena asertzio bidez eman beharrean, bariazio estilistikoa egiteko ere bai.

Hona adibide batzuk:

- *Eta bazen, ba, aldeko mutila? Gero, joan zen Santaeske egunean gerrara.*
- *Zapatak apurtu samartuta zeuzkan. Eta zer egin zuen? Brigadari eskatu berriak.*
- *Eskolan, baserritarrek ere, zer? Neguan sei bat hilabete egin, eta gero lanera.*
- *Zer da, eta azkenean zigorra maisuak!*
- *Zein etorriko, eta etsairik gaiztoena!*

batzuk” izenburua eman nion. Gaur egun beharbada beste izenburu bat jarriko nioke, baina utz dezagun hori oraingo bere horretan.

⁶ Lan honetan, euskara batuko forman eman ditut Elgoibarren batutako ezaugarri hauek.

3. Onomatopeiak

Ahozko jardunean, hitzean eta hortzean erabiltzen dira gure inguruan entzuten ditugun hotsak imitatzeke erabiltzen diren berba hauek, bai adinekoen hizkuntzan, bai umeenean ere. Ekintza komunikatiboan, esaten duguna era zuzenagoan, argigarriagoan, ilustratiboagoan adierazteko balio dute berba hauek.

Hona, bada, Elgoibarren entzun ditudan onomatopeia batzuk:

- *Bolo-bolo dabil herrian txutxumutxu hori.*
- *Kalamua [mendia]n geratu ziren, eta sei hilabetean hortxe, dinbi ta danba, bazter guztiak garbitzen [bonbak].*
- *Hori zen ardoa erraz edatea, dzanga-dzanga!*
- *Barra-barra erdaraz kaletarrak.*
- *Amarekin joaten ginen bost lagun edo. Koxkorrak denak, ttiki-ttaka, ttiki-ttaka, txarrikumeak amaren ondoan bezalaxe joaten ginen.*
- *Haien artean beti erdaraz. Euskara ahaztu! Eskoletan laga ez, eta gero kalera joan, eta tto-tto-tto, dena erdaraz.*
- *Belarretan, ras-ras-ras garbitzen genituen zapatak [erromeriara iristean].*
- *Ri-ra egin dugu dena, hasi eta amaitu egun batean.*

4. Elipsia

Elipsiarena da ahozko jardunaren ezaugarri garrantzitsuenetako bat; komunikazio dinamikoagoa, biziagoa eta naturalagoa lortzen da, zalantzarik gabe, jakintzat ematen den zenbait informazio isilduz; kontakizunak egitean, elipsiaren bidez asko irabazten dua gure jardunak erritmoan. Aditzaren elipsia da ohikoena: aditz osoarena edo laguntzailearena.

Hona adibide batzuk (kakotx artean jarri dugu eliditutako parteak):

- *Amak arrazoia: jakina, liburu asko behar [ziren].*
- *Zintzoak izango zineten? Horixe! Duda [egiten duzu]?*
- *Bueno, martxan zagok grabagailua ala ez? Bai, aspalditik. Adarrik ez [ieзадak jo]!*
- *Hogeita hamabostean ezkondu [ginen], eta hogeita hamaseian gerra [sortu zen].*
- *Eta gero, txarren-txarrena zen, zera, biderik ez [zegoela] baserrietara.*
- *Laga ez [zien] hark neskak eramaten; bestela, eramango zituzten neskak ere.*

- Umeak laga [zituzten] gurasoekin, eta pixka bat haiek deskantsatu egin behar zutela, eta etorri [ziren].
- Euskaraz ezin [genuen] egin, eta erdaraz jakin ez [genekien]: haiek ziren komeriak!
- Dirurik ez, eta zegoenarekin konformatu behar [izaten genuen]...

5. Errepikapenak

Ahozko jardunean erruz erabiltzen dira errepikapenak ere, zerbaiti enfasi edo indar berezia eman nahian edo: errepikapen indargarriak dira, osagai baten gainean enfasi berezia egin nahi dugun kasuetan erabiltzen direnak. Errepikatzen den osagaia edozer kategoria gramatikaletakoa izan daiteke: batzuetan, erakusleren bat izan daiteke; beste batzuetan, izenondoa, aditza edo perpausa bera ere bai.

Hona Elgoibarko jardunetik bildu ditugun adibide batzuk:

- Hori duk marka, hori!
- Hura zen ona, hura!
- Hi bizi haiz, hi!
- Andres ume txiki-txikia zen.
- Egunero bi buelta ematen ditu gizon horrek. Ordu-orduan, gainera.
- Bai, askotan etortzen dira. Beti-beti ez dira etortzen, baina askotan bai.
- Lotsagabeagoa zen, lotsagabeagoa...

Errepikapenak hirukoitzak ere izan daitezke, indar handiagoa emateko:

- Ur zuri-zuri-zuria ikusten da, gainera, garbi-garbi-garbia barruan.
- Isil-isil-isilik etxera orduantxe.

Perpausak eta sintagmak ere errepika daitezke; halakoetan, bariazioagatik, oso ohikoa da hurrenkera-aldaketa perpaus edo sintagma batetik bestera:

- Gerra da azkena! Azkena da gerra, e!
- Aste Santuan eta, [jende] gaztea dena, dena gaztea.

6. Kontakizunetako betegarriak eta makuluak

Ahozko jardunean arruntak dira isiluneak: hitz bat ez zaigunean burura etortzen, esaterako. Isilune horiek betetzeko, makuluak edo betegarriak ditu eskura ahoz ari den hiztunak, harik eta etortzen ez zaigun hitz hori ahora etorri arte.

- *San Migel, hemen inguruetan dagoen zerik ederrena dago [auzorik].*
- *Ezin, ba, joan zerera... oportetara.*
- *Andre bat dago hemen, Zestoakoa da izatez, baina hor zerean bizi da, Markinan.*
- *(...) Zer da, eta nire aurretik bera hil!*

7. Ezezko formak, erruz

Nabarmena da ezeztapenaren erabilera joria ahozko jardunean. Gertaera eta deskribapen asko eta asko adierazten dira ezezko forman, era markatuan adierazi ere; horretarako, esan nahi denaren kontrakoa ezezko forman jarri besterik ez:

- *Ez duk berehalakoan etorri!*
- *Gerraren berri baldin badakik, ez haiz gaur goizekoa.*
- *Asko maite du anaia. Ez dauka, ez, saltzeko.*
- *Eskapada ederra egin dugu autoarekin: errekara joan ez garenean!*
- *Triste egongo da, ba, lana galduta? Ez dakizu asko!*

Ezeztapenen barruan, ordea, bada beste mota bat, ugaria hau ere; eta bitxia, zeren eta horrelakoetan gauza bat adierazteko haren kontrakoa esaten baitugu: ukapenak dira (ezezko formak), baina baiezko adiera dute; ez dira, hortaz, literalki hartu behar, zentzu ironikoan baizik, hitzez hitz esaten denaren kontrako zentzuan.

- *Esan diot gehiago ez molestatzeko. Ez alferrik!*
- *Txerrikeria eta ustelkeria nagusi da gaur egun. Ez da giro bazterretan!*
- *Telebistako euskara ulertzen duzue? Ulertuko ez dugu, ba!*
- *Ikasi, zeozer ikasten zenuten eskolan? Baaai! Ikasiko ez genuen, ba!*
- *Eta nongoa nintzen ez dit, ba, galdetu artaburu honek!?*
- *Donostiako Semana Grande ez zaio esaten Aste Nagusiari?*

8. Hitz-ordena berezia

Atal honetan hizpide dudan gaiak ere azterketa sakonak ekarri ditu eta ekarriko ditu oraindik ere. Ur sakonegietan sartu gabe, hitz-ordena markatuaren adierazgarritasun-ahalmena aipatu besterik ez orain. Hanpatu edo markatu nahi den osagaia era jakin batean markatu nahi izaten da ahozko mintzamolde adierazgarrietan. Horretarako, aditzaren aurreko kokalekua edota, mintzagai hanpatuaren kasuan, perpaus hasiera izaten dira indar berezi hori markatzeko guneak.

Kasu hauetan, lehenbizi garrantzitsuagoa den informazioa ematen da, eta gero bigarren mailakoa. Adibideen eskuin aldean, kakotx artean, ordena neutroa zein litzatekeen adierazi dut.

- *Orain badaukazue ganadurik?* - Ardiak orain. [Orain ardiak (dauzkagu)]
- *Eta gero beste gauza bat zen:* garoa mendian. [Mendian garoa (egoten zen)]
- *Zer ganadu daukazu?* Ahuntzak, hiru. Astoa, bat. Behorrak, bi. [Hiru ahuntz; Asto bat. Bi behor]
- *Joango gaituk kalera?* Ez oraindik! [Oraindik ez (gaituk joango kalera)]

Oro har, esan daiteke hitz-ordena malgu samarra aurkitzen dugula ahozko jardunean; mezua jasotzeko moduak (ahoz eman eta belarriz jaso) baldintzatuta, neurri handi batean. Kontua da oso ugaria dela esaldiaren pisua aurrera ekartzea, adibidez, aditza (esaldiaren antolatzailea) aurrera ekartzea. Nahi adina adibide aurkituko ditugu edozein testu ahozkotan. Hona hemen batzuk:

- *Sukaldaria ere zen Hondarribikoa.*
- *Orduan hori zen sakratua.*
- *Orain batzuek egiten dute hemendik ezkondu kanpora.*

Galdegai aurreratzeko estrategien artean, egitura kataforikoena dugu, ahozko jardunean nahikotxo erabiltzen dena:

- *Futbolari gauza bat ikusten diot nik txarra: kanpoko jendea ekartzen dute.*
- *Hor ere (gurasoak lanean) problema txarra dago: familia apurtuta geratzen da.*
- *Beste batean pasatu zen polita: (...)*
- *Eta, akordatzen naiz detailea: zeuden denak militarrek, batzuek ez zeukaten ihesbiderik, haiek fusilatu egingo zituzten seguru.*

Azkenik, deiktikoen erabilera bat aipatu nahi nuke: lehendabizi deiktikoa erabiltzea elkarrizketakideak kokatzeko, eta horren ostean kokapen hori mugatzea, zehaztea. Hona, adibidez, hauek:

- *Santa Luzietan egiten dira horiek. Eta gero, hemen Markinan ere bai, eta hor Elorrion ere bai.*
- *Hemen irratian, ba, Arrate [irratia] ipintzen dugu.*
- *(...) beharbada bidea ebakiko dute hor Urkaregin, eta ezin pasatuko naiz Markinara; hor beharbada Altzola aldetik igo eta irits daitezke hona Urkaregira.*

9. Hasiera-markatzailea duten mendeko perpausak

Ahozko jardunean erabiltzen diren mendeko perpausen artean, deskodetzen errazanak dira nagusi. Arreta berezia merezi dute mendekoaren aurreko buruan markatzaile sintaktikoren bat dutenek: perpaus mendekoaren hasiera-hasieratik hura zer eratakoa den iragartzen digutenak dira. Jaso ditzagun hemen adibide batzuk:

- *Esaten jardun zuten eze hura egiteko berrogeita bi milioi arbola kendu zituztela.*
- *Harik eta etxeko lan denak amaitu arte, ez ginen oheratzen.*
- *Lo egiten dut, baina esna ere asko. Nik, behin goizeko hirurak ezkero, gau oso bat ez dut egin lo.*
- *Ez zen komeni han gelditzerik, zergatik eze berriz ere beste tiro bat edo, igual ailegatuko zen.*
- *Ba, zure ama eta aita zela San Lorentzokoak diren biak, ba, guk erabili dugun euskara berdina da.*

10. Estilo zuzena

Etengabea da estilo zuzenaren presentzia ahozko testu lagunartekoetan, hauetan gertaerak eta elkarrizketak kontatzea oso arrunta baita. Estilo zuzena erabiltzen da bai beste pertsona baten hitzak jasotzeko, bai kontatzailearen berarenak (bere buruari esaten dizkionak) jasotzeko ere. Hona adibide batzuk:

- *Nik aitari galdera: “Aita, han hola eta hola badago, ba, txabola bat? (...)”.*
- *Hala esan nion neure buruari: “Ez hadi negozio horretan sartu!”.*
- *Eta nire artean: “Hau duk pagotxa, hau!”.*
- *Esan nuen: “Hau zela ordaintzen dute?”.*

11. Mailegutza berezia

Hitz mailegatu batzuk erabilera adierazgarrian bakarrik entzuten dira; erabilera neutroan ez dute lekurik, Elgoibarko euskaran bederen (adibideen eskuin aldean, barra etzanaren eskuin aldean, adierazi nahi izan dut ezinezkoa dela erabilera neutro hori)⁷:

- *Lehen grandia zuan motorra edukitzia, gero, e! / *Etxe grandia erosi dot.*
- *Hik dakak, hik, sanidadia, Patxi! Ordu bixetan Bilbon egon bihar, eta ordu bat t’erdietan Elgoibarren hago! / *Sanidade [osasun] ona dauka Inaziok.*
- *Han espezial ibili nitzuan! / ?Gizon espeziala da hori.*
- *Terriblia dok gure Inazio! / *Etxe terriblia (etxe bildurgarrixa, bai).*
- *Hori da printzipalena. / ?Kamiño printzipala hartu bihar dozu.*
- *Kantidadia etortzen zittuan Eibartik fubolera! / ?Jende kantidade egokixa etorri da.*

12. Esaerak

Idea bat garatu ondoren, kontakizun bat burutu ondoren, amaieran laburpenak egitea, kontatu dena irudi batekin deskribatzea modu egokia da entzulearekiko komunikazioa bermatzeko, esan nahi duguna entzuleari hobeto ulertarazteko eta gogorarazteko, esan nahi dena gogoangarri egiteko: ondorioak ateratzea, esaldi edo esapide egin batekin nahiz esaera batekin amaitzea. Gauza bera gertatzen da gertakizun bat kontatu edo zerbait deskribatu nahi denean ere: orduan ere oso ondo etor dakiok hiztunari esaera edo esapide egoki-egoki bat, mintzakideari begi aurrean argazki bat jartzeak sortzen dion eragina izan dezakeena. Eguneroko bizitzako elementuei egiten zaie erreferentzia, eta oso ugariak dira baliabide metaforikoak eta konparazio bidezkoak.

⁷ Kasu berezi honetan, Elgoibarko eran jaso ditut adibideak, euskara batuan oso bitxiak geratuko lirakeelako hitz hauen erabilera berezi hauek.

Ahozko jardunean askotan erabiltzen den estrategia da.⁸

- Urte batzuetan ibili nintzen lanean neure kontura; gero, anaiaren bitartez hasi nintzen haren tailerrean: kanpoan hotz egiten zuen.
- Badakit ez dela ideia onegia, baina halaxe egin behar izan dut: nagusiak esandako lekuan lotu dut astoa, nahiz eta gero bertan itoko dela jakin.
- Batera eta bestera ibili zen neskalgun bila, baina ezin egokia bilatu; ezin inorekin konformatu. Azkenean, on bila, on bila, bonbilla!
- Mendaroko gazte batek bota zuen bertso “berde” hori. - Bai, ba, sasoian gereziak!
- Ezin izan dut asteburuan lana amaitu: azkar eta ondo, usoak hegan.
- Beti dabilta elkarrekin: hara zer pareta, karakola eta bareta!
- Kanpokoekin ondo geratzea gustatzen zaio: kanpolarrosa samarra da hori.
- Klean beste aurpegi bat darabil emakume horrek: klean uso, etxean otso.

13. Interjekzioak

Batzuetan, aurretik esan dena berresteko balio dute interjekzioak:

- Txakur handia pagatu behar zen dantzan egiteko? - Erregular!
- Ondo bizi zinen zu, e! -Bai, hoixe!
- Lagunduko didak etxea garbitzen? -Akabo ba!
- Aurten ere negua hotza dator. -Larri ibili!
- Gustatzen zaizu baserriko lana? -Beharko! Nora joango naiz, ba?
- Aurten ere Kanarietara joango haiz oportetara? -Bienke!

Beste batzuetan, berriz, aurretik esan dena ukatzeko erabiltzen dira:

- Zahartu egin zara. -Ezta gutxiagorik ere! Ni txabalito bat sentitzen naiz.
- Gorospe izan da euskal txirringularirik onena. -Adarrik ez!
- Laster ezkonduko haiz, ezta? -Bai, zera!

⁸ “Las fórmulas ayudan a aplicar el discurso rítmico y también sirven de recurso mnemotécnico, por derecho propio, con expresiones fijas que circulan de boca en boca y de oído en oído: *Divide y vencerás, Fuerte como un roble*. Las expresiones fijas (...) en las culturas orales no son ocasionales. Son incesantes. El pensamiento, en cualquier manifestación extensa, es imposible sin ellas, pues en ellas consiste.” (Ong).

Norbait agurtzerakoan, norberaren egoeraren berri emateko balio dute beste batzuek:

- Zer moduz zaude? - Oso ondo: ni baino hobeto dagoena ez dago gaizki!
- Zer moduz zaude? - Oso ondo: hobeto, nahi ere ez!
- Zer moduz bizi haiz? - Espezial!
- Zer moduz zaude? - Ondo edo, ondo ustean.
- Zer, ondo? - Ondo edo, ondo nahian.
- Aspaldiko! Zer moduz zabilta? - Hainbestean!
- Zer moduz zabilta? - Ez hain ondo, denaren beharrean.
- Zer moduz zara? - Nahi eta ezinean, emakumea!

Lokailu bidezko egitura adierazgarriak ere erabiltzen dira. Presupozizio-kontuetan, berezi-berezia da *ere* lokailua, eta indar berezia eman diezaioke gure jardunari: berehalako erantzunen, interjekzioen arlo honetan, beraz, aukera egokia ematen du gure erantzunei eta esamoldeei adierazgarritasuna emateko. Hona adibide batzuk:

- Laster ezkonduko haiz, ezta? - Baita zera ere!
- Hartu genuen erabakia. - Bai azkar hartu ere!
- Egun on! - Bai zeuri ere!
- Egun on! - Baita zeuri ere!
- Ez zarete alferrik galduko zuek! - Ezta komeni ere!

14. Barren

Azkenik, Elgoibarren berezkoa den *barren* lokailua izango dugu hizpide. Berezia delako gure herritarrontzat egin diogu atal berezi bat. Egitura adierazgarrietan izaten du berezko lekua, eta primeran datorkigu Elgoibarkoa eta inguru hurbilekoa bakarrik den hitz honen erabileraren berri emateko. Hona adibide batzuk:

- Eta Patxi? -Zein Patxi?! Adarrik ez duk jo behar: Patxi ni lanean nenbilenean hil zuan, barren!⁹

⁹ *Barren* lokailua Elgoibarren eta inguruko herri gutxi batzuetan bakarrik erabiltzen da; *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak III (Lokailuak)* liburukian (ikus 131 or.), Gramatika batzordeak

- *Umeeek ez daukate, barren, inon jolasean egiteko lekurik!*
- *Eta gero, plazara joaten direnean, "garestia" esaten dute [barazkia]. Ez, jauna! Haiek ez dakite, barren, zer den baserriko lana!*

Bibliografia

- Alcoba, Santiago (coord.) (1999): *La oralización*. Barcelona: Ariel.
- Amonarriz, Kike (1998): "Euskarazko umorea eta hizkera erakargarria", in Rodríguez, Fito & Esnaola, Imanol (ed.), *Euskara mintzatuaren erronkak*. Leioa: EHU.
- Beinhauer, Werner (1929): *El español coloquial*. Madrid. Gredos.
- Briz, Antonio (1996): *El español coloquial: situación y uso*. Madrid. Arco.
- Elexpuru, Juan Martin (2005): *Bergara aldeko hiztegia. Leintz-Aramaio, Oñati eta Eibar inguruko berbekin osotuta*, Bergarako Udala.
- Esnaol, P. (1987-1989): "Ahozko euskarari buruz", Euskararen Kutxa atalean argitaratutako artikulu-sorta, *HABE*.
- Euskaltzaindia (1990): *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak III (Lokailuak)*. Bilbo.
- Garate, Gotzon (1988): *Erdarakadak*. Mensajero.
- _____ (1998): *27.173 Atsotitzak. Refranes. Proverbs. Proverbia*. Bilbo. BBK.
- Garzia, Joxerra (1998): "Hedabideetako euskara mintzatua", in F. Rodríguez & I. Esnaola (arg.), *Euskara mintzatuaren erronkak*. Bilbo. UPV/EHU.
- _____ (1999): *Gaur egungo bertsolarien baliabide poetiko-erretorikoak. Marko teorikoa eta aplikazio didaktikoa*. Leioa: EHU/doktore tesiak.
- _____ (2008): *Jendaurrean hizlari. (Ahozko) Komunikazio gaitasuna lantzeko eskuliburua*. Alberdania.
- Lassaletta, M.C. (1974): *Aportaciones al estudio del lenguaje coloquial galdosiano, etc.* Insula Madrid.
- Ibarretxe, Iraide (2006): *Euskal onomatopeien hiztegia. Euskara-Ingelesera-Gaztelania* [Diccionario de onomatopeyas vascas. Euskara-Inglés-Español]. Donostia. Gaiak.

- Izagirre, Koldo (1981): *Euskal lokuzioak*. Hordago.
- Laspiur, Imanol (1999): *Eibarrera jatorraren bidetik*. Eibar. *Eta kitto!* Euskara elkarte.
- León, Jabi (2004): *Elgoibartarren esanetan*. Elgoibar. Elgoibarko Udala.
- Makazaga, Jesus Mari (2006): “Non dago ahozko jardunaren adierazgarritasuna? Erakusgarri batzuk Elgoibarko euskaratik”, in B. Fernández & I. Laka (arg.), *Andolin gogoan. Essays in honour of Professor Eguzkitza*, 663-678. UPV/EHU.
- _____ (2008): “Ahozko jarduna komunikazioaren lagungarri: ekarpen bat ahozkoaren estrategia komunikatiboez”, in (X. Artiagoitia & J.A. Lakarra arg.) *Gramatika jaietan: Patxi Goenagaren omenez*, 545-560. UPV/EHU.
- _____ (2010): *Elgoibarko ahozko euskara*. IKER-25. Euskaltzaindia-UPV/EHU.
- Mendebalde Euskera Alkartia (2003): *Ahokotasuna aztergai*. Bilbo. BBK.
- Mokoroa, Justo M. (1990): *Ortik eta emendik. Repertorio de locuciones del habla popular vasca*. Bilbao: Labayru / Eusko Jaurlaritza. Etor.
- Ong, W. J. (1987): *Oralidad y escritura*. Mexico. Edit. Fondo de Cultura Económica.
- Osa, Eusebio (1990): *Euskararen hitzordena, komunikazio zereginen arauera*. Leioa. EHU-ren Argitarapen Zerbitzua.
- Plazaola, Estepan, Agirregabiria, Karmele & Bikuña, Karmen (2005): *Ahozko jarduna hobetzeko proposamenak*. Badihardugu Euskara Elkarte.
- Salaburu, Pello (1984): *Hizkuntza teoria eta Baztango euskalkia* (2 liburuki). Leioa. EHU.
- _____ (2005): *Baztango mintzoa: gramatika eta hiztegia*. Nafarroako Gobernua-Euskaltzaindia.
- San Martin, Juan (1960): *Zirikadak*. Berrargitaratua: Elkar (1984).
- _____ (1967): *Ibiltarixanak*. Ego ibarra (1993). Kutxa.

Sobre el orden básico de palabras en euskera: un nuevo estudio de corpus

Luis Pastor Santamaria

Universidad del País Vasco-Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

Abstract

Basque is classified as an SOV language, like Japanese or Korean. However, unlike these OV languages, which have rigid word order, Basque has free word order and it allows postverbal arguments. Some corpus studies have determined the basic word order is SOV (de Rijk, 1969; Aldezabal et al., 2003) whereas others have claimed it to be SVO (Hidalgo, 1995a; Aske, 1997). I conducted a new corpus study of Basque to disentangle whether the most frequent word order (i.e., the basic word order) is SOV or SVO. Unlike previous Basque corpus studies, this new corpus study analyzes and compares different sources (press, magazine, books and TV scripts) in order to have a heterogeneous corpus. The results indicate that SOV is the most frequent word order in Basque. Furthermore, I compared the data of all corpus studies in Basque (including the data of this chapter) and, once again, SOV emerged as the most frequent word order. All together, these results show that SOV is the basic word order in Basque, contrary to claims by Hidalgo (1995a) and Aske (1997), who defend that SVO is the basic word order. I present a critical discussion of these two studies.

1. Introducción

El orden básico de palabras es el orden que aparece en una oración transitiva declarativa con todos los argumentos expresados fonológicamente (Greenberg, 1963). Greenberg (1963) fue el pionero en utilizar el orden básico de palabras como criterio principal para clasificar tipológicamente las lenguas naturales. En su trabajo, titulado *Some Universals*

of *Grammar with Particular Reference to the Order of Meaningful Elements*, observó que de las posibilidades lógicas de la combinación del sujeto (S), el objeto (O) y el verbo (V), que son seis, los órdenes que se encuentran predominantemente en las lenguas del mundo son SOV, SVO y VSO. Posteriormente, Dryer (2013b) ha confirmado, mediante un corpus de 1377 lenguas, la prevalencia de estos tres órdenes principales observados por Greenberg (1963): los órdenes SOV (41%) y SVO (35%) son los más frecuentes, seguidos con a mucha distancia por el orden VSO (7%) (TABLA 1).

SOV	SVO	VSO	VOS	OVS	OSV	sin orden	TOTAL
41 %	(565) 35,4% (488)	6,9% (95)	1,8% (25)	0,8% (11)	0,3% (4)	13,7% (189)	100% (1377)

TABLA 1. Porcentajes de los órdenes básicos de palabras en el WALIS (Dryer, 2013b). Entre paréntesis aparecen las frecuencias absolutas.

El orden básico de palabras se asocia con dos propiedades: es el orden más frecuente y el menos marcado morfológica y pragmáticamente (Hawkins, 1983; Comrie, 1989; Dryer, 1995; Whaley, 1997; Dryer, 2013a, entre otros), aunque como afirma Greenberg (1966) la propiedad de ser el orden menos marcado está correlacionado con ser el orden más frecuente. Por tanto, podemos decir que ser el orden más frecuente es la propiedad principal del orden básico de palabras en la oración. Así, de todos los órdenes posibles que puede tener una oración en una lengua, el más frecuente será su orden básico de palabras. Por ejemplo, el castellano puede hacer uso de diferentes órdenes de palabras dado que tiene cierta libertad en la distribución de los argumentos; sin embargo, de entre todos ellos el orden básico SVO es significativamente el más frecuente (92%) (López, 1997).

En este artículo trato sobre la frecuencia del orden de palabras de las oraciones en euskera. En la siguiente sección 1.1, presento y discuto los diferentes estudios de corpus que he llevado a cabo en euskera sobre las frecuencias de los órdenes de palabras y trato de explicar por qué dichos estudios observan diferencias en los resultados que obtienen para la distribución de los órdenes de palabras. En la sección 1.2, presento un nuevo estudio de corpus en euskera con la intención de disipar la divergencia de los resultados de los estudios de corpus anteriores, y analizo estadísticamente las frecuencias de los

órdenes de palabras. El artículo termina con la discusión (sección 1.3) de los resultados y las conclusiones (sección 1.4).

2. Revisión de los estudios de corpus sobre el orden de palabras en euskera

Como he comentado en la introducción, el orden básico o canónico se caracteriza por ser el orden de palabras que se usa con mayor frecuencia. Si el euskera es una lengua OV, el orden de palabras SOV debe de ser el más frecuente. Sin embargo, los estudios de corpus existentes reflejan frecuencias opuestas sobre el orden de constituyentes en las oraciones: unos muestran que SOV es el orden más frecuente (de Rijk, 1969; Aldezabal et al., 2003); y otros que no, porque sería aventajado por el orden SVO (Hidalgo, 1995a, 1995b; Aske, 1997).

de Rijk (1969) es el primero argüir que el orden básico de palabras en euskera es SOV, y entre los criterios que aporta, uno es ser el orden más frecuentemente usado. Para examinar la frecuencia de los órdenes de palabras posibles en euskera de Rijk (1969) lleva a cabo un estudio pionero de corpus escrito en el que solo tiene en cuenta las oraciones declarativas transitivas en las que aparecen expresados el sujeto (S), el objeto (O) y el verbo (V). Del conjunto total de oraciones transitivas, de Rijk (1969) deja a un lado las transitivas interrogativas y negativas, las transitivas que no tienen el verbo conjugado, y transitivas en las que el sujeto o el objeto son oraciones subordinadas (salvo cuando la subordinada es una oración relativa que modifica el sujeto o el objeto), y las transitivas directas como "*Bihar jatera joango naiz» esan zuen mutilak*" [*Mañana iré a comer» dijo el chico*] e indirectas como "*Mutilak esan zuen bihar joango zela jatera*" [*El chico dijo que mañana iría a comer*]. El corpus está compuesto por tres muestras: La muestra I consiste en textos folklóricos recogidos por José Miguel Barandiaran y contados por hablantes de Gipuzkoa y Bizkaia entre los años 1920-1936; la muestra II está compuesta por pequeñas obras teatrales escritas por Nemesio Echániz; y la muestra III la componen las obras *Mateo Falcone* y *Oillasko Iturri* de Mérimée (traducidas del francés por Nemesio Echániz). Los resultados de su cómputo muestran que de los seis posibles órdenes de palabras que se pueden utilizar en euskera SOV es el orden predominante en las tres muestras (57% en total. Desglosado por muestra: I: 66%; II: 44%; y III: 61%), seguido por SVO (Total: 30% = I: 23%; II: 37%; y III: 31%) (TABLA 2, GRÁFICO 1).

	I	II	III	TOTAL
SOV	138	80	41	259
SVO	48	67	21	136
OVS	11	17	3	31
OSV	5	13	1	19
VSO	6	4	1	11
VOS	1	2	0	3
TOTAL	209	183	67	459

TABLA 2. Frecuencias absolutas de los órdenes de palabras en euskera en el corpus de de Rijk (1969).




GRÁFICO 1. Porcentajes de los órdenes de palabras en euskera en el corpus de de Rijk (1969), por muestras (I, II y III) y en total.

De estos datos, de Rijk (1969) concluye que, pese a la libertad de orden de palabras en la oración, el euskera sí tiene un orden básico o canónico: el orden SOV. Aldezabal et al. (2003) encuentran la misma distribución encontrada por de Rijk (1969) mediante un estudio de corpus de mayor tamaño. Este corpus está compuesto por 5.639 oraciones de artículos periodísticos del periódico en euskera *Euskaldunon Egunkaria*, entre los años 1999-2000. Las oraciones han sido etiquetadas de manera automática mediante un analizador sintáctico computacional según el orden del sujeto (S), el objeto (O) y el verbo (V) en las oraciones. De total de oraciones etiquetadas, solo en 512 oraciones

aparecen los tres argumentos expresados. Los resultados muestran que SOV es el orden de palabras que aparece con mayor frecuencia (56,8%), seguido de SVO (14,8%) y OVS (13,8%) (TABLA 3, GRÁFICO 2).

TOTAL	
SOV	291
SVO	76
OVS	71
OSV	51
VSO	6
VOS	17
TOTAL	512

TABLA 3. Frecuencias absolutas de los órdenes de palabras en euskera en el corpus de Aldezabal et al. (2003).




GRÁFICO 2. Porcentajes de los órdenes de palabras en euskera en el corpus de Aldezabal et al. (2003).

Como vemos, la distribución obtenida por Aldezabal et al. (2003) es similar a la de de Rijk (1969): SOV es el orden de palabras más frecuente en euskera y, por tanto, es el orden básico de palabras.

Hidalgo (1995a, 1995b) y Aske (1997), sin embargo, sostienen que el orden básico de palabras en euskera es SVO. Hidalgo (1995a, 1995b) lleva a cabo un estudio con un

corpus escrito de euskera de mayor tamaño que los anteriores. Aunque no detalla el número total de oraciones que componen su corpus, sí puede calcularse el total de oraciones que usa para la distribución de los órdenes de palabras. Su corpus consta de oraciones obtenidas de 19 textos de diferentes autores de entre los siglos XVI-XX. Para el cómputo de oraciones Hidalgo excluyó menos tipos de oraciones de las requeridas. Solamente excluyó las oraciones sin verbo, con verbo no conjugado, sin complementos, oraciones interrogativas, imperativas y negativas. No excluyó las oraciones ditransitivas e intransitivas, que constituyen una parte significativa de las oraciones a computar. Sus resultados muestran que SVO (54%) es el orden de palabras más frecuencia en euskera, seguido por el orden SOV (24%) (TABLA 4, GRÁFICO 3). Hidalgo (1995b), basándose en los datos, concluye que es un error decir que el euskera sea una lengua SOV.

TOTAL	
SOV	482
SVO	1081
OVS	204
OSV	70
VSO	136
VOS	40
TOTAL	2013

TABLA 4. Frecuencias absolutas de los órdenes de palabras en euskera sumando todos los corpus de Hidalgo (1995a, 1995b).




GRÁFICO 3. Porcentajes de los órdenes de palabras en euskera en el corpus de Hidalgo (1995a, 1995b).

Al igual que Hidalgo (1995a, 1995b), Aske (1997) encuentra que el orden SVO es el más frecuente en euskera. Mediante dos estudios de corpus, uno oral y otro escrito, compara únicamente la frecuencia de los órdenes de palabras SOV, SVO, VSO y VOS en euskera. No reporta la frecuencia de los ordenes OSV y OVS. El corpus oral consta de relatos de 46 participantes (niños y adultos) de dos películas mudas *Pearn Film* y *Modern Times* y el corpus escrito constaba del primer artículo de las novelas en euskera *Behi euskaldun baten memoriak* y *Kuba triste dago*. Aske concluye que, en conjunto, SVO es el orden de palabras más frecuente (61%) (TABLA 5, GRÁFICO 4). Separándolos por tipo, el corpus escrito muestra esta misma predominación del orden SVO (66%), pero en el corpus oral no hay diferencias entre los órdenes SOV (50%) y SVO (50%). Aske (1997) sugiere que esta preferencia por SVO puede deberse a la influencia del castellano de los participantes.

	corpus oral	corpus escrito	TOTAL
SOV	12	14	26
SVO	12	46	57
VSO	0	9	9
VOS	0	1	1
TOTAL	24	70	94

TABLA 5. Frecuencias absolutas de los órdenes de palabras en euskera en los corpus oral y escrito (y la suma de estos) de Aske (1997).




GRÁFICO 4. Porcentajes de los órdenes de palabras en euskera en los corpus oral, escrito y la suma de estos (Total) de Aske (1997).

Así pues, las distribuciones observadas por Hidalgo (1995a, 1995b) y Aske (1997) sugerirían que SVO es el orden básico en euskera, en contra de la distribución encontrada por de Rijk (1969) y Aldezabal et al. (2003), quienes observan que SOV es el orden más frecuente. Esta discrepancia en las frecuencias encontradas se debe a la metodología utilizada por Hidalgo (1995a, 1995b) y Aske (1997) frente a los otros dos estudios. Mientras que de Rijk (1969) y Aldezabal et al. (2003) etiquetan correctamente como objeto (O) solo los objetos directos, Hidalgo (1995a, 1995b) y Aske (1997) incluyen también en esta categoría cualquier otro tipo de complemento verbal (e.g., objetos indirectos, complementos circunstanciales, etc.), desvirtuando así el cómputo de la categoría O. Esta cuestión la abordo con más detalle en la discusión (sección 1.3).

A continuación, presento el diseño y los resultados de un nuevo estudio de corpus escrito en euskera que he llevado a cabo. Este nuevo corpus es más heterogéneo que los anteriores, ya que incluye textos de diferentes géneros textuales. A su vez, comparo los resultados obtenidos con los de los estudios previos y hago un análisis de todos los datos para determinar cuál es la frecuencia de uso de los posibles órdenes de palabras en euskera.

3. Estudio de corpus: orden de palabras en euskera

En el presente estudio de corpus examino la frecuencia de distribución de los seis posibles órdenes de palabras en euskera. Los propósitos de este nuevo estudio de corpus en euskera son dos: por un lado, usar un corpus amplio, similar en tamaño a los de Hidalgo (1995a, 1995b) y Aldezabal et al. (2003), pero que incluye diferentes géneros para ser lo más representativo posible de los diferentes estilos discursivos en euskera; por otro lado, analizar las frecuencias encontradas en el corpus mediante análisis estadísticos para testear la significatividad de las diferencias observadas. Los estudios de corpus en euskera previos utilizan estadísticas descriptivas básicas, i.e., la frecuencia de aparición de un orden de palabras en el corpus; pero no analizan si las frecuencias observadas son simplemente debidas al azar o no.

Materiales

El corpus escrito de euskera utilizado en este artículo consta de 4000 oraciones. He obtenido las oraciones del corpus *EPG – Ereduzko Prosa Gaur* (Sarasola, Salaburu, Landa y Zabaleta, 2009) y he seleccionado diferentes géneros para tener una muestra heterogénea. El criterio de selección ha sido el siguiente: 1750 oraciones del periódico *Berria*, 1300 oraciones de diferentes libros, 300 oraciones de los guiones de la serie de televisión *Goenkale*. A estas he añadido 600 oraciones de la revista de divulgación *Elhuyar* y 50 oraciones de la revista científica *Uztaro*. Con la intención de tener un corpus aún más heterogéneo, he obtenido las oraciones de diferentes subpartados en cada género (salvo las oraciones de los guiones de la serie televisiva *Goenkale* y la revista científica *Uztaro*), y con un número de oraciones igual en cada una de ellos. En el periódico de lengua vasca *Berria* he utilizado las secciones de Economía, Sociedad, Mundo, Deportes, Cultura, Política y Nacional (250 oraciones x 7 secciones = 1750 oraciones). En libros, he seleccionado libros de cuatro géneros diferentes: Comedia, Misterio, Histórica y Ensayo (No-ficción) (325 oraciones x 4 géneros = 1300 oraciones). Y en la revista divulgativa *Elhuyar* las secciones Historia, Cultura, Naturaleza, Salud, Tecnología y Ciencia (100 oraciones x 6 secciones = 600 oraciones).

Procedimiento

He etiquetado las oraciones transitivas manualmente y las he clasificado según el orden de palabras, i.e., teniendo en cuenta el orden lineal en el que aparecen el sujeto (S), el objeto directo (O) y el verbo (V):

- (1) a. Nik_[S] albaniarrak_[O] defenditu ditut_[V] SOV [libros]
 "Yo he defendido a los albaneses"
- b. Gaizkak_[S] irekitzen du_[V] atea_[O] SVO [guiones]
 "Gaizka abre la puerta"
- c. Lana_[O] sei ikerketa-taldek_[S] egin dute_[V] OSV [revista]
 "El trabajo lo han hecho seis grupos de investigación"
- d. Lau txanda_[O] aurreikusi ditu_[V] batzordeak_[S] OVS [periódico]
 "Cuatro turnos ha previsto el comité"
- e. Berehala irentsi zuen_[V] amua_[O] katxaloteak_[S] VOS [libros]
 "En seguida se ha tragado el anzuelo el cachalote"
- f. Eugin jaso zuen_[V] Azkuek_[S] kanta hau_[O] VSO [periódico]
 "En Eugi recogió Azkue esta canción"

Del total de oraciones que componen el corpus, solo he tenido en cuenta para el análisis estadístico las 1054 oraciones transitivas declarativas, descartando las oraciones intransitivas, las ditransitivas y las transitivas negativas, interrogativas, con subordinadas como objeto (objetos CP) y aquellas con argumentos omitidos (NP omitidos) (TABLA 6).

Intrans	Transitivas					Ditrans	TOTAL
	declarativas	negativas	interrogativas	objetos CP	NP omitidos		
989	1054	80	21	233	1501	122	4000

TABLA 6. Distribución del tipo de oraciones del corpus escrito de euskera.

A la hora de analizar los datos del corpus he usado los análisis estadísticos prueba de bondad de ajuste chi-cuadrado (*chi-square goodness of fit test*) y el modelo de regresión logística multinomial. La prueba de bondad de ajuste chi-cuadrado la he usado para analizar si la distribución de la frecuencia de los órdenes de palabras en el corpus se debe al azar o no. La regresión logística multinomial, por su parte, la he utilizado para analizar si el tipo de género del corpus influye en la frecuencia de uso de los diferentes órdenes de palabras. Los análisis estadísticos los he computado mediante el programa

estadístico R (R Core Team, 2017) y usando el paquete *polytomous* (Arppe, 2013). He tomado como nivel de referencia la media de las medias de los cuatro géneros (periódico, libros, revistas y guiones), dado que el *intercept* es una media no ponderada, i.e., las variables tienen diferentes frecuencias. Los resultados los he considerado significativos a un nivel $p < .05$. Los gráficos han sido realizados con el paquete *ggplot2* (Wickham, 2009).

Resultados

La TABLA 7 muestra la clasificación de las 1054 oraciones transitivas que componen el corpus, según el orden de palabras y el tipo de género. De acuerdo con la prueba de bondad de ajuste chi-cuadrado (*chi-square goodness of fit test*) la distribución de las frecuencias de los seis posibles órdenes de palabras en euskera no es idéntica, i.e., no son igual de frecuentes (χ^2 (5, N = 1054) = 1249.9, $p < .001$, $V = 0.48$): el orden que aparece significativamente con mayor frecuencia es SOV (52%), doblando la frecuencia de SVO (26%), que es el segundo orden más frecuente. Esta misma frecuencia mayoritaria de SOV se observa también en cada género: periódico (54%: χ^2 (5, N = 582) = 726.16, $p < .001$, $V = 0.49$), libros (41%: χ^2 (5, N = 232) = 233.98, $p < .001$, $V = 0.44$), revistas (50%: χ^2 (5, N = 151) = 175.42, $p < .001$, $V = 0.48$) y guiones (69%: χ^2 (5, N = 89) = 181.81, $p < .001$, $V = 0.63$).

	periódico		libros		revista		guiones		TOTAL	
SOV	54%	(314)	40%	(94)	50%	(76)	69%	(61)	52%	(545)
SVO	23%	(133)	38%	(88)	26%	(39)	15%	(13)	26%	(273)
OSV	17%	(101)	16%	(37)	20%	(30)	12%	(11)	17%	(179)
OVS	3%	(15)	1%	(2)	2%	(4)	2%	(2)	2%	(23)
VSO	2%	(10)	3%	(7)	1%	(1)	1%	(1)	2%	(19)
VOS	1%	(9)	2%	(4)	1%	(1)	1%	(1)	1%	(15)
TOTAL	100%	(582)	100%	(232)	100%	(151)	100%	(89)	100%	(1054)

TABLA 7. Distribución en euskera de las oraciones transitivas según el orden de palabras y el tipo de género. Entre paréntesis aparecen las frecuencias absolutas.




GRÁFICO 5. Porcentajes de los órdenes de palabras en euskera en los diferentes géneros (periódico, libros, revista, guiones) y la suma de estos (Total).

Como vemos en el GRÁFICO 5, el orden SOV es el más frecuente en general y en todos los géneros; pero su frecuencia es mayor en los guiones (69%) que en el resto de géneros (periódico: 54%; libros: 41%; revistas: 50%). Para analizar si esta diferencia de frecuencia de SOV entre los cuatro géneros es significativa he llevado a cabo una prueba chi-cuadrado (*Pearson's chi-square test*), comparando su frecuencia con la de SVO en los cuatro géneros, que es el siguiente orden más frecuente. Dado que los subcorpus de cada género son de diferente tamaño no se refleja con precisión las frecuencias relativas de ambos órdenes en cada género; por ello, he normalizado la frecuencia de ambos órdenes en cada género y he calculado sus frecuencias por 1000. La prueba chi-cuadrado muestra que la frecuencia de uso de SOV es significativamente similar en cada género [$\chi^2(3, N = 4000) = 220.91, p < .001, V = 0.24$]. Aún así, el modelo de regresión logística multinomial muestra que el género guiones influye significativamente en que SOV se utilice con mayor frecuencia comparado con el resto de géneros [$\beta = 0.6371, p < .001, \text{odds ratio} = 1.89$]: la probabilidad de uso de SOV es 1,9 veces mayor en los guiones que en el resto de géneros. El orden SVO, por el contrario, se ve favorecido por el género libros [$\beta = 0.64, p < .001, \text{odds ratio} = 1.89$], donde es 1,9 veces más probable que se use con mayor frecuencia que en el resto de géneros (TABLA 8).

Orden de palabras por género – Coeficientes de <i>estimate</i> :						
	SOV	SVO	OVS	OSV	VSO	VOS
(Intercept)	(0.1416)	-1.132	-1.644	-3.939	-4.251	-4.421
periódico	(0.01682)	(-0.08421)	(0.08331)	(0.3062)	(0.2046)	(0.2675)
libros	-0.5255	0.64	(-0.01802)	(-0.8064)	(0.781)	(0.3781)
revistas	(-0.1283)	(0.07753)	(0.2495)	(0.3344)	(-0.7595)	(-0.5895)
